



ttipi-ttapa



GARAZI CONDE

'Ene baitan bizi da'
liburua argitaratu
du Maddi Ane
Txoperenak / 8

Koronabirusa
tarteko udako lanaz
gozatu nahi eta ezin
gelditu dira aunitz / 32



Maskara gardenak
sortzeko lanean ari
da Mari Jose
Barriola leitzarra / 38

SINADURAK



MAITE
BIDARTE
SOTA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



ESTEBE
APEZETXE
MURUA / 4



IZASKUN
REKARTE
BENGOETXEA
/ 4



ZOKETA / 56

BIZIMODU HOBEAREN BILA

Sorterritik urruti milaka eta milaka kilometro eginez bizimodu hobe bat amets eskualdera etorri diren zortzi etorkinen testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. Horietako batzuen egoera zaila eta gogorra da. / 10



EZ GALDU AUKERA, LEHENENGO KONTSULTA DOAN

BAI, HITZORDUA NAHI DUT

IRUN
943 633 305
Colon Pasalekua, 27

HERNANI
943 386 962
Elkano Kalea, 35



AUDITEK

Centro Auditivo • Entzumen Zentroa

Asociación Nacional
de Audioprotesistas
audioprotesistas

QADA
Entzumen Zentroa
de Auditek

Entzun eta ulertu

Auditeken zuri egokituriko
irtenbide eta tratamentuen
bidez komunikatzen
laguntzen zaitugu.

auditekcentroauditivo.com

TELEFONO GIDA 2020

INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortziriak | Malerreka | Mendialdea | Urdazuri



5.700 ale
Praktikoa eta erraza

- Komertzioak
- Lantegiak
- Zerbitzuak
- Erakundeak
- Partikularrak...

Zure enpresaren datuak
internet bidez
klik batean

erran.
eus

Zure enpresa sartu nahi?
Milaka pertsonak ikusiko dute
zure iragarkia

Informa zaitez
T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eus



NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Txaloak komunikabideentzat ere

Aprobetxatu nahi nuke tarte hau egun hauetan hedabideek egin duten lana goraipatzeko. Zortzietan ez da txalorik egin kazetarientzat, baina aski mereziak dituzue/ditugu. Prekarioa zen sektorea are prekarioagoa da orain publikitateak kolpez erori delako koronabirusaren ondorioz. Eta hala ere, hor, lehen lerroan, informatzen, bidea argitzen eta konpainia egiten. Krisi garaietan informatzea inoiz baino garrantzitsua goa dela jakinda, kolpez aldatu dugu gure egunerokoa, erre-dakzioa etxera eraman, birmoldatu sekzioak eta programak. 24 orduko informazio uholdea jaso, murtxikatu eta gure kontsumitzaileari egokitu, dena kontrastatu, informazio faltsuak detektatu, aditu onenak elkarrizketatu... Hor egon gara, egunero 24 orduz.

**«EZ ZAIE TXALORIK
EGIN KAZETARIEI
BAINA MEREZIAK
DITUZUE/DITUGU»**

Galdetu edozein kazetariri, ea zer moduz joan zaizkion konfinamenduko lehendabiziko egunak, eta galdetu ea zenbat orduz egin duen lan. Eta idatzi hau bukatuta, egin txalo, faborez, hutsik egin gabe ondoan izan dituzun hedabideei.



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Mugaldeko kontuak

Gipuzkoan bizi den lesakarren bat Aritxulegiko mugan autoa utzi eta lagunekin bazkaltzera oinez mendiz mendi etorri da garai hauetan. Baigorri eta Baztango gazteek mugaren itxiera «jende soilarentzat» ezarri dutela salatu dute eta hori leituta, bere melena eta bizar luzeekin arazorik izanen ez zuela pentsatuz saiatu zen bertzea Izpegin. Ez zuten pasatzen utzi.

NABARMENTZEKOAK

JAIONE
ELIZAGOIEN
MUSIKARIAENEKO
FERNANDEZ
BERTSOLARIA

Konfinamendua hasi zenetik, bi hilabetez astebururo-astebururo Aniz alaitzen egindako lana eskertzeko, herritarrek esker ona adierazi diote Jaione Elizagoieni.

Baztan-Bidasoaldeko Bertsopaper lehiaketako maila nagusia Eneko Fernandez lesakarra izan da lehenbiziko saria lortu duena, *Inkisiadore berriak* lanarekin.

ATZERA BEGIRA



2010-06-10 · TTIPI-TTAPA · 520 zk.

Izei Gillenearekin kenpo kai hizpide

«Kenpo kai bertze arte martzialak baino konpletoagoa da». Halaxe adierazi zion Izei Gillenea beratarrrak duela hamar urte TTIPI-TTAPAri. «Bertze arte martzial batzuek jo eta lurrera bota bakarrik egiten dute, baina kenpo kaik denetarik du: medikuntza, defentsa pertsonala, borrokak, armak...». Pilota eta futbola gustuko ez eta herriko kiroldegian zerbait berezia eskaintzekoak zirela jakin zuzenean pentsatu zuen probatzea. Probatu eta gustatu zitzaion. 11 urterekin hasi zen kenpo kai ikasten eta 17 urterekin «engantxatuta» zegoela aitortu zuen, baita «gero eta gusturago» zebilela ere. Kirol honetatik batez ere zer gustatzen zitzaion galdetuta, berriz, «filosofia» erantzun zuen, baita «bertzeekiko errespetua eta diziplina ere».



erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

TTipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larralde,
Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorena, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administratzailea
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Sempereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€



KOLABORAZIOAK

ESTEBA APEZETXE MURUA

Zaharrak berri

Uda hurbiltzen ari zaigun honetan, azken hilabeteetako tunelaren bukaera argia ikusten hasi omen gara. Ditzosozko birusak kutsatutako eta hildakoen kopuruak beheiti egiten ari dira etengabe eta transmisio arriskua aunitz txikitu dela diote adituek. Osasun-krisi honek ordea, pandemiaren aitzine-tik nabaritzen hasiak ginen krisi ekonomiko, ekologiko eta sozialean eragin handia izanen du eta hausnarketa sakonak egitera behartuko gaitu etorkizunean.

Bizitzen ari garen egoerak sendoak zirela erraten ziguten sistemaren zutabeak eduki astindu ditu. Mendebaldeko kulturako klase ertain eta altuko zuriok konturatu gara gure erosotasuna hari fin batetik dagoela zintzilik. Kasik hilezkor egiten gintuela uste genuen osasun-sistema indartsua hankaz goiti jarri du izate mikroskopiko batek. Ospitaleak, mediku eta erizainak gaindituta eta segurtasun neurri eskasekin, alor publikoaren garrantzia mahai gainean jartzera heldu dira orain arte pribatua elikatu dutenak ere. Eta pribatura etorrira, ezin zahar etxeak aipatu gabe utzi. Haiek kudeatzen dituzten enpresen irabazi asmoak egoiliarren zaintzaren gainetik daudela argi gelditu da eta horrek hautsak harrotu ditu. Zaintzaz gain, luzaroan baztertuta egon diren lanbideak erdigunera ekarri ditugu; garbitzaileak, dendariak, kutzazai-

«GURE ESKU DAGO INGURUKOEI ZER ETORKIZUN UTZI NAHI DIEGUN ERABAKITZEA»

nak, garraiolariak eta lehen sektoreko langileak, bertzeak bertze. Gizartearen %85 bizi den hirien egituraketa ere eztabaidagai izan da. Kontsumorako prestatuta daudela garbi gelditu da eta

honelako egoera baten aitzinean dituzten gabeziak plazaratu dira. Eredu kapitalista da funtsean seinalatuta gelditu dena. Barne Produktu Gordinarene etengabeko hazkundean oinarritzen den ekonomiak aurrez aurre taltza egiten du gisa honetako gertakariekin eta jadanik lehenik argi gorria piztuta zuen larrialdi ekologikoarekin.

Eta hemendik aitzinera zer? Pasatu dugunak mundua aldatuko zuela erraten zen eta orain arte bizitakotik gutxi izanen zuela normaltasun berria deitu dioten horrek. Kontsumitzeko eta erlazionatzeko moduak aldatuko omen genituen eta arduratsua bihurtuko omen ginen, elkartasuna indibidualismoaren gainetik jarritz. Eta agian hala izanen da, baina momentuz behintzat burua lepo beretik dugula ematen du. Konfinamendua akitu bezain laster, ekonomia suspertzen laguntzeko deia zabaldu dute agintariek edo ongi dakigu hori nola egitea aurreikusten den: neurririk gabe kontsumituz, erosiz, bidaiatuz...

Munduak lehen abisua pasatu digu eta gure esku dago gure ingurukoei, seme-alabei, ilobei edo bilobei zer etorkizun utzi nahi diegun erabakitzea. Albert Einstein zientzialariak bere esaldi famatueta batean erraten zuen emaitza desberdinak lortu nahi badira, ez direla ekintza berberak errepikatu behar. Guk ordea, formula zaharrak aplikatzen segitzen dugu harri berean behin eta berriz tupust egiteko dugun ohiturari eutsiz. Normaltasun berri, zaharrak berri!



IZASKUN REKARTE BENGOTZEA

Isolatuak

Momentu eta egoera guztietan zaila da bakarrik edo isolatuta egotea. Bakartasun eta isolamendu hau bera da pandemia globalak eragin digun egoera behartua. Itogarriak suertatzen zaizkigu lan egun arruntetan hain desiragarri genituen etxean ematen genituen orduak. Etxeko lau paretek nazkatu egiten gaituzte, eta gure familiako kide nahiz lagunekin egon ezin izateak egoera hau okertu egiten du, zalantzarik gabe. Baina, errealitatean, isolamendu eta bakardade hau nahiko lauso eta laburra da beste adiskide batzuen egoerarekin alderatuta.

Gure herrian bada asteak baino, urteak gela batean igaro dituen edo daramatzana. Gela bakar hau, maizenik, partekatua izaten da, intimitaterik gabe eta eskubiderik gabe. Mundutik nahiko isolatuta daude egunerokoan, eta ezarritako neurriekin isolatuago daude orain eta, ondorioz, babesgabatasun egoera handiagoa da. Euskal preso politikoez ari naiz. Etxerat elkarteak aurten argitaratu duen lehen txostenaren arabera, egun 235 euskal preso daude frantziar eta espainiar estatuetako kartzeletan (Etxerat, 2020).

Imajina dezagun zure herritik 900 kilometrorara dagoen espetxe batean zaudela egun bizi dugun alarma egoeran. Zure osasuna arriskuan ikusteaz gain, zuk maite dituzunak

«IMAJINA DEZAGUN HERRITIK 900 KILOMETRORA ALARMA EGOERAN»

nola egonen diren eta gaixotasun honi aurre egiten ote dioten zure buruari galdegiten diozula. Zenituen bisita urriak egiteko aukera kendu dizutela eta espetxeiko presoak inoiz baino bakar-

tuagoa zaudetela, zuen osasun segurtasunagatik. Etxeratek argitaratutako txostenaren arabera, euskal preso politikoak dira presondegiaren bakartuen daudenak (Etxerat, 2020).

Egun, Covid-19agatik alarma egoera ezarri zenetik presondegi guztietako bisitak bertan behera gelditu dira. Kartzela erregimen gogorrenetan dauden presoak ia ez dira ziegetatik atera. Toki komunak berdin partekatzen dituzte, hauetariko gehienak leku txiki eta itxiak izanik, birusarekin kutsatzeko arrisku handia dago. Etxerat eta bertze hainbat erakunde nahiz eragilek agiri bat sinatu dute preso dauden gaixo larriak eta 70 urtetik gorakoak ateratzeko eskatuz. Baina, beste behin ere, Espainiako Gobernuak ez du jaramonik egin (Etxerat, 2020).

Pandemia globalak hausnarketarako momentu egokia eskaini dio gizarteari, dituen ahultasunak identifikatu eta hauek erreparatu ahal izateko. Beraz, egoera honek eskaintzen digun denbora aprobeztatuz, kartzela ere du berri bat birpentsa dezagun.

11 GALDERA LABUR

IONE ZOZAIA IRATZOKI ZUGARRAMURDIKO MUSIKARIA

«Kulturarteko musika sortzen dugu zenbait estilo uztartuz»

Noiztik zabiltza musika munduan?

Ttikitatik musikaz inguratuta egon banaiz ere, duela lau urte hasi nintzen kantatzeko afizioa publiko egiten.

Nola sortu zen Kilimak taldea?

Gitarrari ahotsa batuz hasi ginen eta gerora perkusioa, baxua eta tronpeta gehitu genituen. Udan bi urte beteko dira elkarrekin musika esperimentatzeko bildu ginenetik.

Zer estilo lantzen duzue?

Euskal runba deitzen duguna. Runbaz gainera, Swing, Ska... estiloak sumatzen dira kantetan, zenbait kultura uztartzen dituen musika sortzen dugu.

Gaztea maketa lehiaketan parte hartu duzue...

Lagun eta lehengusu bat gure estiloak lehiaketa hartan ager-

tu behar zuela sinetsita zegoen. Lehenbiziko diska ateratzeko behar genuen laguntza eta Euskal Herrian gure musika aditzera emateko nahia tarteko, aukera ona ikusi genuen...

'Kontakatu' kanta aurkeztu zenuten...

Gure kanta zaharrenetakoa da, bidaia luze batetik bueltan auzoan sortua.

Zergatik aukeratu zenuten hori?

Kontzertuetan gehien eskatu diguten kanta da Youtubera igo eta segituan ikustaldi aunitz izan zituena...

Entzuleen saria irabaztea espero zenuten?

Bagenuen lagun, familia eta jarraitzaileekiko esperantza. Baina ez genuen uste hainbeste izanen zenik. Diruak



motibatzen du, baina ingurukoek sustenguak ez du preziorik.

2.500 euro irabazi dituzue. Zertara bideratuko duzue diru hori?

Apirilean maketa bat grabatzen hastekoak ginen, Covid-19ak proiektua bertan behera uztea eragin zuen. Orain, gure diskoaren grabazioa iritsiko den momenturako gordeko dugu.

Nola ikusten duzue zeuen burua finalean?

Gure saltsan, irribarretsu, musikarekin momentu on bat

pasarazten ikusten gara. Irabazi edo galdu, esperientzia hau ospatzeko besta polita egingen dugu.

Nola ari zarete prestatzen?

Hasieran bakoitza bere etxetik aritu gara eta orain Hernanin biltzen gara, entsegu lekuan.

Kontzertuetan ere sumatu izanen duzue pandemiaren eragina...

Bai, udarako 12 kontzertu genituen. Orain, ordea, ez dugu horien berririk eta ez dugu ilusio faltsurik egin nahi.

Hondartza edo erre kara joateko toallak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Eusko Jaurlaritzak, erdaraz**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Tarteka-marteka Eusko Jaurlaritzak ohi-tuta gauzka entzutera bere gobernu oso euskaltzalea eta independentista dela, batez ere, Korrika eta Euskaraldiaren garaietan, eta nik ez dut zalantzarik egiten, baina birus ñimiño eta ikusezin bat iritsi eta Eusko Jaurlaritzaren asmo on eta goren guztiak pikutara bidali ditu, bestela, jaun-andreak, esadazue nola uler litekeen, koronabirusaren erregealdi triste eta luze honetan guztian, Euskadi Irratian eta ETB1en hainbeste erdara-espainiera- entzun izana; nire kexa ez da, ez lehena, ez eta handiena ere.

Bi hedabide horietako prentsaurrekoe-tan, Iñigo Urkullu, Josu Erkoreka, Arantxa Tapia, Azpiazua jauna, Sanchez jauna, Nekane Murga andrea eta abar, makina bat aldiz aritu dira espainiera garbi-garbian, batere lotsagorritu gabe eta pultsuak inolako dardarik egin gabe. Nekane Murgak oraindik noiznahi gozarazten digu bere ahots bereziarekin erdara hutsean; euskaraz irakurtzen ere badaki, bai, baina batzuetan ahaztu egiten zaio.

Badakit egoera zail batean ari direla, baina zergatik egoera zail horretan, alde batera utzi pertsona baten funtsezkoena dena, alegia, bere hizkuntza? Edo EAJ-koentzat ez ote da oso funtsezkoa euskaraz? Zergatik ez ote dituzte agiri eta komunikatu guztiak hasiera-hasieratik euskaraz egiten, Argia aldizkariak, Berria egunkariak, Bertsolari elkarteak, Euskaltzaindiak eta Mailope aldizkariak bezala, bost adibide soil baino ez jartzeagatik? Nik badakit erantzuna, eta, gainera, hori jakiteko ez da oso argia izan behar; horrela jokatzeko dute, noski, beraien sailburuen eta zuzendarien artean pertsona erdal-dunak daudelako, eta, nork jarri ote ditu postu horietan pertsona horiek? Erantzuna erraz-erraza da: EAJ alderdiak; horrek erakusten du zein puntutaraino dauden sentsibilizatuta euskararekin. Esaten da, ekintzengatik ezagutzen direla pertsonak...

Dena den, bai, EAJ eta PSEkoak ari omen dira kudeatzen izurriaren garai zail eta

konplikatu hau modu ezegonkor batean; ongi, ulertzen dugu, baina non ote dau-de orain, egiaren benetako momentuan, duela oso hilabete gutxi hainbeste aipatu eta goraipatu zituzten itzultzaile automatikoak? Nik gaizki ulertu ez baldin banuen, bi marka on omen zeuden gutxienez, bat, Eusko Jaurlaritzaren bitartez lortua, eta, bestea, Elhuyarrek asmatua, oker ez banago. Bai, hau ere honelaxe da: behin baino gehiagotan esan ziguten oraindik ez zirela perfektuak eta ezin zutela ordezkatu pertsona itzultzaile onen lana, baina beren laguntza oso estimagarria zela. Orduan, oinezko pertsona xehe eta arruntok zera galdetzen dugu: non ote daude lanabes egoki horiek? Ahaztu al zaie existitzen direla? Eta aldi-bereko itzulpen zerbitzua non gorde ote dute?

Iñigo Urkulluri behin baino gehiagotan entzun diogu esaten, tratatu nahi duela Espainiako estatuburuarekin berdinetik berdinerara, eta, orduan, zergatik ez da hasten hizkuntzarekin, Gasteiztik hitz egiten dionean, berdinetik berdinerara, bakoitza bere mintzairan, aldi-bereko itzulpena erabiliz, eta bere burua makurtu gabe? Ez dezagun ahantz, Urkulluk euskal filologia estudiatu omen zuela! Bestalde, suposatzen dut EAJk eta PSEk ez dutela aitzakiarik jarri nahiko diruan, ez da hala?, azpiegitura batzuetan halako dirutzak xahutzen dituztenean: Abiadura Handiko Trena, Bilboko hegoaldeko saihesbidea, Donostiako Metroa eta abar.

Bai, zoritxarrez, oraindik luzaroan jarraitu beharko dugu entzuten Nekane Murgaren ahots monotonoa espainierarik txukunenean, baina, aldi berean, gogora dezagun bera ez dela erantzulerik nagusia. A zer-nolako alamenaren ematen digun egunero Murga andreak!!!

Erizaintza euskarako eskaintza handitua NUPen**FERMIN ZABALTA ALEMAN** ADMINISTRAZIOAN
EUSKARAZ TALDEAREN IZENEA

NUPe euskaraz eskainiko ditu, 2020-2021 ikasturtean, Erizaintzako Gradu lehen-biziko seihilekoko irakasgai guztiak (lehen-biziko urtekoentzat, antza denez). Gradu gainerako mailetan ere euskarazko eskaintza ezartzen joateko asmoa omen du errektoretza taldeak. Hala jakinaraz dio Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaskuntzako errektoreorde Inmaculada Farran Blanchek Administrazioan Euskaraz Taldeari, 2020ko maiatzaren 26an.

Kostata, baina irudi du fruituak ematen hasi dela ikasleek, sindikatuak eta Iruñeko Euskalgintzak egindako borroka.

Espero dezagun iragarpen hau bide berri baten hasiera izatea, euskarazko eskaintzari dagokionez.

KAIKU Km0**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Kaiku Km0 bizimodu bat da. Zure inguruneaz, sustraiez, ohiturez eta kulturaz kezkatzen da. Baita bertako ekoizleei laguntzea eta arduraz kontsumitzea ere. Kontsumitzaileak gure ingurugiroaren oparotasunaz kontzientziatutako asmoz jaio den mugimendua da.

Honaino iristen da Kaikuk bere webgunean jarrita daukana. Denarekin oso ados nago, gauza batekin izan ezik, eta, hain zuzen ere, garrantzitsuen dena, izenburuarekin, alegia, 'Kaiku Km0', horrexegatik jarri dute hain justu ere buruan, garrantzizkoena delako.

Uste dut, euskaldun jantzi guztiek daketela ez dela gauza bera 'formula bat' eta 'bat formula', bueno, ba, kontu bera gertatzen da 'zero kilometro'-rekin. Inork zalantzaren bat baleuka, begira dezala, mesedez, leku hauetan besteak beste, konparaziora, Euskaltzaindiaren Hiztegiari: 'zero tolerantzia'; 'zero zabor'; 'zero zenbakia'; 'zero kilometro', edota *Berria*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

egunkariko estilo liburuan: 'zero pazien-tea'; 'zero eremua' eta abar.

Bueno, ba, ikusitakoak ikusita, iruditzen zait ez dagoela tokirik zalantzan jartzeko gorago esandakoa, orduan Kaiku enpre-sak zergatik errepikatzen ote digu behin eta berriz, euskarazko hedabide guztietan 'kilometro zero', 'kilometro zero' eta 'kilometro zero' nazkatu arte, nardatu arte, gogaitu arte, baldin eta, bere propa-gandan esaten badu «gure kulturaz kezkatzen dela»? Zer, euskara zuzena, txukuna eta egokia ez al apika gure kul-tura Kaikurentzat! Euskarak ez al du merezi hainbeste? Zergatik tema hori espainiera bultzatzeko? Erdarak gehiago saltzen al du, e?, Kaikuko demonio kai-kuok?

Nik neronek bederen, aitortzen dizuet, Kaikuko jaun-andre (baba loreok?), asper-asper eginda naukazuela erdal-esamol-de hori sartzeko fanatismo ergel horrekin, baita euskarazko komunikabiderik eus-kaltzaleenetan ere. Zuentzat 'kilometro zero' delako esamolde gogaikarri eta erdaratzaile hori!

BOTA BERTSOA

BITTOR ELIZAGOIEN ETXEGARAI
ARRAIOZKO BERTSOLARIA

2020ko gaitza
Doinua: Itsasoari begira



Bi mila eta hogeigarrena
Norek ez du gogoratzen
Negu erdian koronabirus
Hasi zitzaigun zabaltzen
Martxoan berriz guztiak preso
Kalerik ez zen zapaltzen
Herriko besteak bertan behera
Aurten ez dira ospatzen
Eskularruak, muturrekoak
Hasiak gara nazkatzen
Zortzietako hitzordu horrek
Zerbait gintuen goxatzen
Balkoietatik denak hizketan
Edo bertsoak kantatzen
Gutxienian ikasi dugu
Gure gauzak baloratzen.

Hiru egunez zabaldu dela
Mundu guzian barrena
Hainbertze jende nola hil diren
Horrek ematen dit pena
Baina oraindik inork ez digu
Eman gaitzan azalpena
Eta krisia omen da berriz
Atzetikan datorrena
Krisiak ez du harrapatuko
Predikatzen ari dena
Jende txiroen miseria da
Aberatsen garaipena
Hasera txarrak beti txarrago
Izaten du ondorena
Beti bezala jende xumeek
Ordainduko dugu dena.

HEMEROTEKA



«Pasatu dugun estualdiaren ondotik, kontent gaude, gutieneko gastuak ordaintze-ko adina izanen dugu (...) Araudia betetze-ko etxea egokitzen ari gara. Hiru logela bikoitz jangela batean eta egongela batean egokitu ditugu eta bertze bi logelak portxea egongela-jangela bihurtuz egokitu ditugu. Bezeroei segurtasuna eta konfiantza ema-nen dioten aldaketa ttikiak dira».

MARI JOSE IPARRAGIRRE
ELIZONDO | D. NOTICIAS. 2020.06.01



«Isilik ez egoteagatik Oriamendi 2020k ez dit segitzeko aukerarik eman. Koadroko guztiei egin diete eskaintza, niri izan ezik. Hori da dudan azalpen bakarra, ez baiti-date deus ere erantzun. Enpresako pilota-riok dugun Whatsapp taldean, eskaintza-rik zergatik ez zidaten egin galdetuz idatzi nuen eta gaur arte. Ez dakit noizbait pu-blikoki edo pribatutik erantzunen didaten».

XANTI UTERGA
DONEZTEBE | D. NOTICIAS. 2020.06.02



«Neskato ibili ziren emakumeei ez zaie garrantzi handirik eman»

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN LESAKA-HENDAIKO IDAZLEA ETA KAZETARIA

Gaztetan neskato ibili zen Josefina amatxiren eta Marie bilobaren arteko harremana ardatz hartuta, bere lehenbiziko eleberria argitaratu du Hendaian sortu eta Lesakan bizi den gazteak

G. PIKABEA | LESAKA

Ofizioz *Berrian* kazetari, ikasketaz Gizarte Antropologiako ikasle, afizioz bertsolari, eta borondatez TTIPI-TTAPA aldizkarian eta bertze hainbat tokitan kolaboratzaile. Hori gutti ez, eta orain idazle ere bai. Horixe dugu Maddi Ane Txoperena Iribarren, Hendaian sortu eta Lesakan bizi den gaztea (1994). Iaz, Ipar Euskal Herriko gazteei zuzendutako Gazteluma Sariketa irabazi zuen, eta horri esker, berriki bere lehenbiziko eleberria kaleratu du: *Ene baitan bizi da*. Marie biloba eta Berako Josefina amatxi protagonistatzat hartuta, hainbat istorio landu ditu: 50eko hamarkadan neskato ibilitako emakumeen errealitateak, lehenengo eta oraingo maitasun eta desamodio istorioak, laneko sufrimenduak, gatazka politiko baten ondorengo testuinguru baten ezinak, amatxi-biloba eta alaba-guraso harreman korapilatsuak... Hori guztia iraganaren eta orainaren arteko zubia eginez. **Zurea sormena dela erranen dugu?** Ttikitatik gustatu izan zait idaztea, nahiz eta orain arte ez dudan deus argitaratu. Niretzako aritu izan naiz eta beti koadernotxoren bat izaten dut eskura, oharrak edo nire gauzak idaztea gustuko dudalako. Ipuinak eta fikziozko istorio laburrak ere idatzi izan ditut, baita lagunekin partekatu ere, baina gehiago ez. Bertsolaritzari lotuta, haurra nintzela

bertso eskolan hasi nintzen. Gerora, urte batzuez utzi nuen, jende aitzinean kantatzeak sortzen duen urduritasuna edo presioa ez nuelako atsegin. Nafarroako taldekako txapelketa hasi zenean, lehengusua erekin, ahizparekin eta anaiarekin taldea osatu eta berriz animatu nintzen eta Lesakako bertso eskolan apuntatu nintzen. Bertsotan eroso sentitzea taldearen babesa behar dut. **Eta orain literaturara salto egin eta liburua argitaratu duzu...**

Gazteluma Sariketara hagitz jende gutti aurkeztu zela eta, parte hartzeko deia zabaldu zuten eta aukera bat izan zitekeela pentsatu nuen. Lehe-

nagotik hasitako proiektu bat banuen eta hori txukundu eta bidali nuen. Beka eman zidaten eta hori izan da proiektuarekin segitzeko akuilua. Horrelako sariketek argitaratzeko babesa ematen dute eta bukatzeko data jarri ere bai. Hori ona izan daiteke, bukatu eta ez alde batera uzteko.

Marie biloba eta Josefina amatxi dira liburuko protagonistak. Nola aurkeztuko zenizkiguke?

Marie Donibane Lohizuneko neska gazte bat da, Parisen Politika Zientziak ikasten ari dena. Bere amatxi Josefina Beran bizi da eta uda berarekin baserrian pasatzea erabaki du. Liburua uda bateko denbora

tartean kokatua da, eta bi hari nagusi ditu. Batetik, Marie bere amatxirekin baserrian dagoen denbora, eta bertzetik, Josefina naren istorioa, bere gazte garaian bizitakoa kontatzen duena. Josefina gaztetan neskato ibili zen Ipar Euskal Herrian eta Frantzian eta horri buruz dihardu. Mariek ikasketak bukatzeko lan bat egin behar du eta amatxi neskato ibili zela jakiten duenean, hari horri tiraka hasiko da.

Gure eskualdearekin hurbileko harremana duen istorioa da...

Bai, eta hasieran, Bortzirietako gazteei eskaini diet, hagitz bertako problematika dela iruditzen zaidalako. Bere garaian, Bortzirietako emakume aunitz ibili zen neskato, eta tartean, nire amatxi, Ziburun eta Donibane Lohizunen. Ttikitatik istorioak kontatu izan dizkigu eta amatxik kontatukoa da liburu honen abiapuntua. Jon Abrilek *Neskatoak* dokumentala egin zuen, baina beti iruditu izan zait neskatoen kontuari ez zaiola garrantzi gehiegirik eman edo ez dela hagitz ezaguna. Gehiago solas egin izan da Ameriketara joaten ziren artzainen edo kontrabandoan ibili zirenen inguruan. Eta niri, betitik, neskatoen gaia polita iruditu izan zait. **Iraganeko eta oraineko kontuak bildu dituzu. Dokumentazio lan handia eskatu dizu?**

Alde batetik, amatxirekin solastatutako guztia hor nuen. Bertzetik, Rosa Arburuaren 1940-1960. *Bortzirietako gaztiak* liburuan neskatoen inguruan ageri den atal ttikira ere jo nuen. Baina bereziki testigantzak bildu ditut eta garai hartako bizimoduaren inguruko kontuak leitu, istorioa kokatzerakoan hanka-sartzerik ez egiteko. Hasiera batean, istorioa erreala izateko nahia obsesio bihurtu zitzaidan, baina hainbertze informazio izateak idazterakoan oztopoak jartzen zizkidala ikusita, puntu batetik aitzinera nire buroari askatasun handiagoa ematea erabaki nuen, heldu



Liburuaren azala Garazi Conde Orube lesakarrak egin du. GARAZI CONDE

«BORTZIRIETAKO GAZTEEI ESKAINIA DA PROBLEMATIKA BERTAKOA DELAKO»

«AMATXIREN ISTORIOAK DIRA LIBURUAREN ABIAPUNTUA»

zitzaidan bezala idaztea. Hori bai, horrek gero zuzenketa lana eskatu zidan.

Liburuak zenbat du errealtatetik eta zenbat fikziotik?

Bietatik du. Oinarria eta inspirazio iturria, errealak dira baina hortik aitzinera istorioak eta pertsonaiak asmatuz jositzen aritu naiz. Oraineko istorioa bera hagitz erreala izaten ahal da Bortzirietako edozein gazterentzat. Mariek uda Bera nola pasatzen duen kontatzen da, inguruko herrietako bestak aipatzen dira, ostatu batean lan egiten du... Halako errealtateak ageri dira. Uda honetan leitzen duenarentzat kuriosoa izan daiteke, aurten ez baita bestarik izanen.

Zergatik izenburu hori?

Nahiago dut sorpresa izatea. Liburu leitzen duenak nahiko aise ententituko du, bereziki bukaeran argitzen da.

Emaitzarekin gustura gelditu zara?

Bai. Onartu behar dut liburu bat idazteko prozesua ez ezagutzeak eta jendeari zer irudituko zaion pentsatzeak nahiko buelta eragin dizkidala eta bereziki zuzenketako fasea nahiko gogorra egin zaidala. Gauza bat idatzi eta berriz zuzendu, azkenean idatzitakoak zentzurik ez duela pentsatzeraino. Beti dut hobetzeko nahia baina orokorrean gustura gelditu naiz. Erraten dutenez, idazleak liburu idatzi ondotik, irakurleak leitzen hasten diren momentutik aitzinera bertze liburu bat da. Hortaz, bakoitzak bere interpretazioa egin dezala eta egiatan pentsatzen duena erratea nahi nuke.

Nolakoa da liburu idatzi eta argitaratu bitarteko prozesua?

Nire kasuan, urte batzuk pasatu dira proiektuarekin hasi eta argitaratu den arte, lehendik hasitako lan baten segida izan delako. Baina idazketa lan gehiena joan den udan egin nuen. Beka eman zidatela aprobetxatuz, hilabete batzuk eskusiboki liburu idazteari eskaini nahi izan nizkion eta orduko lana utzi eta liburu idaztea lan bezala hartu nuen. Plazer



Maddi Ane Txoperena Iribarren bere lehenbiziko eleberria eskuetan. GARAZI CONDE

handia izan zen horretara dedikatu ahal izatea, gustura ibili nintzen.

Euskarari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke?

Nahasketa moduko bat egin dut. Gaztelumaren baldintzetako bat lapurteraz idaztea zen, baina liburu Bera eta Donibane Lohizuneraren artean kokatua izaki, Bortzirietako eta Lapurdiko hitzen arteko nahasketa egin dut. Euskara batuan idatzia dago, baina

bertako hitzekin, batzuetan Lapurdikoak eta bertzeetan Bortzirietakoak. Ez da hain artifiziala izan, bi euskalkiek antza handia dutelako.

Apirilean Sarako Biltzarrean aurkeztekoa zenuen, baina maiatz hondarrera gibelatu behar izan zenuten... Luze egin zitzaizun?

Konfinamendua hasi baino egun batzuk beranduago, martxo hondarrean, argitaratzekoa zen, baina ezin izan zen eta argitaletxeak berak ez zekien

noiz argitaratuko zen. Beharbada irailean izanen zela ere aipatu zidaten eta ez zitzaidan sobera gustatu. Lana bukatua nuen eta jendearen eskuetan ikusi nahi nuen.

Bertze libururen bat etorriko da?

Aunitz gustatzen zait idaztea eta liburu honekin hagitz gustura ibili naiz. Nikuste noizbait bertze zerbait etorriko dela, hala nahiko nuke behintzat.

Nola ikusten dituzu gazteak literaturan?

Alde batetik, hezkuntzan eta orokorrean, jendea ez da sor-kuntzara sobera bulkatzen, ezta idaztera ere. Hagitz burugogorra zarelako edo aunitz gustatzen zaizulako ez bada, zaila da literaturara pausoa ematea. Bertzetik, gazteen mailako sariketok aukera handia eskaintzen dute, baina irabazten ez baduzu deusezean geldi daiteke ilusioa. Virginia Woolfek liburu bat idazteko gela propioa eta 500 libera behar zirela erraten zuen. Denbora eta espazioa norberarentzat, eta dirua, bizi behar delako. Gaur egun gazteak zein egoeratan dauden ikusita, ikasketekin eta lan prekarioetan ari direla kontuan hartuz, hagitz zaila da zerbait aitzinera ateratzea.

Euskarazko literatura zein egoeratan ikusten duzu?

Nire zaletasun handienetako bat leitzea da eta euskaraz aunitz leitzen dut. Euskarazko literaturan kalitate oneko lan aunitz kaleratzen dira eta irakurle bezala, egoera ongi ikusten dut. Baina bertze kontua da horren giblean zein prekariedade egoten ahal den. Konfinamendu egoeran argi azaleratu da sortzaileak zein egoeratan dauden eta horrek kezkatzen nau.

Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Kazetaritzan, eta orain *Berrian*, gustura ari naiz. Idatzizko kazetaritza da eta gustukoa dudana zerbait egiteko aukera ematen dit. Hortaz, oraingoz horretan segituko dudala uste dut. Gero, ikusiko dugu.

«LIBURUA IDAZTERA DEDIKATU AHAL IZATEA PLAZERA IZAN DA»

«EGUNGO EGOERAN ZAILA DA GAZTEK LITERATURARA PAUSOA EMATEA»

Bizimodu hobe baten bila etorriak

Sorterria eta senitartekoak utzita, azken urteotan aunitz izan dira eskualdera etorri diren etorkinak, gehienak hegoamerikarrak. Horietako zortziren testigantza bildu du TTIPI-TTAPAK eta argi utzi dute lanera etorri zirela baina bidea ez zaiela erraza egiten ari

G. PIKABEA

Sorterria utzi eta milaka eta milaka kilometro egin ondotik ailegatu ziren Euskal Herrira. Batzuek urteak daramatzate gure artean, guttiago bertze batzuek. Denak bizimodu hobe baten bila etorri ziren, horietako aunitz seme-alabak eta gainerako senitartekoak sorterrian utzita, haiei laguntza bidali ahal izateko lan bila, bere garaian euskal herritar aunitzek egin zuten bezalaxe.

Bidea, ordea, ez zaie erraza egiten ari, eta hori ongi baino hobeki dakite Nikaragutatik etorri ziren Helen Judith Cordobak, Lenar Joaquin Lauk, Juan Manuel Matutek eta Yara Sabrina Diazek, Keyline Gutierrezek edota Jimmy Arausek, Nigeriatik etorri zen Vennisa Imafidonek edota Costa Ricatik ailegatu zen Francia Elena Sandovalak. Paperik ez izateak zailtasunak sortzen dizkie, eta paperak lortuta ere ez dira arazo guztiak desagertzen. Hori are ageriagoan gelditu da Covid-19ak sortu duen egoeran.

Bizitegi-baimena

Espainiar estatuko Atzeritarren Lege Organikoaren arabera, paperak lortzeko etorkinek estatuan hiru urte errolatuta egin behar dituzte, baina hiru urte horietan, ezin dute era legalean lanik egin. Hortaz, nola edo hala bizi behar dute.

Behin hiru urte pasatuta, bizitegi-baimena eskuratzeko prozedura has dezakete eta horretarako hainbat modu dituzte: familia errotzea, lan errotzea eta gizarte errotzea. Lanera etorri diren etorkinen



Erreportaje honetako zortzi protagonistak.

kasuan, baimen hori lortzeko hainbat baldintza bete behar dituzte. Alde batetik, gutxienez aitzineko hiru urtetan segidan estatuan errolatuak izan direla frogatu behar dute, eta hori erakusteko bidea udaleko errolda-agiria izaten da. Horrekin batera, ez espainiar estatuan ezta jatorrizko herrialdean ere, aurrekari penalik ez dutela frogatzen duen legezko ziurtagiria aurkeztu behar dute, gaztelaniara itzulia. Gainera, guttienez urtebeteko luzapena duen lan kontratua aurkeztu behar dute eta kontratua egiten duenak kaudimen nahikoa duela ziurtatzen duen agiria aurkeztu behar du eta gizarte segurantzaren alta eman beharra dago.

Hori guztia aurkeztutakoan, Gobernuaren Ordezkariordeztzak eskaera onartzen badie, aldi baterako bizitegi-baimena lortzen dute. Baimen hori lehenbizi urtebetera, eta gero bi aldiz bi urteren buruan berriro behar dela dio legeak. Hala, borts urtez aldi baterako bizitegi-baimena izan ondotik, epe luzeko baimena eska dezakete eta hori borts urtetik behin berriro beharrekoa dute.


Herritartasuna

Herritartasuna lortzeko, orokorrean, paperak lortzen dituztenetik hasita, hamar urte eskatzen dituzte, baina jatorriaren araberkoa da. Errefuxiatu izaera onartzen dietenean, borts urterekin lor dezakete, baina horretarako etniagatik, erlijioagatik, ideia politikoenagatik edota gizarte-taldeen aldetik jazarriak izan direlako herritik joan direla frogatu behar dute. Epea bi urtekoa da herrialde iberoamerikarretan, Andorran, Filipinetan, Ekuatore Ginean edo Portugalen jaioak baldin badira edo jatorri sefardia baldin badute. Urte batekoa da, berriz, espainiar estatuan jaiotakoentzat, estatuko norbaitekin urtea baino gehiago badarama ez-konduta edo estatuko norbaiten alarguna baldin bada.

Estatutik kanpokoan immigrazioa

Herria	2018	2010	2005	2001
Arano	0	0	0	0
Arantza	2	2	0	0
Areso	0	0	0	0
Baztan	91	38	33	4
Beintza-Labaien	0	2	0	0
Bera	47	29	23	4
Bertizarana	2	6	0	5
Donamaria	2	0	0	0
Doneztebe	33	14	15	20
Elgorriaga	1	0	0	5
Eratsun	0	0	0	0
Etxalar	10	3	17	0
Ezkurra	0	6	0	0
Goizueta	10	3	2	0
Igantzi	12	1	2	0
Ituren	6	6	0	0
Leitza	19	16	11	8
Lesaka	14	18	18	5
Oiz	4	0	1	0
Saldias	1	1	0	0
Sunbilla	4	7	4	0
Urdazubi	0	0	0	2
Urroz	1	1	0	0
Zubieta	2	0	2	0
Zugarramurdi	0	0	0	3

ITURRIA: NAFARROAKO ESTATISTIKA ERAKUNDEA



Yara Sabrina Diaz duela lau urte etorri zen Nikaragutatik Elizondora.

«Sorterrira egitekoa nuen bidaiarik eta lanik gabe geldituko naiz»

Nikaraguan «lan finkorik ez» zuelako erabaki zuen 40 urte dituen Yara Sabrina Diaz Gonzalezek Elizondora etortzea, «orduan 9 eta 5 urte zituzten semeak han utzita». Duela lau urte izan zen, eta haiek ikusi gabe dago geroztik: «bidaiatzeko behar den bizileku-baimena lortzeko hiru urte behar dira». Lortua zuen hori ere, eta hainbertze denboran esperoan egon ondotik, martxoaren 24an joatekoa zen sorterrira bisitan: «baina koronabirusaren ondorioz, bertan behera utzi behar izan nuen». Elizondon bizitzen zein Erratzun lanean «gustura» badago ere, «arras gogorra» egiten zaio semeak urruti izatea: «ezin ditut ekarri, ez dudalako egonkortasunik». Lan eta lo egiteko toki bila «batetik bertzera» ibili izan da, eta azken urtean lana ziurtatua izan badu ere, «urrian, koronabirusa tarteko, lanik gabe geldituko naiz».



Jimmy Arais, Mildre emaztearekin eta Ander eta Joshua semeekin.

«Lanik gabe egoteak kezka eta beldurra sortzen dizkit»

2019ko otsailetik Arantza dute bizileku Jimmy Ali Arais Blandon nikaraguarra eta bere familiak. «Hasiera gogorra» egin zitzaion, baina, gaur egun, «kontent» bizi da, «herritarrek beso zabalik» hartzeaz gain, «babes handia eskaini digutelako». Legalki, asilo-eskaera egin dute, baina koronabirusak prozesua gibelatu die, baita lana kendu ere: «konfinamenduekin dena gelditu zenean lanik gabe gelditu nintzen». Horrek «kezka» sortzen dio, «semei begira hagit garrantzitsua» baitu lana. Hortaz, «lanerako baimena eta gidabaimena lortzea» dira bere lehentasunak, «herri-tik kanpo lanerako aukera gehiago izanzen bainuke». Hilabete hondarrera ailegatzeko «arazoak» izaten dituztela ere erran digu, eta «gizarte zerbitzuen eta herritarren laguntzarekin» egin omen dute aitzinera. Horren harira, «hagit eskertuak gaude».



Juan Manuel Matute hilabete hondarrera ailegatzeko arazoak ditu.

«Orduka han eta hemen lan eginez bizirauten ari gara»

«Aukera handiko herrialdea» zela pentsatuz, eta Nikaraguan, «kontabilitateko ikasketak egin arren, lanerako aukerarik ez zegoela» ikusita, «arriskatzea erabaki» zuen 28 urteko Juan Manuel Matute Canalesek duela bi urte. Halaxe lurrartu zuen Elizondon eta «kontent» dago: «Bidelagun Elkartean parte hartzen hasi nintzen eta harrera ederra egin zidaten». Baina dena ez da nahiko lukeen bezalakoa. Ez du paperik eta hori oztipoa da: «paperak behar bezala ez badituzu, ez zaituzte kontratatzen, eta orduka han eta hemen lan eginez bizirauten ari gara». Koronabirusa tarteko, «asteburutan nuen lanik gabe» gelditu da eta Baztango Udalaren elikagai bonua ere eskatu behar izan du. Egoera «gogorra» dela dio eta etorkizuna ere «ziurtasunik gabea» ikusten du. Hala ere, «aitzinera eginen dugula uste dut».



Martxoaren 6an ailegatu zen Keyline Gutierrez Leitzara.

«Gogorra da lanera etorri eta horretarako aukerarik ez izatea»

Konfinamendu atarian, martxoaren 6an, ailegatu zen Keyline Gutierrez Zelaia 28 urteko nikaraguarra Leitzara, «9 urteko alaba gogoan, hura eta familia mantendu ahal izateko bizimodu hobearen bila». Egoerak, ordea, ez dio lagundu, eta «osasun aldetik ongi, baina lan aldetik gaizki» dabilela dio: «etorri nintzen lanean berehala harrapatuko nuela uste nuen, baina pandemiarekin ezin izan dut, eta gogorra da». Lagun batengan eta gizarte zerbitzuetan bilatu du babesa: «lana harrapatu arte lagunak bere pisuan gelditzen utzi dit eta gizarte zerbitzuetan lan kontuekin laguntzen ari dira eta janari bonua eman didate». Une zaila tokatu bazaio ere, eta alabaren «falta handia» sumatu arren, «hemen segitu» nahi du, «lan bila». Eta argi du «oraingoz, egoera halakoxea izanda, nahiago dudala alaba ez ekarri».



Lenar Joaquin Lauri gogorra egiten ari zaio lanik egin gabe egotea.

«Ez dut bertzeen laguntzarekin bizi nahi, nik lana nahi dut»

«Triste» eta «nahi eta ezinean». Halaxe dago duela bi urte Eli-zondora ailegatu zen 29 urteko Lenar Joaquin Lau Martinez. 6 eta 4 urteko haurren atxa izaki, «Nikaraguan egoera zaila zelako eta lanean egonkortasuna bilatu nahian» etorri zen, baina «eguneroko pentsatzen dut sorterrira bueltatzea». Hiru hilabete daramatza lanik gabe, «hiru hilabete semei deus bidali gabe», eta «gogorra» egiten ari zaio. Egoerak hala behartuta, senitartekoei laguntza eskatu behar izan die, baina «lotsa» sentitzen du: «beti bakarrik atera naiz aitzinera eta ez nintzen bertzeak molestatzerara etorri, lanera baizik. Paperik gabe, lanetik noiznahi botatzen zaituzte, eta logela bat hartzeko sosik ere ez dudanez, familiakoei molestatur ibili naiz». Orain, «arrebaren laguntzarekin bizirauten» ari da, «baina ez dut horrela segitu nahi. Lana egin nahi dut».



Vennisa Imafidon nigeriagarra duela 19 utzi zuen sorterrira.

«Lanik eta langabezia saririk gabe egunean egunekoarekin bizi gara»


Bizitza gogorra izan du 43 urteko Vennisa Osamede Imafidon Okunghae nigeriarrak. Ez ditu atzenduak pateran eginiko bidaia, ez Marokon agertu ez zen izebaren esperoan egindako bi urteak, edo urteotan gainditutako oztopoak. Baina egun, «kontent» bizi da Lesakan semearekin eta ez du sorterrira faltarik sumatzen: «bi anaiorde ditut baina ia ez ditut ezagutzen». Duela bi urte heritartasuna lortu zuen, baina horrek ez dizkio bere arazoak uxatu: «momentu honetan hilabete hondarrera ailegatzeko arazoak ditut». Koronabirusa tarteko, «karrikak garbitzen eta ostatu batean» egiten zituen lanik gabe gelditu da eta horrek «estu» jarri du: «langabezia saria bukatu zitzaidan eta egunean egunekoarekin bizi gara». Etorkizuna ere ez du argi ikusten. «Pixka bat hobe» izatea nahi luke, «bizitzeko gutti» aski duelako.



Pozik dago Francia Elena Sandoval Goizuetan, berriz lanean hasi delako.

«Bizitzan gure helburuak lortzeko sakrifizioak egin behar dira»

«Costa Rica eta han dituen senarra eta 19, 13 eta 7 urteko seme-alabak utzita» duela urte bat etorri zen Francia Elena Sandoval Acostas 38 urteko nikaraguarra Goizuetara, «Goizuetan eta Ezkurran ditudan ahizpen arrimuan». Lana harrapatu eta «familiar laguntzeko» egin zuen bidaia, eta hala, «otsailean hil zen arte adineko bat zaintzen aritu nintzen». Hortik, aitzinera, «Covid-19ak oztopoak» baino ez dizkio sortu, «dena itxita eta denak etxean zailagoa izan da lana bilatzea». Maiatzaren 25ean, ordea, «orduka lan batzuk egiteko deia» jaso zuen eta «oso pozik» dago. «Gogorra eta zaila» egiten zaio familiarengandik urruti egotea, baina argi du helburua: «familiar laguntzeko lanera etorri nintzen, gure laguntzaren beharrean daudelako, eta bizitzan ditugun helburuak lortzeko sakrifizioak egin behar dira».



Koronabirusa dela eta, Helen Judith Cordoba lanik gabe gelditu da.

«Etorkizuna are zailagoa izanen da etorkinontzat»

«Beharrak» bultzatuta utzi zuen 42 urteko Helen Judith Cordobak Nikaragua, eta «hobeki bizitzeko eta familiari laguntzeko asmoz» Baztanera ailegatu zen, duela zortzi bat urte. Hasieran, «ia urte batez» Azpilketan bizi izan zen, «izeba bat bizi den baserrian», eta egun Elizondo du bizileku. Onartu digu «hasiera arras zaila» izan zela, «paperik gabe lana bilatzeko oztopoak» izan zituelako. Baina bizileku-baimena lortutakoan «egoera hobetu» omen zen. Covid-19aren kontuak, ordea, okerrera eraman du, «ekonomikoki gaizki» baitabil: «azaroan zaintzen nuen adinekoa hil egin zen eta lan bila ibili ondotik, ostatu batean lana lortu eta zortzi egunetara alarma egoera ezarri zuten». ERTetik «oraindik ez dut deus jaso» eta udalaren janari bonoa eskatu behar izan du. Etorkizuna ere «zaila» ikusten du, «are zailagoa etorkinontzat».

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

* KONTZERTUA ESKAINI ala KONTZERTUA EMAN?

Erdararen kalkoz (espainieraz *ofrecer* eta frantsesez *offrir*), euskaraz ez dagokion adiera ematen zaio batzuetan *eskaini* aditzari. Euskaltzaindiaren arabera, egokiak dira *ardoa eskaini*, *bertso bat eskaini*, *laguntza eskaini* eta halakoak, baina prentsaurrekoekin, solasaldiekin, kontzertuekin eta gisakoekin *eskaini* erabiltzea ez da zuzena. *Eman, egin, jo...* dira erabili beharrekoak. Hona hemen adibide batzuk:

*Merkatariek prentsaurrekoa eskainiko dute

> **Merkatariek prentsaurrekoa egingen dute.**

*Berako Kultur Pilulak egitasmoari esker, herriko musikariek kontzertuak eskaintzen dituzte

> **Berako Kultur Pilulak egitasmoari esker, herriko musikariek kontzertuak ematen dituzte.**

*Dantzariek saioa eskainiko dute

> **Dantzariek saioa egingen dute.**

*Adituek tokiko turismoari buruzko solasaldia eskaini zuten atzo

> **Adituek tokiko turismoari buruzko solasaldia eman zuten atzo.**

Solas-zopa

Eskerrik asko,
esker mila,
mila esker,
milesker,
esker anitz,
eskerrik anitz...

Zenbat manera
eskerrik emateko!
Eta zuk zein
erabiltzen duzu?

Y	U	C	Q	K	U	W	A	V	W	V	L	E	Q
X	X	E	W	H	F	L	V	U	F	S	G	S	D
M	E	S	K	E	R	R	I	K		A	S	K	O
N	M	K	I	O	N	B	M	M	O	J	Q	E	E
Z	S	E	X	N	W	C	I	B	K	J	P	R	S
E	J	R	E	F	X	L	L	H	D	S	Z	R	K
B	T		E	G	M	R	A	O	G	M	E	I	E
X	I	A	U	K	I	J		Q	U	D	T	K	R
E	O	N	O	N	L	X	E	P	R	G	Z		
T	O	I	I	I	E	G	S	E	N	T	Q	A	M
U	P	T	L	R	S	B	K	A	U	A	W	N	I
Z	V	Z	B	C	K	M	E	H	R	P	X	I	L
M	C	J	B	Z	E	E	R	Z	S	G	N	T	A
D	T	M	E	I	R	A	L	H	X	F	G	Z	M

*Oharra: *eskerrikasko forma desegokia da; eskerrik asko da forma estandarra, bereiz idatzirik. Gisa berean, ez dira zuzenak *mil esker eta *eskermila.

Bitxikeriak

Covid-19a goiti eta beheiti bertze konturik ez den garai honetan, gaitzaren inguruan bildutako euskarazko terminologia ekarri dugu Euskararen Txokora. Euskaltzaindiak koronabirusaren inguruan egindako oinarritzko lexikotik eta Elhuyar Fundazioak egindako bilketatik adibide batzuk hartu ditugu, maiz erdaraz erabiliak direnak euskaraz ere erabil daitezkeela ikas dezagun.

- **ABEE:** aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea

- **Bakartu:** lagunartetik urrundu; norbait edo zerbait bakarrik jarri, berarekin daudenetatik bereizi.

- **Berrogeialdi:** berrogei eguneko bitartea; bereziki eritasun kutsakorren bat bide duten pertsonen ezartzen zaien bakarraldia, lehen berrogeiren bat eguneko zena.

- **Maskara:** ahoa eta sudurra estaltzen dituen babesgarria, arnasten duena edo haren inguruan dagoena babesteko erabiltzen dena.

- **NBE:** norbera babesteko ekipamendua.

- **ZIU:** zainketa intentsibokoetako unitate. Etengabeko arreta eta zainketa behar duten gaixo larriak artatzeko ospitale-zerbitzua.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Herriko informazioa eskuragarri 'Bera Hurbil' aplikazioan


Albiste interesgarrienekin batera, udalarekin zein herriko eragileekin komunikazio zuzena izateko aukera eskainiko du

TTIPI-TTAPA

Herritarrei udalarekin eta herriko eragileekin komunikatzeko bide izan dezaten, *Bera Hurbil* aplikazioa sortu dute. Mugikorrean instalatuz, herriko informazio guztia eskuragarri izatea lortu nahi dute. Herriko albiste interesgarrienak eskuragarri jartzearekin batera, udalarekin zein herriko eragileekin komunikazio zuzena izateko aukera eskainiko du aplikazioak, mezulari sistemaren bidez. Era berean, sare sozialetako edukiak aplikaziotik bertatik bistaratzeko aukera izanen dute eta, gai-

nera, udalak zein herriko eragileek antolatutako ekintzen berri bilduko da agenda atalean.

Horretaz guztiaz gain, instalazioen erreserbak egiteko, intzidentzien berri emateko, inkestetan parte hartzeko... aukera eskaintzen du aplikazioak. Azkenik, herria bisitatzera datorren orok herriaren inguruko informazio baliagarria aurkituko du aplikazio honetan; hala nola, kultura, ostatuak, jatetxeak, saltokiak, ibilbideak, kontaktuak, garraioa eta farmaziak eta bertze jakingarriak.



Bera Hurbil aplikazioak herriko informazioa eskura jartzen du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ortziraleroko elkarretaratzeak berriro

Ortziraleroko 20:00etan Mukixu zubian egiten ziren elkarretaratzeak berriro egiten hasia (beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuz) erabaki zuten «espetxe politika kriminala salatzeke, eta euskal preso politikoen etxeratzea eskatzeko» maiatzaren 22an egindako elkarretaratzean.

Mailegurako eta itzulketarako irekia da herri liburutegia

Alarma egoeraren ondotik eta arintze garaia bigarren fasean liburutegiak ireki ahal dira. Herri liburutegiak ekainaren 1ean ireki zituen berrizateak, Nafarroako gainerako liburutegi publikoekin batera. 14:00etatik 20:00etara irekiko du astegunez. Ekainaren 15etik irailaren 1era arte, berriz, udako ordutegira pasatuko da: 08:30etik 14:30era. Momentuz, bakarrik zerbitzu hauek eskainiko ditu: dokumentuen mailegua eta dokumentuen itzulketak. Ez da bertan irakurtzerik izanen.

Su-egur loteak ekainaren 30a arte eska daitezke

Su egurretarako loteak esleitu behar ditu udalak. Egurra mendian atera eta etxeraino eramane du kontratatutako enpresak. Interesatuak udal-letxera deitu eta lotea eskatu behar dute ekainaren 30a baino lehen, izen-abizenak, telefono zenbakia eta lotea non entregatu behar den adieraziz. Loteak 5 Tonakoak izanen dira eta 200 euro inguru ordaindu beharko dira. Egurra datorren udan entregatuko da. Eskaria eskaintza baino handiagoa bada, lehentasuna izanen dute iaz eskatu ez zutenek.

LABE ZAR
Astelehenetik ortziralerako:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

xuga
tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

Auzoa GO!
Etxez etxeko zerbitzua BERAn eta LESAKAn
ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 631 509

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

JAIÑE - LOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

XXXIII. Bertsopaper lehiaketako sariak jakinarazi dituzte

57 bertso-sorta aurkeztu dituzte denera eta maila nagusian Eneko Fernandez Maritxalar lesakarra nagusitu da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera antolatutako Baztan-Bidasoaldeko XXXIII. Bertsopaper lehiaketako sariak jakinarazi dituzte. Guztira 57 lan aurkeztu dituzte. Aurtengoa lehiaketa berezia izan da, lanak bakar-bakarrik e-mail bidez aurkezteko aukera izan baita eta sariak eman bai, baina sari-banaketako jaialdi berezirik ere ez baita eginen.

Sariei dagokienaz, A mailan (10 urte arte), lehen saria Berako Laia Erkizia Font-ek eskuratu du, *Beldur ikusezina* lanarengatik eta bigarren saria Berako Elaia Boanek, *Lekak patatekin* lanarengatik.

B mailan (11-14 urte), lehen saria Berako Loitzate Goñi

Elortzak lortu du *Zumeta* bertso-sortarekin eta bigarren saria Arantzako Ekai Madariaga Apaolazak, *Donald Trump* lanarekin. Kategoria honetan aipamen berezia jaso du Arantzako Kattin Madariaga Apaolazak, *Bullinga* lanarekin.

C mailan (15-18 urte), Lesakako Lide Fontan Igoak eskuratu du lehen saria, *Bi gorputz bat eginda* bertso-sortarekin eta bigarren saria Lesakako Iratxe Muxika Karrionek, *Arranoko Erregina* lanarekin.

18 urtetik goitiko maila nagusian, Lesakako Eneko Fernandez Maritxalarrek lortu du lehen saria (200 euro), *Inkisdore berriak* bertso-sortarekin eta bigarren saria (150 euro) Lesakako Aitor Arotzena Albizurentzat izan da, *Koronabirusaren aurkako txertoa teletienda* lanarekin.



Aurten ez da honelako irudirik ikusiko gure karriketan.

Udaleku irekirik ez du eskainiko aurten Bortzirietako Euskara Mankomunitateak


TTIPI-TTAPA

Osasun larrialdia dela eta, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak erabaki du 2020ko udan urteroko udaleku irekiak ez antolatzea. Erabaki hori hartu baino lehen aukera bat baino gehiago aztertu du mankomunitateak. Izan ere, osasun larrialdi egoera honetan hasieratik zail ikusi zuen udalekuak ohiko formatuan eskaini ahal izatea, eta horren ordez bertzelako eskaintza mugatuago bat eskaintzeko aukera aztertzen ari da, inguruko eragileekin batera.

Halere, eskaintza mugatuago horren antolaketarekin aitzinera jarraitzeko ere, ongi finkatuak eta arautuak egon beharko lukete jarduera horietan bete beharreko osasun baldintzek eta segurtasun neurriek, eta gaur-gaurkoz ez dago horrelakorik.

Beraz, ikusita ez dagoela bermerik udalekuak modu egokian eta seguruan eskaini ahal izateko, aurtengoz ez antolatzea erabaki du.

Arrakasta handia izaten dute udalekuek Bortzirietan: iazko edizioan 211 neska-mutikok parte hartu zuten.



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA



Lenkonea

JATETXEA (Churrut)

Ekainak 26 ortziraletik aitzinera zuekin berriro

Dena egokitu dugu beti bezain lasai eta goxo egoteko.

Erreserbak egiteko: 948 62 55 42 - 948 62 55 40.

Zuen esperoan gaude!



Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40 | T. 948 625 542 | www.hotelchurrut.com

Aurten ez dela sanferminik izanen jakinarazi du Udalak

Hainbat herritar eta besta eragilerekin solastatu eta hausnarketa egin ondotik hartu du erabakia aho batez

AITOR AROTZENA

Udalak, aho batez eta bizi dugun egoerak hartara behartuta, aurtengo sanferminak bertan beheiti uztea erabaki du.

Alkate eta zinegotziek sinatutako oharra dioenez, «badakigu zeinen garrantzitsuak diren herriko bestak herritar guzientzat. Hori dela eta ez dugu erabakia sobera goiz hartu nahi izan, ezta bakarrik ere. Bide horretan, azken asteetan, hainbat herritar eta besta eragilerekin solastatu gara, elkarri aditu eta elkarrekin hausnarketa egin dugu. Hala nola, honako hauekin: besta batzordea, ostatuak, komertzioak, txosnabatzordea, kultur eragileak, etab...».

«Ez dago bertzerik»

Alkate eta zinegotzien erraetan, «erabakia gogorra izan da, baina aldi berean erraza. Ez dago bertzerik. Egoera desberdin eta zail bati egokitzea dagokigu aurten, ohitura ditugun gauza aunitz alde batera utzita eta berriak zaizkigun jarrerak gureak eginez. Segurtasuna ez den bertze guzia, sanferminak barne, bertze maila baten kokatu behar izan da».

Lan horretan ari da Herriko Etxea, «arduraz, indarrez eta irudimenez. Etorriko dira urte eta gauza berriak, itxikako ate bakoitzak leiho bat irekitzen duelako. Eutsi goiari eta uena, edozein dela, osotasunean bizi!».

Oinezkoen espazioa zabaltzeko egokitze lanak egiten ari dira

Herriaren erdiko gunean oinezkoen espazioa zabaltzea erabaki du udalak. Egokitze lanak ekainaren 4an hasi ziren eta egin ahala karrikak trafikora ixten eta espaloiak zabaltzen joan dira. Honela, Beheko Plaza eta Zarandia karrikako gune batzuk bai trafikoari bai aparkaleku gisa itxiko dira eta bertako bizilagunen aparkaleku pribatuetara iristea bakarrik izanen da posible. Karga-deskargarako guneak ere zehaztuko dituzte. Plaza Zaharra eta Arretxea karriketan trafikoa norabide bakarrekola dela kontuan hartuz, espaloia zabalduko da eta ibilgailuen abiadura mugatu.

Herriko dendak laguntzeko bonuak banatuko dituzte

Herrian kontsumoa bultzatzeko asmoarekin bonuak banatuko ditu udalak herritarren artean. 20 euro ordainduta, 5 euroko bortz bonu jasoko ditu herritarrak. Hone-la, Herriko Etxeak 12.600 euroko gastua aurreikusi du proiektu honetarako eta 60.000 euroko kontsumoa sustatuko du. 12.000 euro bonuetan herritarrei banatzeko erabiliko dira eta bertze 600 euroak sariren bat zozketatzeko. Komertzioek ekainaren 15a arteko epea izanen dute kanpainara atxikitzeko eta herritarrek ekainaren 22tik uztailaren 31ra izanen dute udaletxean bonuak erosi eta gatzatzeko epea.



ARTXIBOKOA

San Joan bezperako bestarik ere ez

2009an hasita Euskara Batzordeak jaialdi ederra antolatu du urtero San Joan bezperan. Aurten ez da horrelakorik izanen baina euskararen sua piztuta mantenduko dute, heldu den urtean berriz ere denon artean su handi bat pizteko plazan. Bien bitartean, aurkezpento bat prestatzen ari dira.

Harpidedunen datuak eguneratuko ditu TTIPI-TTAPAK ondoko egunetan

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA aldizkaria hartzen duten harpidedunen datuak eguneratzen hasiko da agudo TTIPI-TTAPA. Hori izanen da ondoko egunetan eta asteetan TTIPI-TTAPatik eginen duten deiaeren helburua.

Bide batez, TTIPI-TTAPARI laguntzeko aukeraren berri jasoko dute. TTIPI-TTAPA interes sozialeko proiektu izendatua da eta Mecna zigilua du. Hala, diruz laguntzen dutenek Kultur Mezenasgoaren Foru Legean aurreikusita dauden zerga-pizgarriez profitatzeko

aukera dute. Hau da, TTIPI-TTAPARI urtean 50 euroko ekarpena eginda, errenta aitortuenean %80a desgrabatzen da, hau da, 40 euro itzultzen dira.

Horrekin bat egiten dutenek hamabortzero etxean jasoko dute TTIPI-TTAPA, baita TTIPI-Txartela ere eta honi esker eskualdeko komertzioetan deskontuak izanen dituzte. Hamabortzero egiten diren zozketetan eta tarteka egiten diren zozketa berezietan ere parte hartzeko aukera izanen dute, TTIPI-TTAPARI lagundu bidenabar.

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

«Energia berriztagarrien aldeko apustua bulkatu nahi dugu»

MATTIN ETXABIDE LESAKAKO UDAL ZINEGOTZIA

Goienar eta Nafarkoop kooperatibetako bazkide egin da Lesakako Udala, eta argindarra eguzki-panelen bidez edo argiteria LED sistemara egokitzeko zenbait proiektu ditu esku artean

AITOR AROTZENA

Goienar eta Nafarkoop kooperatibetako bazkide egin da Lesakako Herriko Etxea, udal batzarrean aho batez hartutako erabakiaren ondorioz. Goienar Euskal Herriko energia beharrak modu iraunkorrean eta jasangarrian estaltzeko sortutako kooperatiba da eta Nafarkoopen funtzio hori betetzen du produkzioaren ikuspegitik. Hala jakinarazi digu Mattin Etxabide zinegotziak.

Argindarrak lau fase ditu legez: produkzioa, garraioa goi tentsioan, banaketa behe tentsioan eta komertzializazioa. Hauetatik bi daude liberalizatuta, produkzio edo sorkuntza eta merkaturatzea. Kasu honetan, produkzioa Nafarkoopen aholkularitzarekin autokontsumo instalakuntzak martxan jarrita eta komertzializazioa Goienarrekin. «Guk bietan sartzeko apustua egin genuen –dio Etxabidek– garraioa eta banaketa, legez bertze enpresek egiten dute».

Kontsumitzen duen energia berriztagarria dela bermatu nahi du Udalak, «bat egiten dugu horretan Goienarren proiektuekin: energia lokala izatea, Euskal Herrian kokatua eta kooperatiba sistemaren bidez».

Dagoeneko, maiatzeko faktura Goienarri ordainduko dio Udalak, orain arte Iberdrolari ordaintzen zitzaiona eta aldatzea egitea prozesu erraza izan dela aipatu digu Etxabidek,



«Herriarren artean ere aldaketa hori sustatu nahi dugu», dio Etxabidek.

«telefono konpainiaz aldatzea baino sinpleagoa. Goienarri datuak eman eta beraiek tramitatzen dute aldaketa, inongo arazorik gabe. Bai erakunde bezala, bai partikular bezala egiteko ez dauka konplikaziorik».

Energia berriztagarrien aldeko apustuan, aitzinera begira bertze proiektuak ere baditu Udalak. «Erreferentzialak izan nahi dugu eta herriarren artean aldaketa hori bultzatu. Jendeak ikusten badu hemendik urte batera edo bira Herriko Etxea era horretan funtzionatzen ari dela, energia %100 berriztagarria erabiltzen duela, ez duela arazorik izan eta gainera merkeago ateratzen dela, konfiantza emanen dio».

Eguzki-panelak eta LED

Bide horretatik, «lehen pausuak ematen ari gara, igerilekuan eguzki-panelak jartzeko bertako eta kultur etxerako energia emateko, eta ahal balitz zahar etxerako. Inbertsioa egingen dugu Nafarkoopen aholkularitzarekin eta hori ere bideragarria dela erakutsi nahi dugu. Gero datuak publikatuko ditugu, herriarrek ikus dezaten aldatzen ahal dela, ez duela arriskurik eta positiboa dela ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik».

Lehenengo legediarengatik ez zen inondik inora bideragarria norbanakoek eguzki-panelak jartzea, baina egoera aldatu da eta zalantzak argitzeko, horren inguruko aholkularitza

eskaini nahi du Udalak, Goienarren laguntzarekin. «Badakigu Lesaka ez dela munduko herririk eguzkitsuena, baina ikusiko dugu horrelako inbertsio bat egitea bideragarria den edo ez, jakin zein laguntza diren...». Lehenbiziko esperientzia, eguzki-panelen bidez hornitutako 5-7 farola Martxanpaita inguruan jartzea izan da: «Farola hauek jasangarriagoak dira, argi suabe bat izaten dute etengabe eta norbait hurbiltzen denean indartu egiten da. Alde batetik efizientzia hobetzen da eta, bertetik, kutsadura luminikoa murriztu egiten da, beti ere segurtasuna eta arratsean lasai ibiltzea bermatuz. Gaur egungo sistema ez da batere efiziente, argitasunaren zati handi bat zerura joaten da, galtzen da eta neguan hainbertze orduz argia piztua egoten da, ordu horietan inor ez dabilenean ere. Gaur egungo teknologiarekin argi hori doitzen ahal da». Argiteria LED sistemara aldatzeko asmoa ere badu Lesakako Udalak.

Hain zuzen, Herriko Etxeak urrats hori eman ondotik, herriarrek ere pixkanaka animatzea nahi lukete. Alde horretatik, eraikuntza-tasak onartu zituztenean, energia berriztagarriekin egindako obrak edo berokuntza-sistema eguzkiarekin edo egurrarekin dituzten proiektuek tasa murriztua izatea erabaki zuen Udalak.

Biomasa elkarlanean

Biomasari dagokionez, Etxabidek dioenez, «bertako egurrarekin elikatu nahi dugu eta Berako udalarekin elkarlana sustatu nahi dugu, horretan hasi gara. 2011ko Bilduren agintalditik datorren proiektua da, martxan paratu zen, baina guztiz garatu gabe». Gaur egun, Lesaka eta Berako udalek kontratatutako enpresek egiten dute prozesu guztia eta helburua «autogestionatua izatea eta ahalik eta gehien zabaltzea» litzateke.

Haurraren Eguna modu berezian ospatuko da aurten

Landagain eskolako ikasleak ez ditu Haurraren Egunik gabe utziko Covid-19ak

IRUNE ELIZAGOIEN

Covid-19aren ondorioz sortutako osasun larrialdi egoera dela eta, aurtengo Haurraren Eguneko egitaraua aldatzeko beharra izan da. Ate irekien jardunaldia bertan behera gelditu da eta frontoian ospatzen zen ipuin topaketa ez egitea erabaki da, jende pilaketak ekiditeko. Haur eta gurasoen bazkaria ere bertan behera gelditu da. Hala ere, egun handi honi keinu bat

eginez, aurtengo Haurraren Eguna berezia izanen dela ziurtatu dute Landagain eskolako irakasleek. Ikasleek etxeetan beraien ipuin, marrazki eta bertzelako testu motak sortu dituzte beti bezala, ahalegin eta ilusio handiarekin. Horren ordainetan udarako irakurgaiak izanen diren liburuak oparituko zaizkie. Ekainaren 14an, igandean, goiz partean, irakasleak etxetik joanen dira.

Poliki-poliki normaltasunera bueltan jatetxe, ostatu, denda eta elizan

IRUNE ELIZAGOIEN

Aitzineko zenbakian Herriko Ostatua, Etxalarko Benta eta Lizaietako ostatuak atek ireki zituztela jakinarazi zen, eta dagoeneko La Basque jatetxea ere bere zerbitzua eskaintzen hasi da. Trikitixa ikasleak ere berriro klaseetara itzuli dira, eta segurtasun neurri guztiekin ortzirale arratsaldetan elkartzen hasi dira. Bertzetik,

larunbat goizetako plazako merkatua bueltan da. Parrokiak ere oharra kaleratu du, igandetan 12:00etan mezak izanen dira. Ekitatiba janari dendak ere ordutegia zabaldu du: astelehenetik larunbatera 07:00etatik 13:00etara; igandetan 07:00etatik 12:00etara. Astearte, ortzegun eta ortziraletan arratsalde ere irekiko du, 17:00etatik 20:00etara.

Bazkideen datuak eguneratzen ari da Altxata elkarte

Orain arte bazkideei oharrak gutun bidez bidaltzen zitzaizkien etxera. Hemendik aitzinera nahi duenari ohar hauek email bidez jasotzeko aukera eskaini nahi dio Altxata. Horretarako altxata@gmail.com helbidera izen-abizenak idatziz e-maila bidaltzearekin aski da.

San Juan surik eta jaunartzerik ez, trikotatze eguna bai

San Juan bezperako ospakizunerako deialdirik ez du eginen Altxatak eta 9 neska-mutikok ez dute lehen jaunartzerik eginen aurten. Kultur etxe azpiko harrizko eserlekurako kuxina trikota-lanekin berregiteko deialdia egin da ekainaren 12an, 18:00etan.



IRUNE ELIZAGOIEN

Joseba Olagarai 'Gure kasa' saioan

Orain arte ETB1n ematen den *Gure Kasa* programan kamera gibleko lanetan aritu da Joseba Olagarai. Maiatzaren 21az geroztik, kameraren aitzinera pasatu da. Covid-19aren eraginez bertan behera gelditu diren kontu eta pasadizo hunkigarriak bildu eta eskainiko ditu ortzegunero 22:30ean.

Harpidedunen datuak eguneratuko ditu TTIPI-TTAPAK ondoko egunetan

TTIPI-TTAPA

Aldizkaria hartzen duten harpidedunen datuak eguneratzen hasiko da agudo TTIPI-TTAPA. Hori izanen da ondoko egunetan eta asteetan TTIPI-TTAPATIK eginen duten deiaren helburua.

Bide batez, TTIPI-TTAPARI laguntzeko aukeraren berri jasoko dute. TTIPI-TTAPA interes sozialeko proiektu izendatua da eta Mecna zigilua du. Hala, diruz laguntzen dutenek Kultur Mezenasgoaren Foru Legean aurreikusita dauden zerga-pizgarriez profitatzeko

aukera dute. Hau da, TTIPI-TTAPARI urtean 50 euroko ekarpena eginda, errenta aitorpenean %80a desgrabatzen da, hau da, 40 euro itzultzen dira.

Horrekin bat egiten dutenek hamabortzero etxean jasoko dute TTIPI-TTAPA, baita Ttipi-Txartela ere eta honi esker eskualdeko komertzioetan deskontuak izanen dituzte. Hamabortzero egiten diren zozketetan eta tarteka egiten diren zozketa berezietan ere parte hartzeko aukera izanen dute, TTIPI-TTAPARI lagundu bidenabar.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



USOA
Nekazari kooperatiba

ORAIN GASOLINA ERE

T. 948 635 214 ETXALAR

NORMALTASUN BERRIA

EZ DAKIGU NOLAKOA IZANGO DEN

BAINA ELKARREKIN

DISEINATU

DEZAKEGU

KOMUNIKAZIO ENPRESEK
BADAKITE NOLA

LAASOCIACION.COM

LASOCIACIÓN

Komunikazioaren aroan



Ostatuetako terrazak zabaltzea baimendu du Udalak

Bertzetik, Goiko Karrikako trafikoa arintzeko, joan den udatan egin bezala, asteburuetan trafikoa desbideratuko dute

NEREA ALZURI

Koronabirusaren eraginez, ezohiko hiru hilabete izan dira guztiontzat. Osasunaren alde-tik, albiste onak ditugu, zorionez herrian ez baita zabaldu gaitza. Halere, herritar aunitzen eguneroko jardunean eragina izan du. Tartean ostalariak daude. Pixkanaka, osasun neurriak betez, betiko moduan ezin bada ere, ostatu eta jate-txeko ateak zabaldu dituzte. Gainera, udaletik terrazak zabaltzeko baimena eman diete lanerako aukera gehiago izan dezaten.

Goiko Karrikako trafikoa

Azken urteotan uda garaian egin den bezala, aurtan ere Goiko Karrikako trafikoa arintzeko asmoz, ibilgailuak desbideratzea erabaki du Udalak. Asteburuetan izanen da indarrean neurria. Hala, Aientsa, Azkilarrea, Larreta edo Osiña karrikatik heldu diren ibilgailuek Goienburun barna joan beharko dute. Herrira sartzen diren ibilgailuen kasuan, berriz, ahal den neurrian, Goiko Karrikatik pasatu beharrean plazatik joateko eskatu dute udalletik.

Hiru urtekoen gelan sei ikaslek hasiko dute irailean ikasturtea

N. ALZURI

Heldu den ikasturtean, sei haur hasiko dira hiru urtekoen gelan: Aimar Baleztena Goñi, Lorea Apezetxea Goñi, Argia De Rueda Alberdi, Nahia Elizalde Bertiz, Ibai Mendizabal Maiz eta Mikel Barrenetxe Alzuri. Bertzetik, institutura zazpi

joanen dira: Bihotz Alustiza Iparragirre, Eneritz Burlada Lukanbio, Ekai Madariaga Apaolaza, Egoitz Goñi Oskoz, Eneko Zulaika Iturria, Xuban Taberna Mutuberria eta Oihan Iturria Otxandorena. Eta Pelle Ttikin aurrematrikula egiteko azken eguna ekainaren 12a da.



IÑAKI ALUSTIZA

Herri kaskoan auzolanean

Udalaren deialdiari erantzunez, joan den maiatzaren 30ean eta ekainaren 6an, zenbait herritar auzolanean aritu ziren herri kaskoan. Lehenbiziko aldian, plaza inguruan margotze lanetan aritu ziren eta bigarren aldian, Emakumearen Memoriaren Baratzera ere hurbiltzekoak ziren.

Udaleku irekirik eta barnetegirik ez udahonetan

Covid-19ak sortu duen ezohiko egoera honen ondorioz, AEK euskaltegiak azken urteotan Aterpen egin ohi zituen barnetegiak bertan behera utzi ditu. Eta hala, aurtan, udako hilabeteetan herrian da barnetegirik izanen. Bide beretik jo du Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. Urtero antolaturiko udaleku irekirik ez da izanen uztailean. Azken urteetan, herriko haur eta gaztetxo aunitzek parte hartu izan dute udalekuetan. Joan den urtean, erraterako, 40 haur ibili ziren.

Ekai eta Kattin Madariaga anai-arrebak sarituak

Aurtan XXXIII. aldiz Baztan-Bidasoaldeko bertsopaper lehiaketa egin dute adinaren arabera hainbat kategoriatan banatuta. Eta bi sari herrira etorri dira, Ekai eta Kattin Madariaga Apaolaza anai-arreben eskutik, hain zuzen. 11 eta 14 urtekoen kategorian bigarren saria lortu du Ekaik *Donald Trump* izenburupean egin dituen bertsoekin eta kategorian berean aipamen berezia jaso du Kattinek *Bullinga* izeneko lanarekin. Zorionak bikote eta segi horrela bertsoaz gozatzen eta gozarazten!



aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

José A. Arzuaga abeltzaina

Zuzeneko haragi salmenta

10 kg-ko lotea 120 €-tan

Banaketa bakoitzean (gutxi gorabehera):

- 1.400 gr. txuleta (3-4 txuleta)
- 2.600 gr. 1. mailako xerrak (3-4 pakete)
- 220 gr. azpizun (pakete 1)
- 640 gr. biribilki (2-3 pakete)
- 1.200 gr. saiheski (2-3 pakete)
- 2.300 gr. haragi xehatu (3-4 pakete)
- 200 gr. eltzekari (2-3 pakete)
- 1.900 gr. gisatzeko (3-4 pakete)



Eskaeretakako, deitu edo mezu bat bidali
608 670 697

114.513 euro jasoko ditu Udalak 2015eko suteagatik

Iberdrolak ordaindu beharko dio Udalari kalte-ordainengatik eta epaiketen kostuengatik

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Herritar orok ederki gogoratzen dugun gisan, 2015eko abenduaren 19an izugarritzko sutea izan genuen herrian, Frain aldean.

Hori horrela izanik, eta izandako kalteak ikusita, 2016ko abenduaren 7an, Igantziko Udalak hartutako akordioan, Iberdrola Distribución Eléctrica enpresa demandatu eta epaiketara eraman zuen sutearen erantzulea zelakoan.

Epaiketa 2018ko ilbeltzean (urtarrilean) izan zen eta sententzia, 2018ko otsailaren 6an atera zen, Udalari arrazoia emanaz.

Bigarrenen ere alde

Ondotik, Iberdrola enpresak aurkezpen errekurtsioa tartekatatu zuen eta Igantziko Udalari, apelazio-errekurtsioaren



2015eko abenduaren 19ko sutea.

aurka joan ondoren, 2020ko martxoaren 3ko sententzian, ezetsi egin zen Iberdrolak tartekatutako apelazio-errekurtsioa, beraz bigarren sententzia ere Igantziko Udalaren aldekoa izan da.

Hori horrela izanik, Iberdrola Distribución Eléctrica enpresak 114.513,86 euro ordaindu beharko dizkio Igantziko Udalari: 103.497,73 euro kalte-ordainengatik eta 11.016,13 epaiketen kostuengatik.

65 urtetik goitikoendako hiruna maskara

Covid-19ak eragindako pandemiarengatik aspaldi jasaten ari garen egoeraren harira, Igantziko Udalak aditzera eman duenez, 1956. urteko ilbeltza (urtarrila) baino lehen jaiotako guztiei, hiruna maskara emanen zaizkio doan. Farmazian biltzen ahal izanen dira.

Auzolanak egin daitezke maiatzaren 29tik aitzinera

Covid-19a dela eta, auzolanak bertan beheiti geldituak ziren; maiatzaren 29tik aitzinera izanen da berriz ere hauek egiteko aukera. Beti bezala, egin aitzinetik udaletxean erran beharko da. Egun hauetan geldirik egon den traste haundien bilketa ere martxan jarria da.



San Juan egunean eta ondoko igande eguerditan meza izanen dute.

San Juan bezpera eta eguna bereziak izanen dira aurten

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aurtengoan, San Juan Eguna-ri dagozkion ekitaldiak ere berezi samarrak izanen dira. Bezperako afari autogestionatua eta frontoiko su salto eta antzerkiak egingen diren ala ez zehazteko dago oraindik.

San Juan Egunean, berriz, urtero bezala meza izanen da San Juan Xarren 12:00etan.

Maskarekin joatea eta elkarreko distantzia mantentzea derrigorrezkoa izanen da.

Ondoko igandeetan ere meza San Juan Xarren izanen da ordu berean (12:00etan).

Herriko gazteek urtero jartzen duten ostatua aurtengoan ez da izanen eta dantzariak ere ez dute dantza saiorik eskainiko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erramunea edo Barbenea obretan

Erramunea etxea (gaur egun Barbenea bezala ezagutzen duguna) obretan da. Aspaldi honetan partikularren eskutetan bada ere, ezaguna dugu etxea herrian, Jose Maria Usandizagak, euskal konpositoreak 'La llama' izeneko opera bertan sortu baitzuen.



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

EREMUA	Zahar Etxea	Plaza Kop.	Kutsatuak	Covid-19 hildakoak baieztatuak	Covid-19 hildakoak baieztatu gabe	Covid-19 hildakoak guztira
Ipar- mendebaldea	Aita Barandiaran (Altsasu)	42	0	0	0	0
	Benito Menni (Elizondo)	168	0	0	0	0
	Amavir (Betelu)	45	0	0	0	0
	San Jose (Bera)	40	0	0	0	0
	Andra Mari (Lesaka)	41	0	0	0	0
	Sta. Teresa Jornet (Gerendiain)	65	2	1	0	1
	Fco. Joaquín Iriarte (Elizondo)	155	78	16	3	19
	Guztira	556	80	17	3	20

Elizondoko zahar etxean 19 lagun hil dira Covid-19agatik

Elizondoko Benito Menni, Berako san Jose eta Lesakako Andra Mari egoitzetan, aldiz, ez da egoiliar bakar bat ere eritu

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak Nafarroako zahar etxeetan izan duen eragina zenbaterainokoa izan den azaldu zuen ekainaren 1ean Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetarako kontseila-

ria den Carmen Maeztuk. Errealitate Sozialaren Behatokiak egindako txostenaren arabera, guztira 435 adineko hil dira zahar etxe guztien artean, horietatik 19 Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte zahar

etxean (proba egin eta 16 baieztatuak eta 3 baieztatu gabe).

Nafarroan 71 zahar etxe daude eta horietatik 38tan ez dute Covid-19aren arrastorik sumatu. Gure eskualdeko datuei erreparatuta, bakarrik Elizondoko Fco. Joaquín Iriarte zahar etxean baieztatu dituzte Covid-19 kasuak: dauden 148 adinekoetatik 78k positibo eman zuten eta 19 hil egin dira. Eta langileen artean, dauden 85 langileetatik 16k eman zuten positibo.

Elizondoko Benito Menni, Berako San Jose eta Lesakako Andra Mari Zahar Etxeetan ez da kasurik antzeman.

Herrietako bestak bertan beheiti uztea gomendatu du Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Covid-19aren ondorioz, aurtan herrietako bestak edo antzeko ospakizun eta jaialdiak bertan beheiti uztea gomendatu dute Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, osasun publikoko arrazoiengatik.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak azpimarratu duenez, «Birusaren zirkulazioa berraktibatu daiteke urruntze fisikoko neurriak gehiegi lasaitzen badira». «Horrelako ospakizunetan birusaren transmisioa saihesteko beharrezkoak diren segurtasun neurriak mantentzea zaila da eta, ondorioz, birusaren zirkulazioa berpizten ahal da», gaineratu du.

Udal igerilekuen irekiera, ahal den neurrian, ekain hon-darrera gibelatzeko aholkua ere eman zuten bilera berean.

Beran bilera ekainaren 15ean
Gure inguruko hainbat herri-tan hartua dute dagoeneko bestak bertan beheiti uzteko erabakia. Beran, ekainaren 15ean, astelehenean, 18:00etan egin dute bilera deialdia, Herriko Etxeko pleno-aretoan. Bertan erabakiko dute erabaki beharrekoa.

EDERKI tailerra

**CITRÖEN**
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

**Lizun**
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



**BORDALARREA**

**Gure Haragia**
Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 · MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 · carnessein@bordako.com

Poliki-poliki mugimendua nabaritzen hasia da

Martxoaren 22tik maiatzaren 31ra bitarte egunero herria alaitzeko hitzorduan 162 kantekin gozatu dute herritarrek

MAIDER PETRIRENA

Covid-19a dela eta, bertzelako egoera batean sartu ginen martxoaren 13tik aitzinera. Egoera hartan ginela, Niebes Biurrarena Maia herritarrek proposamen eder eta polit bat egin zuen: Whatsapp talde erraldoi bat sortu eta herriko balkoi eta leihoak egunero-egunero gaueko bederatzi-tan argiekin eta musikarekin alaitzea polita izan zitekeela bota zuen. Hala, Kortaturen *Sarri Sarri* kantarekin martxoaren 22an eman zioten herritarrek ekimenari hasiera eta guztira 162 kanta jarritz maiatzaren 31n eman zitzaion bukaera, *Gaixoa ni* kantarekin.

Tarte horretan, momentu hunkigarriak tokatu dira, baita alaiak eta politikak ere. Aitor Ibarra *Jalisko* herritarren eskutik hainbat abeslariren animoak eta indarrak jaso ditugu sunbilar guztiok, baita *Jaliskok* berak ere. Herritarren izenean, eskerrak aunitz David Garcia (Puro Relajo), Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta (Ken7), Jose Antonio Larrañaga (Urko), Gontzal Mendibil,

Iñigo Etxezarreta (ETS), Chuchin Ibañez, Joxemi Redin (Ska-P), Aitor Mendiluze, Beñat Mitxelena, Frantxisko Santxotena eta Angel Mariezkurrenari.

Gisa berean, eskerrak eman nahi dizkiegu Aitor, Niebes, Ixabel eta parte-hartzaile guztiei. Ekimen berezia izan da eta ea orain, aukera dagoenean, bazkari eder batekin ospatzetik dugun. Hor 162 kantak jartzea izanen dugu helburu.

Ostatuak

Egoerak hala behartuta, bertzeak bertze, Bustitz ostatua, Fonda ostatua, Ariztigain kanpina, Ulibeltzak Elkartea, frontoia, parkea eta udaletxea itxi egin behar izan zituzten. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, badirudi egoera hobetzen ari dela. Horren seinale, Ariztigain kanpinak joan den maiatzaren 29an ireki zituen ateak eta Bustitz ostatuak heldu den asteartean, ekainaren 16an, irekitzeko asmoa duela jakinarazi du. Gainontzekoen kasuan, faseak pasatu ahal ireki ahal izanen dituzte.



Rodriguez dantzari profesionalarekin egon dira eskolako 5. mailakoak.

Martxel Rodriguez dantzariarekin

2019/2020 ikasturtearen bukaera ere ailegatzear dago. Ikasleek ekainaren 19an emanen diote bukaera ikasturte gazi-gozo honi. Martxoaren 16an telematikoki lanean hasia tokatu zitzaion Sunbillako eskolako ikasle eta irakasleei, eskualdeko eskoletako guztiei bezala, eta tarte horretan lan bikainak egin dituzte. Aitzineko TTIPI-TTAPAN, Juan Gorriti artistaren lana aipatu genuen. Oraingoan, berriz, bertze lan polit bat egin dute 5. mailako ikasleek. Lesakako Martxel Rodriguez Etxabide dantzari profesionalari buruzko lantxo bat egin ondotik, Martxel eta bere bikotearekin bideo-deia egiteko aukera izan zuten. Lerro hauen bidez, eskolako irakasle, ikasle eta nola ez Martxel eta Joni eskerrak emanen dizkiogu egindako lan bikainagatik. Martxel Rodriguez lesakarra da. 6 urterekin herriko Tantarumairu dantza taldean euskal dantza ikasten hasi zen. Geroztik, hainbat motatako dantzak ikasi ditu eta dantzari moduan lan egiten du. Gaur egun, Bartzelonan bizi da eta hiru dantza taldetan lan egiten du: Kukai Dantza Taldean, Valentziako konpainia batean eta Led Silhouette dantza konpainian.

Bertzalde, denbora onarekin batera, eta konfinamendutik ateratzeko faseak aldatzen ari diren heinean, mugimendu gehiago nabaritu da herrian. Errekek ere nahiko beteta

ikusten dira, baita trenbidea ere. Eta uda honetan igerilekuko egonaldiaz gozatzeko aukerarik izanen ez dugunez, segur aski bide beretik segituko dugu.

Construcciones URBALLO, S.L.
hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

Olatz Zapata-denda

f Olatz Zapata-denda

T. 948 450 339
Elizagibela, 5 - behea | DONEZTEBE



Aurtengo Herri Krosa berezia izanen da. ARTXIBOA

Bideo krosak ordezkatu du Herri Krosa

Parte hartu nahi duenak lasterka egiten bideo bat grabatu behar du eta ekainaren 17a baino lehen bidali behar da

MARGA ERDOZAIN

Egungo egoera ikusita, aurtengo Herri Kros berezia antolatu du Erreka Kirol Elkarteak. Parte hartu nahi duenak lasterka ageri den bideo bat grabatu eta errekaelkatea@yahoo.es helbide elektronikora bidali beharko du. Bideoan bakarrik, familiakoekin, lagunekin... agertu ahal izanen da eta gehienez 10 segundokoa beharko du (horizontalean grabatzeko deia egin dute).

Bideoarekin batera, izen-abizenak, herria eta telefonoa zehaztu beharko dira eta korrearen gaia Herri Krosa izan

dena. Bideoa bidaltzen duten guztien artean Erreka Kirol Elkartearen babesle diren denda, ostatu, enpresetan... gastatzeko 100 euroko sei erosketa-txartel zozketatuko dituzte.

Zozketa ekainaren 21ean

Bideoak ekainaren 17a, heldu den asteazkena, baino lehen bidali behar dira eta guztiak bildu eta muntai bat eginen dute, ondotik, sare sozialetan partekatuko dutena. Zozketa Herri Krosa egiteko zuten egunean, hau da, ekainaren 21ean, eginen dute.

40 argazki inguru jaso dira Doneztebe bakoitik lehiaketan

Udalak antolatutako argazki lehiaketak bere fruituak eman ditu, eder ederrak, gainera. Guztira 40 argazki inguru jaso dituzte. Herriko saltokietan gastatzeko opari-txartelak honako irabazle hauek izan ditu: 0-7 urteko sailean Noa Gallego eta Luka Mazon; 8-12 urtekoan Oier Erkizia eta Angue Magdiel; 13-17 urtekoan Iban Bakedano; 18 urtetik gorakoan Ainhoa Juanotena eta Juana Mari Muñoz eta aipamen berezia Luis Zafrentzat. Argazkiekin bideo bat egin dute.



Irudi ederrak bildu dituzte. A. JUANOTENA

Musika eskolan eta IKAn izen-ematea zabalik

Agorreta musika eskolak ekainaren 19a arte ohiko matrikulazabalik du. Dokumentazioa udalaren webgunean aurkitzen ahal da, baita informazioa ere. Bestalde, IKA euskaltegiak C1 titulua ateratzeko abuztuaren 3tik 28ra aurrez aurreko edo on-line ikastaroa antolatu du.

Liburuan maileguan hartzeko edo itzultzeko aukera

Liburuen mailegua eta itzulketa martxan da. Ekainaren 22ra arte 16:00etatik 20:00etara eta egun horretatik aurrera 09:00etatik 13:00etara. Egoerak ahalbidetzen badu, gainerako zerbitzuak ere martxan jarriko dira. Etxeetan ditugun liburuak itzultzeko deia egin dute.

Donezteben erosi, Donezteben bizi kanpaina abiatu dute

MARGA ERDOZAIN

Udalak 6.000 euro banatuko ditu bertako dendetan erosteko. Herriko saltokietan erosketak egiteko sustatu du ekimena, Covid-19ak eragindako krisia arintzeko. Herrian erroldatuentzat 600 txartel kalera-tuko dituzte, 30 eurokoak (in-

teresatuek 20 euro ordainduko dituzte, gainerako 10 euroak udalak ordainduko ditu). Kanpaina honetan establezimenduek ekainaren 8tik 19a atxikimendua egin behar dute. Covid-19 egoera honengatik itxita egon diren Doneztebe saltokiei bideratua da laguntza.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Luis Ibarra

GAUR EGUNERA
EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK

ZURGIN-LANAK OROKORREAN

636 701 204

Salvatore karrika, 28 - ARANTZA (Na)

ibarrazurgina@gmail.com

Abentura parkeak ekainaren 20an irekiko dituzte

Baztan eta Bertiz abentura parkeetan ekainaren 15a baino lehen erreserba egiten dutenek beherapena izanen dute

TTIPI-TTAPA

Baztan eta Bertizaranan dau- den bi abentura parkeak ekai- naren 20an, hurrengo larun- batean, irekiko dituzte, eta %20ko beherapena izanen dituzte ekainaren 15a baino lehen erreserba egiten dute- nentzat.

Baztan Abentura Park

Baztan Abentura Park Elizon- doko Beartzun auzoan dago, 2015. urtean Fiturren Parke onenaren lehenengo saria lortu zuen. Parkea Beartzun- go arroilaren inguruan dago eta Baztango ikuspegi ederrak ikus daitezke.

Nagusi eta lau urtetik goitiko haurrentzat egokitutako ekin- tzak daude, horrela Beartzun- go erreka gurutzatuz lau tiro- linako zirkuitu eder bat egin dezakete. Bertan arroila edo akuapark natural bat ere ba- dago, rapelak, ferrata bide txiki bat, putzutara saltoak, txirristak eta gisakoak egiteko aukera paregabea eskainiz (nagusi eta 6 urtetik goitiko haurrentzat).

Aipatutako ekintzetaz gain, 200 metroko Ferrata Bide zo- ragarri bat egiteko aukera dago, kirol honek eskaladako sen- tsazio berak bizitzeko aukera ematen du, baina segurtasun osoz, horretarako kable siste- ma berezi batek bezeroa une

oro lotuta edukitzen du segur- tasun osoa bermatuz (nagusi eta 8 urtetik goitikoentzat).

Bertiz Abentura Park


Bertiz Abentura Park Bertiza- ranean, Narbarten, dago, ber- tan urtxintxak bezala zuhaitzez zuhaitz ibil daiteke segurtasun osoarekin.

Horretarako parkea osorik berritu da segurtasun sistema aitzindariarena ezarritik. Beze- roa une oro kable bati lotuta egoten da eta laxatzea ezinez- koa da. Bertan 60 joko baino gehiago eta sei tirolina daude, arras egokia da alturretan kon- fiantza hartzen hasteko (na- gusi eta hiru urtetik goitiko haurrentzat).

Baztan-Bidasoaldea oporleku izateko bortz arrazoi

Baztan-Bidasoaldean turismo arloan lanean diharduten lan- detxe, hotel, jatetxe, ekoizle, aktibitate eta zerbitzu enpre- sek osatzen duten Baztan-Bi- dasoa Turismo Elkarteak es- kualdera oporretan etortzeko bortz arrazoi eman ditu. Ho- rrela, hurbiltasuna, lasaitasu- na, natura, gastronomia eta aktibitateak aldeko dituztela ageriko egin dute.

Eskaintzak biltzearekin ba- tera, «landa turismo jasanga- rriaren alde 25 urte baino gehiago» daramatzatela adie- razi dute.



UTZITAKOA

Patxi Ruizi elkartasuna adierazi diote

Maiatzaren 11z geroztik gose greban dagoen Patxi Ruiz preso- ari elkartasuna adierazi diote eskualdeko zenbait herritarrek. Elizondoko plazako eraikinean itxialdia egin zuten maiatzaren 22an eta manifestazioa eta kontzentrazioa egitekoak zituzten arren, debekatu egin zizkieten.



Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HÖRMANN** banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza







*Eguzkiaz
babestu
toldo batekin*





Maria Asuncion, Juliana eta Kandida dira 100 urte edo gehiago dituztenak.

100 urte edo gehiago dituzten hiru kide daude elkartean

PABLO IRASTORTZA
Adindu nagusien artean Etxalar da nagusi, 102 urteko Maria Asuncion eta 100 urteko Juliana Elizalde ahizpaz bizi baitira bertan. Sunbillako, Kandida Mitxelenak ere 100 urte bete ditu aurten. Amaiurri dagokionez, kideen kasik hamarretik bi 90 eta 99 urte bitartekoak dira. Bestalde, 80-89 urte tartekoen buru Zugarramurdi da, hamarretik sei adin horretakoak izanik.

Ehun urte bete dituztenei adin miwesgarri horretara iristeagatik, elkarteak benetan merezi duten oroigarria ahal bezain laster emanen diela jakinarazi du. Segi orain artean bezala!

Hiru kide 100 urte edo gehiagorekin	
Adina	Herria eta bazkide kopurua
100 urte	Etxalar 1, Sunbilla 1
102 urte	Etxalar 1

Bazkide gehienek 70-79 urte dituzte		
Adina	Bazkide kopurua	Portzentajea
60 urte artekoak	106	%3,60
60-69 urte bitartekoak	872	%29,20
70-79 urte bitartekoak	1.228	%41,10
80-89 urte bitartekoak	586	%19,65
90-99 urte bitartekoak	189	%6,35
100 urte edo gehiago	3	%0,10
Guztira	2.984	%100

Adinaren arabera kide kopurua herrikoa

60 urte arte	60-69 urte	70-79 urte	80-89 urte	90-99 urte
Arano %42,8	Gartzain %54	Gaztelu %62,5	Zugarramurdi %41,4	Amaiur %17,1
Aniz %14,2	Donamaria %50	Azpilkueta %60,8	Arantza %31,7	Elgorriaga %16
Labaien %8,8	Lekaroz %50	Narbarte %57,7	Arizkun %30,4	Aniz %14,2
Donamaria %8,3	Areso %47,4	Almandoz %56,6	Elbete %30	Arano %14
Ituren %8,2	Eratsun %46,9	Lesaka %55	Zubieta %30	Zubieta %12,3
Irurita %8	Saldias %44,4	Urroz %54,2	Ezkurra %29,2	Arantza %12,2
Doneztebe %7	Elbete %40	Arraioz %53,80	Aniz %28,6	Oronoiz %11,8
Eratsun %6,2	Sunbilla %39,6	Ezkurra %50	Oieregi %28,6	Arraioz %11,5
Gaztelu %6,2	Labaien %38,2	Lekaroz %50	Goizueta %28,1	Goizueta %11,3
Saldias %5,6	Legasa %36,4	Bera %48,3	Ziga %27,8	Igantzi %11,2
Areso %5,3	Irurita %34,6	Eratsun %46,9	Erratzu %26,9	Areso %10,5
Zubieta %5	Doneztebe %34,2	Elizondo %46,7	Almandoz %26,6	Almandoz %10



KTK LIFT SL
IGOGAILUAK

IGOGAILUAK | JASOTZAILEAK
proiektu, erreformak, instalazio eta mantentze lanak

Parrokia 15 behe, 31740 Doneztebe
gestorcomercial@ktklift.com · www.ktklift.com

T. 679 996 055





ORBELA
SENDERISMO ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com

www.orbela-beintza.com



744 484 361
ttipi-ttapa

Alarma egoeran 33 sute izan dira eskualdean

Oronoz-Mugairiko suhiltzaileek baso suteetara 82 ateraldi egin eta 247 hektarea itzali dituzte neguko kanpainan

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko neguko baso suteen aurkako kanpainaren hagitz bertzelakoa izan da aurtengoa. Lekutan daude joan den urtean Oronoz-Mugairiko suhiltzaileek eskualdean oihaneke suteak itzaltzeko egin behar izan zituzten 172 irteerak. Datu adierazgarriak utzi zituen iazko kanpainak eskualdean: 1.220 hektarea erre ziren eta gehienak kontrolik gabeko suak izan ziren. Hala, lau puntu nabarmendu zituen Jabier Ayarra Ullate Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen parkeko sarjentuak: larreak garbitzetik harago Europako Nekazaritza Politika Bateratutik (NPB-PAC) dirulaguntza jasotzeko helburua, min edo kalte egiteko intentzioa, suhiltzaileen gaitasunetik kanpo zeuden suak izatea eta suhiltzaileak arrisku egoeretan ibili izana. Eta eguraldiak ere ez zuen sobera lagundu.

Aurtengo kanpainan, ordea, datuak beheiti egin dute. Hala ere, Nafarroan osoan suhiltzaileek egin behar izan zituzten 153 ateraldietatik erdiak baino gehiago eskualdean egindakoak izan dira. Urtarrilaren 15etik apirilaren 30era, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileek baso suteen 82 abisutara joan behar izan zuten.

Guztira 247 hektarea itzali dituzte suhiltzaileek eskualdean: 179 Ha Baztanen eta horietatik 31 urkiak, pagoak eta bertako haritza izan ziren; Malerrekan 27 hektarea itzali behar izan zituzten, eta horietatik lau zuhaiztiak. Bortzrietan 24 hektarea izan ziren,

Zugarramurdin 17 eta Bertizaranan 0,5.

Jabier Ayarra Ullate Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen parkeko sarjentuaren arabera, aurtengo kanpainako «sute adierazgarriena» otsailaren 22an Erratzuko Azkarate auzoan gertatutakoa izan zen: «48 hektarea sasi erre ziren». Baina hortik aparte, Baztanen, «Arizkunen, Erratzun eta Azpilkuetan arazo gehien izaten diren eremuetan suteak errepikatu» izana nabarmendu du Ayarrak. Ez hori bakarrik. Lekarozen eta Elbeten ere joera sumatu dutela adierazi du: «bereziki Bagordin zuhaitz plantazioak kaltetzeko nahia izan duten suteak ikusi ditugu».

Eguraldia eta konfinamendua

Aipatzeko datuen artean, «alarma egoeran eta beraz, konfinamendu garaian, 33 sute izan direla» jakinarazi du Ayarrak. Gisa berean, «kaltetutako eremua ttikia» izatearen arrazoietako bat eguraldia izan dela aipatu du: «antizikloiaren ondotik prezipitazio-egunak etorri ziren eta horren ondorioz, suak ez zuen 2019an izandako jarrera agresiboa eduki. Iaz prezipitaziorik gabeko 22 egun izan genituen».

Bertzelako ateraldiak

Oihaneke sute guttiago bai, baina bertzelako egitekoak

**SUTEAK ITZALTZERA
ATERALDI GEHIEN
EGIN DITUZTENAK
ORONOKOAK DIRA**



Otsailean Bagordin izandako sutea.



Martxoaren 21 eta 22an, konfinamendu betean, zazpi sute itzali zituzten.



Bertzelako egitekoak ere izan dituzte. Argazkian Berako zahar etxea desinfektatzen.

gehiago izan dituzte alarma egoeran. Ayarrak azaldu digunez, «ohi baino gorabehera gehiago izan ditugu tximiniekin, gehiago erabili direlako. Baina sute horiek ez dute kal-

te handiagorik eragin, beharbada, herritarrak etxeetan egon direlako».

Covid-19ak gaixotutako pazienteen lekualdatzeaz ere arduratu behar izan dute, eta eskualdeko zahar etxeak desinfektatzeko lanetan ere ibili dira. Bertetik, Oronoz-Mugairiko parkean suhiltzaile batek eman zuen koronabirusen positibo, «bertze bik sintomak izan zituzten baina testean negatibo eman zuten».

**GUZTIRA 247 HA
ITZALI DITUZTE
SUHILTZAILEEK
ESKUALDEAN**

«Positibo kopuruak ez du egungo egoera islatzen»

MÓNICA MARTÍN JIMÉNEZ DONEZTEBEKO OSASUN ETXeko ZUZENDARIA

Azken asteetan test azkarrak egin dituzte Doneztebeko osasun etxean. Horren ondorioz, positibo kopuruak goiti egin du baina horrek ez du egungo positibo aktiboak horiek direnik esan nahi, «koronabirusaren diagnostikoa zutenak egiaztatu direla» baizik

N. BAZTERRIKA DONEZTEBE

Doneztebeko osasun zentroan erregistratutako positibo kopuruak goiti egin du azken boladan. Datuak, ordea, ez dira egungo egoeraren isla. Osasun zentroko zuzendari den Mónica Martínek argi adierazi du: «azken asteetan test azkarrek egin dira eta koronabirusaz gaixotuak izan zitezkeen gaixo batzuk hala zirela baieztatu da». PCR proban 17k baino ez dute positibo eman. «Eremu pribilegiatua» izan dela uste du, eta hori «herritarren jarrerari» zor zaiola. Eskerrak eman eta zuhurtziaz jokatzeko segitzeko deia egin du: «konfinamendutik arintzean ere neurriak zorrotz bete behar ditugu».

Koronabirusaren hasieratik, ohiko kontsulten kudeaketa egokitu behar izan duzue. Zer protokolo paratu dituzue martxan?

Koronabirusak aldaketa esanguratsua eragin du taldearen antolakuntza eta funtzioa menduan. Alde batetik, Osasun Departamentutik herrietako osasun etxeak itxia eta eskualde osoko herritarrek Doneztebeko osasun etxean artatzeko gomendioa eman ziguten, Covid eta beste patologiak dituztenak bereizteko tokia dagoelako. Bestalde, gaixoen beharrak, ahal denean, telefonoz erantzuten saiatzen gara. Horiek baloratu ondotik, aurrez aurreko kontsultarik behar

bada, hitzordua ematen zaie. Gaixoak etortzerik ez badu edo herritik ez ateratzea gomendatu bazaio, etxean artatzen dugu. Kasu honetan etxean artatzeko protokoloak martxan paratu ditugu. Era berean, kontsulten agendan aldaketak egin ditugu, aurrez aurrekoak eta telefonoz egingakoak txandakatuz itxaron gelan jendea pilatzea saihestea dugu. Osasun zentroan garbiketa berariaz zaindu dugu eta harreraren maskara, esku-larru edo gelak paratu ditugu. Herritarren laguntza eskertzekoa izan da. hitzordua zu-

tenean etorri dira kontsultara, ez lehenago ezta geroago ere, eta segurtasun tartea mantendu dute beti.

Larriak ez diren kontsultak gibelatu behar izan dituzue?

Bai, ekografiak eta erretinografiak, hiru urtetik goitiko haur osasuntsuen azterketak, arreta goiztiarrekoak eta aurrez aurreko psikologia eta psikiatria kontsultak bertan beheiti utzi dira, gaixoaren garapenean erabakigarria ez zen guztia. Gaur gaurkoz, hiru urtetik goitiko haurren eta arreta goiztiarrekoen azterketak abiatu ditugu, baita espezialisten

konsultak ere. Kutsatuek izan dako bilakaeraren arabera, kontsultategiak irekitzea aurreikusi dugu, baina hau pixkanaka egingen da, horien baldintzak kontuan hartuz eta segurtasun neurriak bete daitzekeen kasuetan.

Kasu askotan, jendeak etxean gelditzea erabaki du. Kontsulta kopuruak beheiti egin duela nabaritu duzue?

Bai, herriak asko lagundu du, osasun zentrora deitu du eta, modu horretan, aurrez aurreko kontsulta osasun zentroan edo etxean egin behar zen edota telefonoz moldazitekeen ikusi ahal izan dugu. Hala, aurrez aurreko kontsultek beheiti egin dute eta telefono bidezkoak nagusitu dira.


Norbera Babesteko Ekipamenduei dagokienez, falta izan dituzue?

Zein da egun duzuen egoera?

Hasieran hagitz justuko materiala jasotzen genuen, baina gainerakoan, eta gaur gaurkoz, norbera babesteko ekipamendu nahikoa izan dugu.

Covid-19a dutela uste izan duzuen gaixoekin zein izan da segitu duzuen protokoloa?

Covid-19arekin bat egiten duten sintomak dituztenak PCR proba egin arte bakartu egiten ditugu. Orain, diagnos-



tikatu ondoko 24 orduetan egiten da. Positiboa bada, etxean bakartu eta telefono bidezko segimendua egiten zaio edo ospitalera bideratzen da kasua. Negatiboa bada, berriz, diagnostikoaren arabera tratatzen da.

Sintomak izan dituzten guztiei probak egiteko aukera izan duzue?

Koronabirusa izan zezaketen gaixo guztiak etxean konfinatuta egotera behartu genituen, eta orain, test azkarrak ditugunez, proba egiteko deitzen ari gara. Horrela antigorputzak dituzten edo ez eta Covid-19ak eragindako infekzioa izan den baieztatzeko aukera dugu. Testak jaso ahala deitzen ditugu.

Osasun etxeko langileek proba egiteko aukera izan zenuten.

Zuen artean positiborik izan da?

Bai, Mankomunitateko langileei eta osasun etxekoei test azkarrak egin dizkiegu. Osasun etxean kasu positibo bat izan da, baina ez zen lanean kutsatu, lanean ari ez zen momentu batean baizik.

Erregistratutako datuen arabera, kutsatze kopuruak goiti egin du eskualdean...

Maiatzaren 18ra arteko datuei begira, 111 PCR proba egin dira eta horietako 17 izan dira

**«KORONABIRUSA
IZAN ZEZAKETENEI
TEST AZKARRAK
EGITEN ARI GARA»**

**«MASKARA ETA
ESKULARRUAK
JANTZITA BAKARRIK
EZ GAUDE SEGURU»**

**«KONFINAMENDUA
ARINTZEAK
POSITIBOAK IGOTZEA
ERAGIN DEZAKE»**



Kutsatze kopuruari begira, Malerreka «eremu pribilegiatua» dela uste du Mónica Martínek, osasun zentroko zuzendariak.

positiboak. Test azkarrak, berriz, 116 izan dira eta 24 izan dira positiboak. Positibo kopuruak goiti egin du azken asteetan test azkarrak egin direlako, koronabirusaz gaixotuak izan zitezkeen gaixo batzuk hala zirela baieztatu delako. Beraz, datu horiek ez dira egungo egoeraren isla, koronabirusaren diagnostikoa zuten horien egiaztatzea baizik.

Fasez fase askatasun handiagoa izateak birusaren hedapena eraginen du segur aski... Nola ikusten duzu hori?

Bai, argi dago etapa honek arrisku handiagoa dakarrela, baina neurriak mantentzen baditugu, eskuak garbitu, aurpegia ez ukitu, segurtasun-distantziak errespetatu eta maskararen erabilera zaindu, kutsatze kopurua mailakatua izanen dela uste dut. Birusa ez da berehalakoan desagertuko, horrekin bizitzen ikasi behar dugu, geure burua babesten eta horretarako ahol-

katutako neurriak bete behar ditugu.

Jendea kezkatuta dagoela sumatu duzu?

Baietz uste dut. Dauden kutsatze kopurua tarteko, eremu pribilegiatua gara. Segur aski herritarren sakabanatzeari eta izan duten jarrera onari zor zaio hau. Espainia mailan izan diren kutsatze- eta hildako kopuruak beldurra eragiten du.

Maskarak derrigorrezkoak dira orain... Neurri hori eraginkorra izanen dela uste duzu?

Ongi erabiliz gero, eta gainerako neurrien osagarri izanez gero, eraginkorrak izanen dira. Dena den, ez dugu maskara eta eskularruak eramatearekin seguru gaudela eta ez dugula gainerako neurrien beharrik pentsatu behar.

Ondoko astei begira, zer da aurreikusten duzuna?

Ez dut kutsatze kopuru alturik espero, orain arteko lanaren segida izanen dela uste dut, konfinamendutik arintzearen

ondorioz, gorakada ttiki bat izanen delakoan nago. Dena den, herritarrengan konfiantza handia dut.

Udazkenean berriz ere bigarren aldi bat izanen dela diote... Zer-nolako eragina izan dezake horrek eskualdean?

Birusaren berragertze garrantzitsu bat gertatuko balitz, berriz ere behar-beharrezkoak ez diren jarduerak eten beharoko genituzke eta aurreko faserajoa beharko genuke. Egungoak antolatze eta protokoloak zehazteko modua eman digu, eta horiek berehalakoan berriz ere martxan paratuko genituzke. Zentzu horretan, bigarren aldi horretan erabakigarria den denbora irabaziko genuke.

Zerbait gaineratu nahi duzu?

Herritarrei izandako jarrera eta zentroko profesionalei eskainitako laguntza eskertu nahi dizkiet, eta nire lankideei momentu zail honetan izandako profesionaltasuna eta lanean izandako atxikimendua.



Atabalari eta txistulariak Elgorriagako bestetan. Aurtan ez dugu halako irudirik ikusiko.

Uztailean eta abuztuan ere ez da bestarik izanen

Dagoeneko bederatzi dira aurtengo bestak bertan behera utzi dituzten Malerrekako herriak

TTIPI-TTAPA

«Uda honetan herriko bestak ospatzea ezinezkoa izanen da. Horregatik, eta Covid-19a pandemiaren eraginez, gure herrietako bestak bertan behera uztea erabaki dugu». Hala xe adierazi dute Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Beintza-Labaien, Donamaria, Sunbilla, Ezkurra eta Zubietako alkateek sinatu duten adierazpen bateratuan. Hortaz, herri horietan ez da uda honetan bestarik izanen eta Saldiasekin batera, dagoeneko bederatzi dira bestarik gabe gelditu diren Malerrekako herriak.

Santiago Uterga (Doneztebe), Ane Otxandorena (Elgorriaga), Jabier Bereau (Ituren), Jon Telletxea (Beintza-Labaien), Natalia Rekarte (Donamaria), Amets Inda (Sunbilla), Jaione Zabalo (Ezkurra) eta Ernesto Dominguez (Zubietako alkateek sinatutako idatzian, «bizi dugun egoera ezezaguna eta oso berezia» dela nabarmendu dute eta «arduraz jokatzeko unea» dela pentsatuz hartu dute erabakia, beraiei irudiko, «gure herritar guztien segurtasuna eta osasuna zaintzeko aukera egokia» hori delako.



Aitzineko edizioetako argazkiak bilduz bideotxo bat egin dute.

Mankomunitateak Malerreka Eguna oroitzeko egin duen bideoa ikusgai

TTIPI-TTAPA

Maiatz hondarrean ospatzekoa zen Malerreka Eguna izan ez zuten, Malerrekako Mankomunitateak orain arteko edizioak oroitzeko bideotxo bat egin zuen.

Edizioz edizio eta herriz herri bildutako argazkien bidez, oroitzapenak astindu nahi

izan zituen eta, bide batez, aurtengoa ospatzerik izan ez denez, heldu den urtean Donamarian eginen dela iragarri zuten.

Bideotxo Malerrekako Mankomunitateak berak sare sozialen bidez zabaldu du eta bertan edo ERRAN.EUS atarian ikusgai dago.

Leurtzak bisitarientzat itxita segitzen duela gogorarazi dute

TTIPI-TTAPA

Inguruko bisitari aunitzek ezin izan diote tentazioari eutsi eta Leurtzako natur eta aisialdi eremura hurbildu dira eguraldi ona egin duen egunetan. Horren aitzinean, Urrozko eta Beintza-Labaiengo udaletatik azpimarratu nahi izan dute

oraindik ez dagoela Leurtzara joatea baimendua. Lerro hauek idazterako orduan, Foruzaingoa eta Guardia Zibila neurri hau betetzen ari zela ziurtatzeko egunero igotzen omen ziren urtegira, beraz, neurria betetzeko eta kontuz ibiltzeko abisua luzatua zuten.

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura



Leitzako bidea · DONEZTEBE · T. 948 45 03 33

Bertso eskolarekin segitzekotan dira irailetik aitzinera

Herriko bertso eskolako kiden den Lur Artieda Ibarzabalek Nafarroako bertsopaper lehiaketan aipamena lortu du

ARKAITZ MINDEGIA

Iturengo bertso eskolan aritzen den Lur Artiedak Nafarroako bertsopaper lehiaketan Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoen kategorian aipamena irabazi du. Bere bertsoak, gainerako irabazleekin batera, bideo batean bilduko dituzte.

Herritarra den Iker Gorosterrazuk eskaintzen duen bertso eskolako kidea da Lur Artieda Ibarzabal eta Janitz Irigoien Altzu, Kandela Brinceau Salanueva, Aneu Garraus Bernabeu, Onintza Garraus Bernabeu, Xuban Torrecillas

Otegi eta Aihen Esparza Murrarekin batera errimak eta neurriak lotzeko saioetan ibili da.

Konfinamenduak eraginda, etenaren ondotik, egoera arindu bezala, ikasturteari bukaera emateko asmoa du taldeak. Egoerak uzten badu, erreka bazterrean merienda eginez akituko dute.

Aurtengoak, ordea, heldu den urtean segida izanen du. Izan ere, irailen berriz ere matrikulazio kanpaina abiatzeko asmotan direla jakinarazi dute.

Negurako prest, egur loteak hartu ondotik

Dagoeneko udazken-negurako prestatzen hasiak dira herritarrek. Udalak eskaintzen dituen egur loteak etxe gehienetan jasoak dituzte dagoeneko. Aurten Egurlan enpresa arduratu da egur loteak bota eta etxera edo hartzaileak nahi zuen lekura eramateaz.

Ekainaren 18an ailegatuko dira Errigorako eskaerak

Ekainaren 18an, hurrengo ortzegunean, ailegatuko dira Errigorako kanpaina eskaturiko olio eta kontserbak. Ailegatzen diren momentuan bertan arduradunak eskatzailaekin harremanetan jarriko dira, horiek eman ahal izateko.

Mendaur trikitixa eta pandereta eskolako aurrematrikulazioa zabalik

ARKAITZ MINDEGIA

Udarako ateraldirik gabe gelditu diren arren, karrikak alaitzeko gogotsu daude Mendaur trikitixa eskolako ikasle eta irakasleak. Hurrengo ikasturterako aurrematrikulazioa irekia du eta indarberrituta itzuliko dira.



Karrikak alaitzeko gogotsu daude.



PROMOCIONES
MALERREKA

Informazioa: **629 951 170** (Aitziber)



**AUKERA
BIKAINA
Sunbillan!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garaieak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren arabera finantziakzioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Udako lanaz gozatu nahi eta ezinik

Soldatarik eta maite dutena egiteko aukerarik gabe utzi ditu koronabirusak Iñigo Aldazabal, Izaskun Iparragirre eta Eki Gereka. Hauen falta sumatuko da musikarik gabeko karriketan, ostatu erdi hutsetan eta ateak itxi dituzten igerilekuetan

N. BAZTERRIKA

Uda opor garaia izaten da batzuentzat, lanerako tenorea bertzeentzat. Aurtengoa, ordea, ezoherikoa izanen da guztientzat.

Mugimendua beheiti, langabezia goiti

Covid-19aren ondorioz, jende pilaketak saihesteko neurriak hartzen ari dira eskualdeko hainbat udal: bestarik ez ospatzea, igerilekurik ez irekitzea... erabaki dute batzuk.

Horrek guztiak eragin zuzena izanen du eguneroko martxan

eta, mugimenduak beheiti egitearekin batera, orain arte udan sortu diren lanpostu kopuruak ere beheiti egingen du.

Iazko langabezia datuei erreparatuz, martxoan 749 langabe zeuden eskualdean eta ekain hondarrean 623 ziren Doneztebeko enplegu zerbitzuan izena

**MAIATZ HONDARREAN
856 LANGABETU
ZEUDEN, IAZ BAINO
%27,22 GEHIAGO**

emana zutenak. Hiru hilabetez, langabeziak %16,82 egin zuen beheiti.

Aurtengo martxo hondarrean 787 langabeziren, joan den urtean baino 38 gehiago; apirilean 838 lagun zeuden eta langabezia iazkoa baino %22,51 handiagoa zen eta maiatzean 856 ziren ize-

**OTSAILTIK MAIATZ
HONDARRERA %15,68
HAZI DA LANGABE
KOPURUA**

na emana zutenak, 2019an baino %27,22 gehiago. Azken hiru hilabeteotan, beraz, langabe kopurua %8,77 hazi da.

Kalteak alor guztietan

Kaltetuak izan direnen artean daude, bertzeak bertze, bestaz besta ibiltzen diren zerbitzari eta musikariak, baita sorosle edo monitore lanetan aritzen direnak ere. Iñigo Aldazabal Zamarreño (Bera, 1989), Izaskun Iparragirre Etxarte (Elizondo, 1981) eta Eki Gereka Amunarriz (Zubieta, 1995) eragina sumatzen hasiak dira. Izan ere, Aldazabalentzat udako soldata «osagarria» den arren, hortik «diru-sarrera nabarmena» lortzen du; elizondoarrarentzat musika «laguntza handia» da; eta zubietarrari «urtean zehar bidaiazteko edo planak egiteko askatasuna» ematen dio. Baina hori baino gehiago ere bada. Bizi dutena, maite dutena eta gustuko dutena egiteko aukerarik ez dute izanen.



Udako bestetan zerbitzari aritzen da Iñigo Aldazabal beratarra.

«Udakoa diru-sarrera osagarria baina nabarmena da niretzat»

IÑIGO ALDABAL ZAMARREÑO (BERA)

Ikasketak eta lana uztartzeko «modu errazena» udan lana egitea zela irizita, gazte-gazterik, txaranga hasi zuen ibilbidea Iñigo Aldazabalek (Bera, 1989). Hiru urtez karrikak girotzen ibili ondotik, «asteburuetan eta udan» zerbitzari aritzea erabaki zuen.

10 urte baino gehiago

Ikasketak akituta, astegunez ere lan eginagatik, udako lanari eutsi izan dio: «16 urterekin hasi nuen zerbitzari abentura, beharra izanez gero, edozein lan aukeratzen da eta...».

Probatu eta gustatu egin zitzaionez, 10 urte baino gehiago daramatza horretan. Gaur egun, udako lana «gehirgarri bezala» izaten dut.

Agenda «bete-betea»

Uda honetan, «ostatu finko batzuetan» aritzekoa zen eta «agenda bete-betea» zuen: «lanegunak adostuak nituen, zerbitzario eta gisako lanetan aritzen garenon ordutegi eta egunak aldatzen diren arren».

Aldaketak bai, baina horrelakorik ez zuen espero Aldazabalek eta aurreikuspenak hankaz goiti jarri zaizkio: «larrialdi egoera hasi eta aste batzuetara bestarik ez zela izanen jakinarazteko deika hasi ziren. Momentuz uztail-lekoak bertan beheiti gelditu dira baina abuztutik aitzinerako daten zain gaude... Ez dakigu zer gertatuko den».

Diru-sarrera

Udako lana «diru-sarrera nabarmena» izaki, beratarren ustez, «behar izanez gero, bertze bide bat bilatu beharra izanen dute aunitzek». Egoera honetan, bereziki, uda

«ABUZTUTIK AITZINERAKO BERRIEN ZAIN GAUDE ORAINDIK»

honetan lehenbiziko aldiz lan egiteko asmoa zutenez oroitzuten da: «dena bertan beheiti geldituko da baina beraiek gehiago galduko dute: lehenbiziko lan esperientzia, gurasoen menpe egon behar ez izateko diru-sarrera...».

Lana galdu, denbora irabazi

Berak, lan osagarria izaki, egoera beltzari alde ona aterahi nahi izan dio: «denbora libre irabazi dudala pentsatu nahi dut eta disfrutatzea erabaki dut». Gero geroakoak: «abuztutik aitzinera lana egiteko aukera bada hortxe izanen naiz, bertzela, udaz gozatuko dut».

«Aitzineko urteetan gutaz oroitu direnez ez gara atzenduko»

**IZASKUN IPARRAGIRRE
ETXARTEA** (ELIZONDO)

Etxean aditutakoari tiraka, zortzi urte zituelarik, Baztango musika eskolan akordeoia jotzen ikasten hasi zen Izaskun Iparragirre (Elizondo, 1981). Musika eskolan ikasitakoa eta etxean landutakoa plazaratzeko aukera eman dio 2013an Irune Etxeberria zenarekin eta egun taldekide duen Jaione Elizagoienekin sortutako Hauspolariek taldeak.

«Bakoitzak bete beharreko lana eta musika mota argi» zituztenez, «gogoz, ilusioz eta indarrez» eman zituzten lehen-dabiziko pausoak eta «herriek arras harrera ona egin ziguten». Hasieratik, «uste genuena baino lan gehiago» eginez hasi zuten bidea eta halaxe dihar-

dute egun. Lan gehien «inauterietan eta, bereziki, ekainetik irailera bitarte, herriko bestetan» izaten dute.

«20 bat joaldi» bertan beheiti
«Zoritzarrez» aurtengo uda ez da espero bezalakoa izanen egoerak «20 bat joaldi» bertan beheiti uztea eragin baitie. Musika eragiten dion «gozamen», plazetako giroa eta Jaionerekin musika egiteak berarengan eragiten duen «plazera» falta izanen ditu Iparragirrek.

Momentuz, «mantentzen diren abuztu hondarreko, irailko eta urriko» kontzertuen esperoan geldituko dira eta horietan ere ezin bada «hila-beteak aitzinera joan bezala aukera izanen dugula pentsatu nahi dugu».



Izaskun Iparragirre.

Musikarekin bizi

Kontzertuek ekonomikoki «laguntza handia» ematen diote Iparragirrerri baina diruaz harago eskaintzen dionak balio erantsia du elizondoar musikariarendako: «nahiz eta laguntza handia izan, musikatik bizitzea arras zaila da baina musikarekin bai bizi naiz, nire egunerokoan leku handia betetzen duelako».

«MUSIKATIK BIZITZEA ZAILA DA BAINA LAGUNTZA HANDIA DA»

Horregatik, hain zuzen, itxialdian ere, musikaz gozatzen eta gozarazten segitzeko asmoa du taldeak: «aitzineko urteetan jendea guretzat oroitzen bezala gu orain ez gara atzenduko eta ahal dugun moduan gure musika eta animoa bidaliko dizkiegu».

Argi dute «egoera hau ahalik eta goxoena izateko denek denek beharra dutela» eta euren aldetik «ahal dutena» egingen dute. Esker oneko keinuez eta hitzez bete zaio ahoa elizondoarrari: «esker mila aunitz Hauspolariek taldea aitzinera ateratzen lagundu duzuen guztiei, etxeko, lagun, herri, elkarte... guztiei».

«Urteak daramatzat uda osoan lan egin eta urtea pasatzeko aurrezten»

EKI GEREKA AMUNARRIZ
(ZUBIETA)

Lehen Hezkuntza gradua ikasten ari da Eki Gereka (Zubieta, 1995). Ikasketak aurrera eramateko, irailetik ekainera Gasteizen bizi da. Udako oporraldian, berriz ere, herrira bultzatu ohi da eta liburuak lanarekin ordezkatzan ditu, «gastuak kudeatu ahal izateko».

18 urte zituela hasi zen udan lan egiten, «autonomia ekonomikoko minimo bat izateko eta ahal nuen neurrian nire dirua ateratzeko».

Zerbitzari, monitore, sorosle


Udako hainbat lanetan aritu da. Ostatu txiki batean zerbitzari hasi zen lehendabizi; abentura parkean monitore

lanetan ibili zen gero; eta igerileku batean sorosle ardura izan zuen iaz. Urte hauetan guztietan «udan irabazitakoa aurreztuz» egin du aurrera eta, horri esker, «nahi izan dudan planak egin edo bidaia antolatu» ahal izan ditu «askatasun handiagoa ematen baitu diru propioa edukitzeak eta inori deus eskatu behar ez izateak».

Langile asko, lan gutxi

Aurtengo udarako «hitzartuta deus» ez bazuen ere, «inguruko herriren batean sorosle lanetan» aritzeko asmoa izan bazuen: «aurrera egin ahal izateko diru minimo bat behar da eta...».

Bizi dugun egoera honetan, orde, orain artean egin dituen eta gustuko dituen lanen bat harrapatzea «zail» ikusten du



Eki Gereka.

Gerekak: «egoera zein izan den ez dakigu oraindik baina, nola gauden ikusita, beharbada, igerilekuak eta parkeak ez dira irekiko».

Alor batzuk ixteak besteetan eragin zuzena izanen duelakoan dago eta, horren ondorioz, «denontzat lana izatea ez da erraza izanen, egoera berberetan jende asko egonen garelako».

«DIRURIK ESKATU BEHAR EZ IZATEAK ASKATASUNA EMATEN DU»

Aukerak baloratu

Dena den, momentuz, ez du oso beltz ikusten eta «mugituz gero» lanen bat harrapatu daitekeela uste du: «lan eskaintzak badaudela aditu dut eta konfinamenduaren ondorioz lana atera zaien lagun batzuk daukat». Distantzian dago koxka: «irtenbidea, beharbada, ez dago etxetik hurbil eta ez da gustukoa izanen».

Bere kasuan, «ikasturtea akitzean» hartuko du erabakia, «dauden aukerak baloratuko ditut». Hala ere, argi du «baterre gustatzen ez zaidan lan batean ari baino» momentuz nahiago duela «dagoenarekin aurrera» egin.

Herriko ostalariei laguntzeko neurriak hartu ditu udalak

Elbarren kaleko zati bat oinezkoentzat egokitu dute eta terrazetako kuotak ez dituzte kobratuko 2020an eta 2021ean

TTIPI-TTAPA

Tokiko ekonomia sustatu eta ostalaritza laguntzeko pausoak ematea beharrezkoa dela ikusita, hainbat neurri iragarri ditu udalak. Hasteko, terrazei tokia egiteko Elbarren kaleko zati bat oinezkoentzat egitea erabaki dute: terrazei eskainitako eremua aldi baterako handituko dute eta Adur tabernatik Peritzara doan tartea autoei itxita egonen da abuztuaren 31ra arte. Bizilagunen atsedena bermatzeko, terrazan ordutegiak zorrotz-betearaziko dituztela ere azaldu du



Autoei itxita dago bidea. TTIPI-TTAPA

udalak: «08:00etatik 23:00etara baimendu da terrazan jarduera». Bestetik, terrazetako kuotak ere ez dizkiete kobratuko ostalariei 2020an eta 2021ean.



Leitza da Euskal Herriko hautagai bakarra. JAVIER CAMPOS

Espainiar estatuko Landa Turismoko hiriburu izateko hautagaia da Leitza

TTIPI-TTAPA

Landa Turismoko hiriburu izateko laugarren lehiaketa martxan da eta hautagai diren espainiar estatuko hamar herriren artean dago Leitza, Euskal Herriko hautagai bakarra. Bozkatzeko epea irekita dago eta ekainaren 28ra arte www.escapadarural.com webgunean

eman daiteke hamar finalisten aldeko bozka. 2017an Sigüenza aukeratu zuten, 2018an Aínsa-Sobrarbe eta 2019an Santillana de Mar. Hautagaitza honek herriari sona eman eta etor daitekeen turista kopuruan eragina izan dezakeela iritzita, pozik jaso dute izendapena udaleko ordezkariak.



ARTXIBOA

Festak bertan behera utzi dituzte

Covid-19 pandemiak sortutako testuingurua dela eta aurtengo herriko festen antolaketa bertan behera uztea erabaki dute. Dena den, abuzturako oraindik hilabeteak falta direnez, festa batzordeak biltzen jarraituko duela ere jakinarazi dute: «momentuan momentuko balorazioa egiteko».

Leitzulia BTT probaren antolaketa ere bertan behera

Iraillean egitekoa zuten Leitzako mendiak zeharkatzen dituen BTT itzuliaren bosgarren edizioa. Covid-19ak eraginda, «galdera asko airean eta erantzunak gure esku ez daudela ikusita, hoberena ez ospatzea dela» erabaki dute antolatzaileek.

Torrea tabernak hainbat produktu jarri ditu salgai

Alarma egoerak, Espainiako Auzitegi Gorenak kontuak enbargatu izanak eta lokala konfiskatzeko mehatxuak egoera berezian utzi du Torreña taberna. Horregatik, stockean gelditu zaizkien produktuak saltzen hasi dira egoera ekonomikoari aurre egiteko.

Ostalariei eta kontsumitzaileei zuzendutako prebentzio kanpaina abian

TTIPI-TTAPA

Terraza, taberna eta jatetxeetako erabileran segurtasuna bermatzeko Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak prebentzio kanpaina jarri du martxan. Kezka agertu dute konfinamendua arindu ondotik jendearengan ikusi duten jarrerarekin: «gure inguruan, ireki dituzten terrazek eta bertara hurbildu diren kontsumitzaileek neurriak orokorrean ongi betetzen ez dituztela ikusi dugu eta gainera kontsumitzeko nahia bereziki

handia dela dirudi, nahiz eta datu zehatzik ez dagoen». Hori dela eta, babes neurriak gogorarazi, ostalarien lana errespetatu eta auzokideak errespetatzeko eskatuz kartelak banatu dituzte. Prebentzio kanpaina hau baliatuta, birusa oraindik hemen dagoela ere gogorarazi nahi dute: «gu zainduz besteak zaintzen ditugu».

Kontsumo ereduari buruzko hausnarketa ere bultzatu nahi dute, alkohola kontsumitzea erabakitzen denean arduraz egiteko eskatuz.

Herri lanetarako bi langile kontratatuko ditu udalak

Interesa dutenek ekainaren 11 baino lehenago eman beharko dute izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan

TTIPI-TTAPA

Udalak uda partean hasi eta urte bukaera arte herri lanetan aritzeko bi langile kontratatuko ditu. Zerbitzu anitzetako bi lanpostu izango dira eta interesa dutenek Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena eman beharko dute ekainaren 11ko 14:00ak baino lehen.

Sei hilabeteko kontratua izango da, %75eko lanaldia-rekin. Aresoarrek izango dute lehentasuna eta hautagairik aurkeztuko ez balitz, Leitzaldera ere zabalduko dute deialdia. Bi lanpostu hauek ordain-

tzeko, Nafarroako Gobernuak ematen duen dirulaguntza eskatuko dute eta hala, zati bat diruz lagundua izanen da. Hautagaiek proba praktikoa egin eta euskara maila ziurta-tu beharko dute.

Auzolana

Ezohiko egoera izan da orain arte herrian. Herri-langileak eszedentzian dago eta beste bat kontratatzeke arazoak izan dituzte. Horregatik, duela gutxi herria txukuntzeko auzolanean aritu ziren hainbat herritar, «eskerrik asko gutziei».

Heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzeko dirulaguntza deialdia irekita

TTIPI-TTAPA

Udalak ikasleentzako dirulaguntza onartu du, heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzeko. 2019an burutako jarduerengatik, hamasei urte bitarteko gazte eta haurrak dituzten familiek egin dezakete eskaera eta egiaztatzen den gastua-

ren %50 lagunduko dute; gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko. Gastu guztiak ordainagiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte. Ekainaren 26a baino lehenago aurkeztu beharko dute dagokion dokumentazioa Udaletzeko postontzian utziz edo emailaz bidalita.

Herri barruan abiadura mugak errespetatzeko eskaera egin dute

TTIPI-TTAPA

Herrian hainbat auto-gidari behar baino azkarrago ibiltzen dela ikusita, zentzuz jokatzeko eskaera egin diete. Hainbat bizilagunek azaldu dute kezka udalean beraien etxeetatik gertu autoak oso azkarpasatzen direla salatuz. Aurretik ere,


arazo hori konpontzeko eskola aurrean koskak jarri behar izan zituzten. Erabaki horrekin, gutxi batzuk gaizki eginga denek ordaintzen dutela azpimarratu nahi izan du udalak eta horregatik, besteengan pentsatu eta abiadura moteltzeko deia egin dute.

DESKONTUAK

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Uharte Gotzaina, 1- beheka 4 LEITZA T. 948 51 36 20	%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Landa Behokoa LEITZA T. 948 51 04 37	%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55
%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Huarte Gotzaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	%10 DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08	%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86
%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan Amazabal, 23 LEITZA T. 948 61 09 74	%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20	%5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48
			%10 DESKONTUA hamar saloko bonoan Uharte Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30



Araztegiaren proiektua.

NILSAk inbertsioa egingen du araztegi bat eraikitzeko

2021ean funtzionamenduan izanen da eta 470.000 euro bideratuko dituzte proiektu honetara

TTIPI-TTAPA

NILSA sozietate publikoak, Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Kohesioeko Departamentura atxikita dagoenak, herrian araztegia eraikitzeko proiektua aurkeztu du. Lanen aurrekontua 470.000 eurokoa da, saneamendu-kanonaren bidez finantzatuko da, eta 2021. urtean funtzionamenduan izanen da.

Tokiko Azpiegituren Nafarroako Sozietatea SAREN proiektuen arloko taldeak proiektua udalean aurkeztu du. Bertan, araztegia jartzeaz gain, bi hustubide berri egingen dituzte eta lehendik dagoen kanal batera konektatu. Aurkezpenera bideo-konferentzia bidez egin zuten, Covid-19aren pandemia ez hedatzeko ezarritako mugak direla-eta.

Herriaren baldintzak

Aranok 116 biztanle ditu, bi hirigunek osatzen dute, Behe-

ko Herriak eta Goiko Herriak, eta orografia konplexuko zonan kokatzen dira: malda handiko mendi-hegalak, bide oso estuak eta gurutzatze-puntu eta materialak biltzeko gune gutxi. Beraz, horrek guztiak planteatutako irtenbidea baldintzatzen du.

Saneamendu-sistema sendoa

Tamaina honetako herrietako urak arazteko, saneamendu-sistema sendoa behar da, mantentze-lan gutxiarekin eta energia elektrikorik gabe funtzionatzeko aukerarekin. Ondorioz, araztegia Imhoff iragazkiekin eta bakterio-ohantzearekin eraikitzea hautatu dute; guztira 675 metro karra-tuko eremua hartuko dute.

Era berean, 420 metroko luzerako hustubide berria eraikiko dute Beheko Herriko hirigunean eta 120 metroko beste hodi bat instalatuko dute araztegiaren eta tokiko bidea-

ren artean; ondoren, lehendik dagoen eta aurreko fase batean berritua izan zen hustubidearekin konektatuko dute leku horretan.

2021erako martxan

Proiektua 2021. urtean gauzatuko dute, bost hilabeteko iraupena izanen du eta, lanak bukatuta, segundoko 0,28 litroko batez besteko emaria tratatu ahal izanen dute (24 metro kubiko egunero), segundoko gehienez 1,89 litrora heltzeko aukerarekin (168 metro kubiko egunean). Gainera, ez dute lohiz betetzeko arazorik aurreikusi, ekaitza edo euri asko egiten duenean sortzen den emaria segundoko 0,67 litrokoa izatea aurreikusi baita.

Proiektua NILSAk 200 biztanle baino gutxiagoko herri guztietan araztegi-estazioak jartzeko duen planean kokatu da, nahiz eta herri horiek hobi septikoak izan. Gaur egun, Nafarroako biztanleriaren %1,81ak soilik ez du saneamendu-sistema osorik eta kopurua are gehiago murriztu nahian ari dira. Oso sakanatuta dauden herriak dira, eta ingurumeneko inpaktu oso arina dute, etxeko isuria delako, eta, hortaz, ez dago industria-karga kaltegarriarik, bakarrik organikoa baizik.

Goizuetako festak bertan behera utzi dituzte

Festa Batzordeak, gaur egungo egoera aztertu ondoren, «orain arte ezagutu ditugun moduko festak» ezin izanen dituztela egin erabaki du. Hailere, Festa Batzordeko kideek elkartzan segitzeko asmoa dute, «momentuko aukerak baloratzeko». Adierazi dutenez, «irudimenez eta arduraz» jokatzeko garaia da eta «orain arte bezala zaintzen» segitzeko deia egin dute.

'Bizitzak erdigunean' adierazpenarekin bat egin du Udalak

Bizitza erdigunean jartzen duen Goizueta eta Aranoko berdintasun zerbitzuen adierazpenarekin bat egin zuen udalak maiatzaren 26an egingo dako plenean. Bertan salatzen dutenez, Covid-19aren krisiak agerian utzi du «zaintza-lanen krisi itzela bizi dugula». Adierazpenean azpimarratu dute etxeko eta zaintzako lanen banaketa oraindik ere ez dela bidezkoa: «ez dago benetako erantzunkidetasunik. Gaur egungo egoerak sexuaren arabera lan-banaketa eta genero-estereotipoak indartu ditu, emakumeek hartzen baitituzte bere gain gehienetan haur, mendeko, zahar eta gaixoen zaintza-lanak». Gainera, lan horiek doan egiten dituzte familiaren esparruan, eta soldatapean izatekotan, lan-baldintza oso prekarioetan eta lan- eta gizarte-eskubide gutxiarekin, «eta, hala ere, gure gizarteak ongi funtzionatzeko funtsezkoak dira». Hau aldatzeko, gizarteari erantzukizunez jokatu eta zereginak eta zaintza-lanak modu eraginkorrean banatzea dagokiola dio adierazpenak.

«Telelana ez da nahikoa umeak etxean izanda lanean jarraitzeko»

MAITE LUJANBIO ETXARRI ZORTZI URTEZ TELELANEAN ARI DEN GOIZUETARRA

Enpresaritzak ikasketak bukatuta duela hogeitaz hamar urte hasi zen Irungo bulego komertzial batean lanean. Duela zortzi urte hasi zen telelanean eta azken lau urteetan etxetik osatzen du lanaldi osoa

E.IRAOLA | ARANTZA

Azken boladan modako hitza bihurtu den telelana aski eza-guna zen aurretik ere Maite Lujanbio Etxarrirentzat (Goizueta, 1976). Duela zortzi urte eskaini zion enpresak ordu batzuk etxean, Arantzan, lan egiteko aukera eta azken lau urtetan bertatik osatzen du lanaldi osoa. Horrek «lana eta seme-alaben zaintzaren kontziliazioa arindu» diela aipatu digu. Gaur egungo egoeran, ordea, telelana ez dela nahikoa uste du: «ehunzangoaren hanka bat besterik ez da».

Noiztik ari zara telelanean?

Enpresaritzako ikasketak bukatu eta 23 urterekin hasi nintzen lanean, orain Het Elastormertechnik izena duen enpresan. Iker bigarren semea jaio zenean, orain dela ia zortzi urte, zortzi orduko lana eta kontziliazioa uztartzearen etxetik ordu batzuk lan egiteko aukera eskura jarri zidaten. Orain dela lau urte, berriz, zoritxarrez, Irunen genuen bulegoan bakarrik geratu nintzen eta lan ordu guztiak etxetik lan egiteko aukera eskaini zidaten bakarrik egonen nintzen bulego batetara joan beharrean. Bietan gustura hartu nuen proposamena.

Nola egokitu zinen?

Lantokia eta etxebizitza banatu eta lanorduak mugatzea izan ziren egin nituen lehen-dabiziko bi gauzak. Lan ordutegi bat jarri nuen eta ordutegi horretan Irungo bulegoan



Telelanean abantaila eta desabantailak eta egungo egoeraz hitz egin du Maitek.

nengoela pentsatzen hasi nintzen eta ez etxean. Beraz, akabo etxeko lanen tentazioa. Eta gauza bera, alderantziz. Behin, ordutegi horretatik kanpo, lanetik deskonektatzen dut. Nire ustez, mugak jartzea da kontua; norberak bere buruari eta besteei. Egia da, nire nagusi eta lankideek beti errespetatu izan dutela nire ordutegia, kasu oso berezietan izan ezik. Bezeroak ohitu egin dira nire lan ordutegira baita seme-alabak ere. Horrek ez du esan nahi, tarteka, malgua izatea tokatu ez zaidanik eta izan behar ez dudarik ere.

Zeintzuk izan dira abantailak?

Alde emozionalari begira, etxetik lan egiteak lasaitasun handia eman dit, orain ez bai-

naiz lanera joateko lasterka ibiltzen ezta eskolara umeen bila joateko ere. Horretaz gain, goizean ordu bat gelditzeko aukera dut umeak jaiki, elkarrekin gosaldutako eta eskolara laguntzeko. Segurtasun aldetik ere abantailak ikusten dizkiot, egunero errepidean ibili beharrek ekarri ditzakeen arriskuak ikusirik. Eta azkenik abantaila ekonomikoa ere badu: gasolina, kotxea, aparkalekua... gastu gutxiago izaten baita.

Eta desabantaila?

Jendearekin aurrez aurreko hartu-eman izatea botatzen dut faltan. Telefonoz, e-mailez, komunikatu eta harremantzen naizen arren, ondoan, ondo konpontzen zaren norbait

izateak askotan lana arintzen du. Eskerrak Arantzako parkeko eta frontoiko lagunek harremantzeko aukera ematen didaten lan orduetatik aparte! **Orain etxeko egoera aldatu denean, nola uztartu duzue seme-alaben zaintza eta telelana?**

Ikusirik enpresako lan jarduerak nahiko motela zela, orain dela gutxi lau orduko lan murrizketa eskatu dut orain etxean dauden seme-alaben zaintzarekin hobeto uztartu ahal izateko. Hala ere, oso zaila da momentu honetan bi gauzak ongi lotzea. Momentu batean bezero batekin nago eta handik gutxira nire seme-alaben beharren bat ase nahian. Eta lan ordutegiari dagokionez, berriz, seme-alaben beharrak lan ordutegian ase nahi izan ditudanez lan ordutegia zabaldu behar izan dut laneko denbora galera hori nolabait konpentsatzeko. Toki guztietan eta inon ez nagoenaren sententzia daukat azken egun hauetan.

Telelana, hortaz, ez da aski...

2020ko martxoaren 13ra arte, telelana seme-alabek gehiago disfrutatzeko aukera eman dit, bizitza lasaiago hartzeko, kotxeko eguneroko joan-etorrien arriskua gutxitzeko. Halere, bizitzen ari garen egoera honetan, hau da, umeak etxean eta lanarekin jarraitu beharra, telelana ez dela nahikoa pentsatzen dut. Ehunzangoaren hanka bat besterik ez da. Momentu berezi honetan gainera, seme-alabek, momentuan ase behar liratekeen behar emozional batzuk asetzeko eskatzen dute. Ezin dira gerorako utzi eta egoera berri honetan etxean gaudenok lagundu behar diegu. Baina lanaren exijentzia hor dago eta pisu haundia dauka. Beraz, ehunzangoaren gainontzeko hanken behar handia izanen dugu egoera honetatik denok emozionalki sano atera ahal izateko: etxean umeak zaintzen geratzea erabakitzen dutenei dirulaguntzak ematea, hurbilekoen laguntza...

«Jasangarritasunaren eta inklusioaren aldeko apustua egin dugu»

MARI JOSE BARRIOLA BARAIBAR LANBIDE HEZIKETAKO BIOZIENTZIAK ETA JASANGARRITASUN ZUZENDARIA

Bertako materiala erabiliz, bertako maskarak sortu dituzte Tknika ikerketa zentroan. Hori lortuta, gor, mutu eta adinekoentzat lagungarri izanen diren maskara gardenak lantzen ari dira orain

N.BAZTERRIKA LEITZA

Ikerketa taldeetako profesio-nalak, koronabirusaren aurrean, indarrak batuta ari dira lanean. Babes neurrien artean, berariaz landu dira maskarak. Bateko eta besteko ikerketa zentroek maskara higienikoak eta kirurgikoak landu dituzte. Pauso bat harago jo dute Tknika ikerketa zentroko Mari Jose Barriola leitzarrak eta bere lankide Arantxa Zamorak. Izan ere, bertakoak eta jasangarriak diren materialak erabiliz maskarak sortu dituzten lehenbizikoak izan dira. Orain, berriz, gorrentzat, mutuentzat eta adinekoentzat lagungarri izanen diren maskara gardenak lantzen ari dira. Keinuz keinu, komunikazioa ahalbidetu eta gizarte inklusiboago baterantz bideak urratu nahi izan dituzte.

Tknika ikerketa eta berrikuntza zentroan ematen duzu egunerokoa. Zer da Tknika?

Tknika Lanbide Heziketarako berrikuntza eta ikerkuntza aplikatua egiten duen zentroa da, Eusko Jaurlaritzaren barne dagoena. Lanbide Heziketako irakasleei formakuntza ematea eta haiek hori zabaltzea da. Irakasleek, gurekin batera, hainbat gai lantzen dituzte: industria 4.0, nazioarteko proiektuak, berrikuntza metodologikoak, biozientziak eta jasangarritasuna... Helburu nagusia hemen proiektuen bidez jasotzen dugun ezagutza guztia Euskal Autonomia Er-

kidegoan dauden Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta itunpeko guztietara zabaltzea da. Horretarako irakasleekin lan egiten dugu.

«EGUN ERABILTZEN DITUGUN MASKAREK EKOIZTE PROZESU KUTSAGARRIA DUTE»

Biozientziak eta jasangarritasun arloan zabilta... zer da lantzen duzuen?

Hiru esparru nagusi ditugu: batetik, agroelikadura, itsas-

«BERTAKO MATERIAL BIODEGRADAGARRIAK ERABILTZEN SAIATU GARA»



Tknika ikerketa eta berrikuntza zentroan egiten du lan Mari Jose Barriolak.

-ingurunea eta ingurune naturala (nekazaritza, basogintza, ostalaritza eta turismoa, ekonomia zirkularra...); bestetik, eraikuntza adimentsua eta jasangarria; eta azkenik, bioteknologia, osasuna eta biozientziak. Alor horiei loturiko proiektu amankomunak lantzen ditugu ikastetxeekin.

Koronabirusa tarteko, zuen lana egungo beharretara egokitu duzue. Noiz hasi zineten maskarak egiten Tknikan?

Martxo hasieran, lehenbiziko edo bigarren astean, sailburuordea maskarak prototipatu, diseinatu eta ekoizteko gai izanzen ote ginen galdezka etorri zitzaigun. Duela bizpahiru hilabete behar-beharrezkoa zen pertsonal sanitarioa maskara kirurgikoz hornitzea. Beraz, erronka horri heldu genion. **Maskara kirurgikoekin hasi zineten. Nola hasi zenuten prozesua?**

Abiapuntua gure laborategian erabiltzen ditugun maskarak nola osatuta dauden eta zer geruza dituzten ikustea izan zen, alderantzizko ingeniari-tza eginez egin genuen hori. Horrez gain, maskara kirurgikoak egiteko Europako araudia lantzen hasi ginen. Alarma egoera horretan dena itxita zegoen, hornitzaileekin hartu-emanak izatea zaila izan zen... Hortaz, materialak aztertzen hasi ginen. Zoritxarrez, orain arte bai hauek egiteko materialak baita maskarak ere Asiatic, Aljeriatik, Turkiatik... ekarri izan dira eta material hauek oso ekoizte prozesu kutsagarriak izaten dituztela ikusi genuen. Gure lan ildo sendotako bat jasangarritasunarena izaki, maskara kirurgikoak lantzerakoan material sakabanatuak eta biodegradagarriak sartzen saiatu gara. Horiek diseinatu eta egin ondotik, ziurtagiria lortu nahian, entseguak pasatzen hasi ginen. Homologatua den laborategi bati lagina eramane genion.

Zein dira maskarak homologatzeko egiten dituzten entseguak? Hiru entsegu nagusi egiten dituzte: bakterien aurkako efi-

zientzia (pasatzen ez direla ikusteko), arnastea bermatzen duela egiaztatzeko eta zipritinen aurkako babes eskaintzen duela frogatzen duen beste bat. Maskara kirurgikoe-kin beharrezko ziurtagiri hauek lortu genituen. Bide horretan, gure ikastetxeekin, adibidez, ehungintzara bideratuta daudenekin, sare boluntario bat osatu genuen, boluntarioak, ikasleak, irakasleak... bilduz. Eta Tknikan ditugun baliabideekin material horien karakterizazioa eta ezagutza landu ditugu, bidali aurretik frogak eginez.

Maskara kirurgikoetatik gartenetara jo zenuten...


Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleekin egiten dugun elkarlan horretan, inklusioa oso txertatuta dugu eta horri tiraka, maskara gardenak sortzeko beharra ikusi genuen. Halaxe hasi ginen, behar horri erantzuteko. Hamahiru prototipo landu ditugu eta orain horiek kontrastatzen ari gara gerontologian, entzumena galdu dutenekin, hezkuntza alorreko profesionalekin, logopedekin... Beraiek esaten diguten beharretara egokitu dugulana. Horrela, ahoaz gain, aurpegiko keinuak ikusiz komunikazioa erraztu ahal izateko, ahalik eta azalera garden handiena duten maskarak egin ditugu.

Orain homologatze-prozesuan ari zarete?

Bai, halaxe da. Prototipoak egin genituen eta orain kontrastatzen eta material gehiago begiratzen ari gara. Plastikoa oso gardenak izan arren, arnagarritasunaren parametroa egiaztatzeko entsegua pasatzeko zailtasun handiagoa dute... Ea lortzen dugun entsegu horiek pasatzea.

Pantailak gardenak izaki, keinuak ikusteko aukera ematen dute... Segurtasun edo babes aldetik, zein da bien arteko aldea?

Bi produktu dira: pantailak babesten du baina ez maskara kirurgikoei adina. Maskarak produktu sanitarioak dira eta



Maskara gardenak homologatzeko lanean ari dira Tknika ikerketa zentroko profesionalek.

pertsonal sanitarioak horiek erabili behar ditu ongi babesteko. Hauek bere prototipoa eta prestaketa behar dute, legediaren araberrako egokitze eta homologatzeko. Hortaz, pantailaren azpian beti hauek erabiltzea komeni da.

Homologazio prozesua pasatzen dutenean kirurgikoei bezainbeste babestuko dute maskara gardenak?

Horixe da orain lortu nahi duguna. Horregatik, entsegu horiek pasatu eta balioztatze materialak ikertzen ari gara. Plastikoa birziklagarriak badiren arren, aipatu bezala, arnasteta zailtzen dute. Horregatik, entsegu horiei begira lanketak egiten ari gara. Horrez gain, badira naturak ematen dizkigun materialak, sakabanatua goak direnak. Material horiek erabiltzeko lanean ari gara. Gaur egun mundu osoan erabiltzen ari diren maskarek ekoizte prozesu oso kutsakorrak

izaten dituzte, inpaktu handia eragiten dutenak. Zakarretara botatzen ditugunean ere ehunka urte pasatu behar dituzte desegiteko eta ez gara horretaz jabetzen. Benetan serio hartu beharreko kontua da. Gu orain aztertzen ari garen materialak, berriz, uretan desegiten direnak dira. Nahiz eta prozesua pixka bat luzatu jasangarritasunaren alde apustu sendoa egin behar dugula uste dugu. **Noizko aurreikusten duzue hauek merkaturatzea?**

Nahiz eta gu buru-belarri ari garen, laborategiaren zain gaude eta haiek markatuko dizkigute entseguak, emaitzak... Beraz, ez da gure esku dagoen zerbait. Hirugarren go batzuk sartzean prozesua luzatzen da eta beraiek ere lan kopuru handiarekin dabilta orain... Nahiz eta guri ere prozesua luze egiten ari zaigun, entseguek ere bere denbora behar dute, material biziarekin egiten da lan, bakteriekin eta horrek

bere denbora behar izaten du. Ea ahalik eta azkarren emaitza onekin egitea lortzen dugun. **Dagoeneko entseguren bat pasatu duzue maskara garden horiekin?**

Bai, batzuk balioztatzen eta aurrera eramaten ari gara. Momentuz ongi ari gara, ea horrela segitzen dugun. Behar horri erantzuteko hasi ginen eta dei pila bat izan ditugu, ez Euskal Herrietik bakarrik, beste erkidegoetatik eta estatu mailatik... eta lanbide eta arlo profesional askotatik: osasun eta hezkuntza sailetik, partikularrengandik, down sindromea duten haurrekin lan egiten duten elkarrekin... Eskaera handia dago eta ahalik eta azkarren lortu nahi genuke.

Bai material aldetik baina gizarteari dagokionez ere, onura handiak ekarriko ditu... Horretarako denok erabili beharko genituzke ezta?

Askotan entzumena galdu dutenei, mutuei edota haurrei bakarrik bideraturikoak direla pentsatu ohi dugun arren, maskara gardenak denok erabili beharko genituzke. Azken finean, komunikazio hori bermatzeko, gu geuk jarri beharrekoak dira.

«BESTE ALORRETAN IKUSTEN DITUZTEN BEHARRAK LANDU NAHI IZAN DITU»

«DENOK MASKARA GARDENAK ERABILI BEHARKO GENITUZKE»



Garbiñe Elizegi eta Joseba Otondo epaitegira sartzen, 2016ko urrian. ARTXIBOKOA

«EZIN IZAN DITUZTE PROIEKTUAREN AURKAKO AHOTSAK ISILDU»

enpresak proiektuarekin aitzinerat egiteko helburuarekin segitzen duela ohartarazi du EH Bilduk. Nafarroako Gobernuak Udalez Gaiindikoa den Plan Sektoriala onartu zuen. Ondotik birzatiketa plana etorri zen eta segidan urbanizazio proiektua. Urbanizazio lanen esleipena balio gabetu du kontratu publikoen epaimahaiak, eta hotelaren proiektuaren kontra Principe de Vianak txostena egin du, lanen lizentzia balio gabetu duena. Hala ere, aitzinerat segitu nahi dute.

Haatik, «oraingo osasun eta ekonomia krisian denen errana da eredu sozial eta ekonomiko aldatu beharra dagoela. Pelotazoan, nekazaritzako lur onen suntsiketaren ondarearen xehakuntzan eta lurraldearen desegituraketan oinarritzen den eredu ekonomiko horrekin krisitik krisira gabiltza», dio EH Bilduk. «Bada ordua jendearen beharren arabera-ko ekonomia antolatzeke. Bada ordua landa eremuak biziarazteko. Jendearen beharren arabera etxebizitzak, elikagai osasuntsuak eta nekazaritza herrikoia, energia berriztagarriak eta tokiko merkataritza eta zerbitzuak. Jende guztien zaintza, ingurunea errespetatuko duen landa turismoa, gremioak, jendearen beharrekin loturiko produkzio eta zerbitzuak, hondakinen kudeaketa, zerbitzu publikoa indartsuak... Hori da bidea, eta ez Aroztegiako pelotazoa».

Hogei urte inguru joan dira afera honetan. Herriarrei ez esteko erran nahi die EH Bilduk: «Denen artean landa eremuak biziaraziko ditugu eta horretarako lehen lana Aroztegia geldiaraztea da. Horretan segituko dugu. Epaiketa eta salaketan gainetik».

Epaileak Elizegi eta Otondoren aurkako auzia artxibatu du

Epaileak ez du prebikaziorik ikusi lehengo eta gaur egungo Baztango alkateen jokaeran eta horregatik artxibatu du

TTIPI-TTAPA

Garbiñe Elizegi Narbarte eta Joseba Otondo Bikondoalehen-go eta oraingo alkateen kontra Palacio de Aroztegia enpresak paratutako salaketak behin-behinean alde batera uztea erabaki du epaileak, auzia artxibatuz. Enpresak prebikazioagatik salatu zituen Elizegi eta Otondo, baina epaileak ez du prebikazioa justifikatuko lukeen deus ikusi.

Baztango EH Bilduren ustez, «bereziki salagarria da Palacio de Aroztegia enpresak proiektuaren kontra agertu diren herritar eta hautetsien aurka

abiatu duen eraso judiziala. Denbora tartelaburrean hainbertze herritar eta hautetsik enpresaren salaketak jaso zituzten. Enpresaren helburua garbia izan da: proiektuaren aldeko argumenturik gabe eta Baztango herritarren aitzinean eztabaida demokratikoa galdurik, proiektuaren kontrako ahotsak isildu nahi izan ditu. Baina ezin izan dute eta ezin izanen dute».

«Proiektu hau hasieratik zerbait izan bada, antidemokratikoa izan dela» uste du EH Bilduk. «Baztandarrei eta lekaroztarrei erabakitzeke au-

kerarik eman gabe egin nahi izan dute. Baztango erakundeek gainetik pasatu dira, udalaren eta Batzar Nagusiaren ahalmenen gainetik, Udalez Gaiindikoa den Plan Sektorial gisa tramitatuz proiektua. Haute-tsien kontra egin dute, eta herritarren kontra ere bai aurkako ahotsak isilarazteko bidean, herri-lurak bereganatu dituzte eta partikularren nekazaritzako lur on eta emankorrak ere bai. Nagusikeriaz eta harrokeriaz ibili dira, zertarako eta pelotazo urbanistikoa egiteko».

EH Bilduk berriz ere oroitarazi duenez, «Aroztegiakoa pelotazo urbanistikoa da. 40 hektarea lur ez urbanizagarri eskuratu eta horiek denak birkalifikatu eraiki ahal izateko. Lekaroz ondoan 700 pertsonako bertze herria, Baztango hamaseigarren herria. Jauntxo batzuk hala nahi izan dutelako, herritarren erranaren gainetik».

«Herritarren kontra»

Lekarozen eta Baztanen egin diren herri-galdeketera herritarrek proiektuaren kontra agertu dira. «Baina herritarren errana errespetatu beharrean gogor jo dute –dio EH Bilduk oharrean–, ausarki duten dirua baliatuz hainbertze jende auzitegiatarat eramateko. Beraiek ohituratuak dauden sos kontuetarako deus ez dena, baina herritar arruntendako kostu ekonomiko handia duena».

Bertzalde, hainbat auzitan proiektu honek araudia betetzen ez duela ikusi bada ere,



Bizikleten salmenta eta konponketa.

 Kanttonberri, 1 | BERA
 T. 948 631 218
 joxemi@kateabike.com
 www.kateabike.com











BERRIA

795€

**BARBAKOA
MALLORCARRA
APALEKIN**

Altuera 250 cm
Sakonera 55 cm
Zabalera 80+80 / 160 cm
Parrilla 60x38cm
Pisua 600+200 / 800kg

**Prestatu eguraldi
ona datorrenerako!
Lorategiaren, pinturen,
barbakoen eta abarren
dekorazioa!**



**Pintatu gabea
Parrila barne**

AUKERAN
Parrila KAXA 60 cm
59€

**Erretoki
handia**


995€

**Barbakoa
apalekin**

Altuera 205 cm
Sakonera 50 cm
Zabalera 149 cm



**Pitzaduren
aurkako kit-a,
pirometroa barne**



565€

Mairu labea

Altuera 95 cm / Sakonera 110 cm / Zabalera 110 cm
Pisua 680 Kg / Barnean suaren gehieneko eremua 85 cm

399€

FIRST Barbakoa apalekin

Altuera 221cm
Sakonera 60 cm
Zabalera 170 cm
Aho zabalera 66 cm
Pisua 700 Kg





Adinekoen eta haien zaintzaileen beharrak izanen dituzte hizpide. ARTXIBOA

'Landa-eremuan zahartzea' ikastaroa urrian

Urriaren 2an, lehendabiziko ortziralean, eskainiko dute ikastaroa Arizkunenea kultur etxean

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, EHUrekin elkarlanean, Nafarroako adinekoen beharrei eta zaintza-hornikuntzari buruz hausnartzea helburu duen *Landa-eremuan zahartzea*. Adineko pertsonak zaintzen laguntzeko sareak ikastaroa antolatu du.

Adinekoak zaintzen laguntzeko sare bat artikulatzeko beharrezko elementu eta jardunbideak zehazteko; eta adinekoen eta haien zaintzaileen beharrei erantzunen dieten pertsonak ardatz dituen zerbitzuak diseinatzeko, urria-

ren 2an, lehendabiziko ortziralean, bilduko dira, Arizkunenea kultur etxean.

Profesionalentzat, zentro publiko eta pribatuetakoa lan-gileentzat, jubilatutako elkarrengatzat, boluntarioentzat eta publiko orokorarentzat 10 orduko ikastaroa da eskainiko dutena, 09:00etatik 18:00etara bitarte (bi geldidune egingen dituzte).

Informazioa eta izen-ematea

Izena emateko eta ikastaroren xehetasunen berri izateko www.uik.eus web orrialdean informazioa eskuragarri dago.

Koldo Biguri gasteiztarak irabazi du 2020ko (H)ilbeltza beka

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkarteak eta Txalaparta argitaletxeak laugarren aldiz antolatutako (H)ilbeltza bekara hamar lagin aurkeztu dituzte eta Koldo Biguri Otxoa de Eriberen itzulpena izan da irabazlea. Orain 3.000 euro emanen zaizkio eta bertze 3.000 euro lana akitzerakoan. 2021eko abenduan argitaratuko du lana Txalaparta argitaletxeak.

Joseba Otondo Baztango alkateak, Josu Barambones (H)ilbeltza elkarteak ordezkariak eta Garazi Arrula Ruiz Txalaparta argitaletxeak ordezkariak osatutako epaimahaiak azpimarratu duenez, «itzultzaileak jatorrizko obraren letrari eta estiloari tentuz eta zentzuz jarraitu die euskaraz baliokide bat sortzeko garaian. Ahalegin horretan bereziki nabarmentzekoa da elkarriketen bizitasuna, italiarazko obran erabiltzen den lagunarteko erregistroa imitatu nahian. Ildo horretan, itzultzaileak egin duen hautaketa lexikoa lagungarri gertatzen da. Orobat, joskera erra-



IV. (H)ilbeltza beka Bigurik irabazi du.

zari esker, testuak ederki korritzen du eta irakurleek erosoki irakurriko dute».

Bekaren helburua

Beka honen xedea euskarazko nobela beltza sustatzea da, eta, horretarako, txandaka sormen eta itzulpen lanak saritzen dira. Aurten itzulpen lana egiteko beka egokitu da.

Idazleari buruz

Filologia ikasi zuen Koldo Bigurik (Gasteiz, 1962) eta, gaur egun, irakaslea, euskaltzain urgazlea eta itzultzailea eta interpretea da. *Senez* aldizkari zuzendaria izan zen 1994-1999 bitartean, eta EIZIEko lehendakari 2000-2002 urteetan.

Zigaurreko ura araztegira eramateko sarea egiteko 130.000 euro eman dituzte

TTIPI-TTAPA

NILSA Lurralde Kohesiorako Departamentuari atxikitako sozietate publikoak, uren saneamenduan eta arazketan diharduenak, 8,5 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu 2020ko lehen sei hilabeteetan hasitako proiektuetara. Proiektu

horien artean daude orain arte horrelako azpiegiturarik ez zuten herri txikietan lau araztegi eraikitzea eta bertze zazpi instalazio berritzea. Baztanen, Zigaurre auzoko ur-zikinak lehendik dagoen araztegi bideratzeko sarea eraikitzeko 130.000 euro eman dituzte.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ERABILTZAILEAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Miguel Sobrinorentzat ikasketa bukaerako lana egiteko beka

Baztango kaparetasun unibertsalari buruzko lana eginen du Sobrinok eta, aurkeztu ondotik, udalak 500 euro emanen dizkio

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Baztango Udalak bailararekin zerikusia duten ikasketa akaberako lanak eta proiektuak diruz laguntzeko dirulaguntza deialdia egin du.

Historiari buruzko lana

Aurten, proiektu bakarra aurkeztu da deialdirat eta epaimahaiak ontzat emanik, onuraduna Miguel Sobrino Etulain arizkundarra izanen da, historia graduiko ikaslea Euskal Herriko Unibertsitateko Gas-teizko Letren Fakultatean. Lana aurkeztu ondotik 500 euroko saria jasoko du.

Baztango kaparetasun unibertsala aztergai

Sobrinok Baztango kaparetasun unibertsalari buruzko lana eginen du. Lan horretan aztertuko du XVIII. mendetik aitzinera bailarako auzokide izateko irizpideak nola joan ziren zorrotuz; denborarekin kapareen murrizketa etorri zen eta, ondorioz, abantaila horien nolabaiteko eskusibitate. Aldi berean gatazka sozialak ere auzokideen eta biztanleen artean.

Ikerketa egiteko bibliografiaren azterketa eta agiritegitako agiriak miatuko ditu.

Epaimahaia

Epaimahaia Lekaroz ikastetxeko eta Elizondoko lanbide heziketa ikastetxeko zuzendariak, Baztango Cederna-Garalurreko teknikariak eta Baztango alkateak osatu dute eta hauek izan dira onespena eman dutenak.

Zortzi lan lagundu dituzte dagoeneko

2016an lehen aldiz deialdia egin zenetik denera zortzi laguntza eman dira eta Baztanekin zerikusia duten lan hauek egin dira: turismoa Baztanen, XVII-XVIII. mendeetako goi-mailako etxeen tipologia, mutil-dantzak eta emaztekiekin parte-hartzea, Baztango haur eskolaren proiektu pedagogikoa, Amaiurko euskararen

berezitasunen azterketa, emakume etorkinen egoerari buruzko lana, Baztango nekazaritza XVI. mendetik XVIII. menderat eta *Baztango turismoa iraunkorra al da?* izenburuko lana.

500 euroko lau laguntza

Deialdiak urtero 500 euroko lau dirulaguntza banatzen ditu gehienez. Aurtengoan, bakarra aurkeztu da.

eta hau ere?

bai

Etxea Automobil Istripuak Bizitza Ehorzketa

Aseguruen inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

CAJA RURAL SEGUROS RGA
Professional Cycling Team

DENA SEGURUAGOA DA HURBIL BAZAUDE
RURAL KUTXA

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoak C-595; Etxe, Istripu, Ehorzketa eta Merkataritza aseguruak RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.683 eta DGSFPko gakoak C-616; Automobil aseguruak honako hauekin kontratatzen dira: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoak C-0467); Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoak C-0613); Mapfre España (IFK A-28141935 eta DGSFPko gakoak C-0058). Aseguruak RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculada, S.A. ren bitartez merkaturatzen dira (IFK A79490264). Madrilen du leibidea (C/Basuri, 14) eta DGSFPren bitartekarien erregistroan inonribatuta dago DV-0006 gakoarekin, baita Madrilgo Merkataritza Erregistroan ere. 9205. Iburukian, 83. telefono, 8. sekzioan, M10188 orrian, Rural Kutxa RGA Mediación ODSV, S.A. ren banaketa sareko kide da. Helbide honetan kontsultatu dezakezu zer aseguru eberekin dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf

Tokiko ekonomia sustatzeko bonuak banatuko dituzte

Arras Baztan fundazioak 10.000 euro bideratuko ditu, 15 euroko 'Piztu!' bonoetan banatuak

TTIPI-TTAPA

Arras Baztan fundazioak toki-ko ekonomia sustatzeko 10.000 euro bideratuko du 15 euroko bonoetan Baztango ehun ekonomikoan erabiltzeko. Bono hauek Piztu! deituko dira eta Baztango Udalak egindako diru ekarpenari esker egingen da kanpaina. Arras Baztan fundazioak kudeatuko du, Baztango eragile sozioekonomikoek osatzen duten fundazioak hain zuzen, eta bertako ekonomian 30.000 euroko eragina izatea espero da.

Herritarrek 15 euroko balioa duten bonoak eskuratu ahaliko dituzte. 10 euro herritarrek paratuko ditu eta 5 Arras Baztan fundazioak. Bonoa pertsonaren, enpresaren eta Arras Baztanen arteko konpromisoa da. Bono horiek Piztu! kanpainarekin bat egin duten Baztango komertzio, zerbitzu eta ekoizle ttikietan erabiltzen ahaliko dira eta helburua toki-ko ekonomia piztea da.

Piztu! bonoaren bereizgarria da ekonomia birtokiratzeko Baztanen gaugergero abiatua zen eginahalarekin bat egingen due-

la. Horrela, Arras Baztan fundazioak bultzatutako Konpromiso ttikien kanpaina gainean antolatzen da. Horregatik, Piztu!rekin bat egingen duten komertzio, zerbitzu eta ekoizle ttikiek Baztango ekonomia birtokiratzeko helburu duten konpromiso ttiki horiek sinatu eta betetzeko ardura hartu beharko dute. Hortaz gainera, parte hartuko duten enpresak elkarteetan bazkidetuak izanik interes orokorragoan lagun dira, eta hori saritu eta indartu nahi da: elkartegintza balioan jarri. Beraz, Piztu! bonoek herritarretan eta eragile ekonomikoetan jarrera arduratsu eta kontzientea eragin nahi dute tokiko ekonomiari buruz, elkarrekikotasuna bultzatuz. Bonoak Elizondoko plazako informazio bulegoan eskuratzeko ahaliko dituzte herritarrek. Bi alditan banatuko dira ekainaren 1etik 7ra eta 15etik 21era. Eta aldi bakoitzean herritar bakoitzak lau bono hartzen ahaliko ditu gehienez. Bonoa eskuratzeko Baztanen errol-datua egon behar da eta 16 urtetik goiti izan behar dira.



Ainhoa Maritorena alkatea eta Jaione Elizagoien lore-sortarekin.

Aniztarrek Jaione Elizagoien eskertu dute konfinamendua musikarekin alaitzeagatik

MAITANE MARITORENA

Konfinamendua hasi denetik, bi hilabete hauetan astebururo Jaione Elizagoien izan da Aniz alaitzen; bere teklatura jotzeaz gain, aniztarrei kantak eskatzeko aukera eskaini die. Asteburuak alegeratzeaz gain, bi hilabete hauetan urteak bete dituzten aniztarrei urte-

betetze egunean zoriontzeko kanta eta urteak bete dituenaren gustuko kanta paratu du. Herria alaitzeagatik eta eskainitako musika joaldi guztiengatik, Anizko herriak eskertza ttipi bat egin zion maiatz hondarrean. Eskertza ondotik Elkartean herritarrendako aperitiboa izan zen.

Salmenta zuzena arautzeko eskaera egin dio Udalak Gobernuari

TTIPI-TTAPA

Udalak aho batez onartu zuen elikagaiak ekoitzi, eraldatu eta horiek zuzenean edo zirkuitu laburren bidez saldu nahi duten etxalde ttipien betebeharrak arautzeko proposamena egitea Nafarroako Gobernuari. Gaia arautzen duten Europako erre-

galamenduek estatuen gain uzten dute elikagaiak ekoitzi, eraldatu eta banatzeko modu tradizionalak baimentzea eta horretarako beharrezkoak diren azpiegituren eraikuntza, diseinua eta hornidurak zein diren finkatzea. Lege arautzea lehenbailehen egiteko eskatu dute.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304

«Gehienbat ostatuek sumatuko dute besten falta»

ITSASO URRUTIA MITXELENA BESTA BATZORDEKO KIDEA

N. BAZTERRIKA ELIZONDO

«Ingurukoek animatuta» orain bi urte herriko besta batzordean sartzea erabaki zuen Itsaso Urrutiak (Elizondo, 1998). Ordutik, elkarteko gainerako kideekin batera, ilusioz parte hartzen du bestak antolatze lanetan. Aurten, ordea, ez du ereindakoaren uzta jasoko, «egoerak behartuta eta pena haundiz» bestak bertan beheiti utzi behar izan dituztelako. Heldu den urterako gordeko dituzte indarrak eta, «denen artean errazago izaten denez», besta batzordera gonbidatu ditu herritarrak.

Nola banatzen dituzue egitekoak eta zein izaten dira zure ardurak?

Ez dugu zeregin zehatzik izaten, bileretan adosten dugu dena eta denen artean betetzen ditugu betebeharrak: musika taldeak, haurren ikuskizunak, publizitatea, programazioa... Aurten lehenbiziko eguneko kontzertuak antolatu nituen baina egunak aitzinera joan ahala egiteko gehiago izaten da.

Noiz erabaki zenuten bestak bertan beheiti uztea?

Maiatz erdialdean, ez dakigu uztail bukaeran zein egoeratan egonen garen eta bizi dugun egoera honekin aitzinerat ateratzea arraz zaila izanen zela ikusi genuen.

Erabakia hartzea zaila izan al zen?

Denek argi genuen arren, lan aunitz egin ondotik, dena lotua genuenez zaila izan zen. **Iruritan bestak bertan beheiti utziagatik keinu batzuk egin dituzte. Zuek ere zerbait eginen duzue?**

Oraindik ez dugu deus solas-tatu, oraindik dezente falta



Itsaso Urrutia, Elizondoko gaztea.

delako baina aitzinerago elkartuko gara eta solastatuko dugu. Sare sozialen bidez zerbait eginen dela pentsatzen dut seinale gisa... baina horiek herriko etxeak kudeatzen ditu. **Besten faltan, aitzinerago zerbait antolatzeko asmoa duzue?**

Hori da denek nahiko gure keena, baina ezin dugu ziurtatu. Ez dakigu aitzinerago nola egonen garen, ezta zer baldintza izanen dugun ere. Esperantza da galtzen den azkena.

Zein ekitaldi da bereziki faltan sumatuko duzuna?

Santiago bezperan kuadrilla-koekin izaten dudak bazkaria, Gazte Eguna eta zikiroa, kontzertuetatik aparte. Aurten arras besta politik antolatuak genituen.

Elizondoko bestek jende aunitz mugiarazten dute. Zentzu horretan, besta gabe gelditzeak aunitzengana eraginen du...

Bai herriko ostatuek sumatuko dute gehienbat. Baina bertze komertzio aunitzetan ere eragin ekonomikoa izanen du. Hondarreko urteetan jende aunitz etorri da Elizondora...

ZUGARRAMURDI



MARIFA ETA KORO

Herriko dantzarien emanaldietan ere eragina izan du koronabirusak

MARIFA ETA KORO

Covid-19 birusaren ondorioetako bat kultura munduan egindako kaltea da. Herrian dantzari talde bat daukagu (Urdazubiko eta Zugarramurdiko gaztetxoak), eta hauek ere martxoaz geroztik geldirik daude. Urdazubiko bestetan ezin izan zuten dantzatu eta Zugarramurdikoetan oraino ikustekoa da.

Hamarkada bateko ibilbidea

Talde hau duela hamar bat urte sortu zen Mari Kruz Goñiren eskutik. Akelarrenean eta frontoian entseatzen dute, eta herrietako bestetan ez ezik,

Xareta Egunean, Baztandarren Biltzarran, Dantxarriko Mentekoste Egunean, Urdazubiko sardina-jatean, eta halako gisatako bestetan ere dantzatu izan dute.

Lehendik ere dantza talde bat bazegoen

Aipatzekoa da duela 80 urte ere dantzari talde bat izan genuela. Hauek mutikoak ziren, eta aparantziak fama haundia hartu zuten. Iparraldean aritu ziren (Azkainen, Miarritzen, Baionan), Landetan ere (Hossegorren) eta Yorkeko Dukeen aitzinean ere dantzatu omen zuten.

caser
residencial

www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erlijio zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



Ekainaren 7an pantailaratu zuten saioa.

'Herri txiki infernu handi' saioa grabatu dute herrian

Telebistan ekainaren 7an izan zen ikusgai eta ikusi ez duenak EITBren 'Nahieran' atalean ikusi ahal izanen du

ARANTXA ETA IRAIA

Joan den maiatzaren 19an *Herri txiki infernu handi* saioa grabatzen ibili ziren herrian. Bertan, hainbat herritar elkarriketatu zituzten eta herriko hainbat txoko eder filmatu zituzten.

Saioaren emankizuna maiatzaren 28an, hondarreko ortzegunean, egin zuten herriko plazan. Dena den, ez zen ohiko grabaketa izan, segurtasun arazoengatik sarrera mugatua izan baitzen. Gainera, ikusleen eserlekuek beharrezko distantzia mantendu behar izan zuten.

EITBren webgunean

berri ikusteko aukera

Ekainaren 7an, joan den igandean, izan zen telebistan ikusteko aukera, ohiko ordutegian, hau da, 22:00etan.

Ikustea posible izan ez zuenak nahi duen egun eta orduan EITB *Nahieran* atalean ikusteko aukera izanen du!

TELEBISTAN ESKAINI ZUTENA IKUSGAI DAGO EITB 'NAHIERAN' ATALEAN

Pixkanaka normaltasunera itzuliz herriko ostatuak ateak ireki dituzte

TTIPI-TTAPA

Egoera normaltzen hasia da gure herrian. Izan ere, herriko plazan dauden eta orain artean itxita egon diren bi ostatuak ateak zabaldu dituzte.

Urbia ostatuak jadanik jantaria eramateko prestatzen zuen eta Karreterok asteburuetan

ostatua eta terraza irekitzen ditu.

Nahiz eta oraindik orain ez duten haien usaiatzeko erritmo hura hartzeko modurik izan, pixkanaka-pixkanaka herrian egoera normalago baten zantzuak ikusten hasiak gara. Animo!



Herriko gazteek ezkila jotzea egin zuten.

Bestei keinu ttipi batzuk egin dizkiete herritarrek

ARANTXA ETA IRAIA

Urdazubiko salbatore bestak maiatzaren 20tik 24ra ospatzekoak ziren, baina bizitako egoeratik bertan behera gelditu ziren.

Hala ere, asteazkenean, besten seinale gisa, herriko gazteek elizako ezkilak jo zituzten eta suziri batzuk ere bota zituzten, herrian soinu pixka bat eginez. Bertzalde Karretero ostatuak terraza ireki zuen aspaldiko partez.

Giro berezia sortu zen hainbat herritar hurbildu baitziren herriko plazara besten seinale gisa. Biharamunean meza nagusia ere egin zen, Salbatore Egunari keinu eginez.

Seinale ttipi hauekin herriko egun berezien oroitzapen bat egin zen, jendeak gustuz hartu zuena. Halere, bertze deus egin ezak tristura sortu zuten. Aurtengoagatik zapore gazi-gozo honekin gelditu beharko gara!

Euskal Herriko lezeen ibilbidea izendatu dute ibilbiderik onena

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko lezeen ibilbidea 2020. urteko ibilbide onena izendatu dute, azken bozketan Turineak antolatutako lehiaketan finalista izan diren gainerako ibilbide turistikoek gailendu baitzaie. Bi hilabete-ko lehiaketaren ondoren, Turineako erabiltzaileek 490 proposamenetatik aukeratu dute ibilbide hau.

leku ikusgarritan: Pozalagua, Ekainberri, Arrikutz, Urdazubi, Mendukilo, Zugarramurdi, Sara eta Isturitz. Balio ekologiko eta natural berezia duten lekuak dira, iraganeko aztarna garrantzitsuak gorde dituztenak, eta, kasu batzuetan, haien hormek artzain-elezaharrekin eta mitoekin lotutako herri-errituak adierazten dizkigute oraindik.

Zortzi leze

Ibilbide honek 500 kilometroko ibilbidea proposatzen du, zortzi haitzulo bisitatzeko eta Kantabriar mendikateko eta Pirinioetako txokorik ezkutuak eta politenak ezagutzeko. Zortzi guraleru zortzi

Lezeen ibilbidearen ondotik sailkatu dira Bizkaiko GR280a eta El Cid-en bidea. Turineako erabiltzaileek bertze ibilbide batzuk ere goraipatu dituzte: Gipuzkoako burdin-lanaren ibilbidea, Parke eta Lorategi Botanikoen Ibilbidea eta Sefarad Bideak.

Mapa Galduek festibala Usopop birsortzeko

Azaroaren 20, 21 eta 22an egingen dute eta aitzinetik hamar bat artistek egonaldia egingen dute Larhuno kaskoan

TTIPI-TTAPA

Hamar urteko ibilbidearen ondotik, Usopop festibalak «kapitulu baten bukaera» iragarri zuen joan den urtean. Baina aldi berean, «Saran kultura sustatzen» segitzeko asmoarekin lanean segituko zutela adierazi zuten eta hala,

izena aldatuta aurtengo hitzordua prest dute: azaroaren 20an, 21ean eta 22an Mapa Galduek festibala egingen dute. Lizarrietan aldea utzi, eta herrira itzuliko dira baina mendia osoki utzi gabe, festibalaren aitzinetik Larhuno kaskoan 10 bat artistek egonaldia egingen dute.

Larhuno trenak ateak zabaltu ditu berriz ere

TTIPI-TTAPA

Ia hiru hilabeteko geldialdiaren ondotik, joan den larunbatean irekitzekoa zuten Larhuno trenak. Egunean zortzi aldiz abiatuko da trenakaskora eta adierazi dutenez, «osasun neurriak zorrotz» errespetatuko dituzte eta erre-

serbak telefonoz bakarrik egingiten ahalko dira; San Inazio lepoan ez dute zuzeneko salmentarik egingen.

Bertzetik, 11 urtetik goitikoek maskara erabiltzea ezinbertzekoa izanen dute, bai geltokietan baita trenaren barrenean ere



Patxi Ruizi elkartasuna

Gose eta egarri greban dagoen Patxi Ruiz euskal presoari elkartasuna adierazteko asmoz eta «kartzela politika» salatzeke helburuarekin, hainbat alditan elkarretaratzek egin dituzte Portuako bueltan. Irudian maiatzaren 21ean egindako bilkura ageri da.



Erdian Laborde auzapeza, inguruan sei axuanta izendatu berriak dituela. GANEX

Hirugarrenez auzapez izendatu dute Laborde

GANEX

Maiatzaren 26ko arratsean osatu zuten Herriko Etxeko kontseilua eta Battitt Laborde aukeratu zuten auzapez, aldeko 20 bozekin eta kontrako hirurekin. Beraz, hirugarren mandata edo agintaldia izanen du. Sei axuantak izendatzeko bi zerrenda izan ziren. Ellan-

de Alfarok hiru boz ukan zituen eta Stéphane Barneixek 20. Beraz, lehen axuanta Stéphane Barneix izanen da, bigarrena Maritxu Arizkorreta, hirugarrena Jean Michel Jauregi, laugarrena Sophie Garbis, bosgarrena Patxi Jauregi eta seigarrena Carmen Errandonea.



Patxi Etcheverrigaray erdian. PEIO BERHO

Patxi Etcheverrigarayk errugbia uztea erabaki du

GANEX

Hainbat urtez errugbian jokatzeko ibili ondoren, jokoa uztea erabaki du Patxi Etcheverrigaray herritarrak. Zazpi urtez aritu da jokoa Donibane Lohizuneko Olympique taldearekin. Gehiago ere bai, 2015ean taldearekin Frantziako txapeldun izan zen federal

bi mailan. Bere 11 zentzuekin jokalaria bortitza eta engaiatua izan da Etcheverrigaray eta taldeak bere laguntasunagatik eta taldea gora eramateko egindako lanagatik ohoratu egin du. Argazkian moztortua ageri den Peio anaiak, ordea, errugbian jokatzeko segituko du.



Baionako Bizia elkartean aritu da Claire Lakarra.

Konfinamenduak ondorioak izan ditu adikziodunendako

Herstura handituz, maiz kontsumoaren handitzea eragiten du bakartzeak, baina batzuetan alderantziko gertatu da

PIERRE BASTRES

Donibane Lohitzuneko psikologoa da Claire Lakarra, urte zonbaitez geroztik Senperen bizi dena. Hark berak dioen bezala, «jendeen laguntzeko asmoz hautatu dut lan hau, norberak bere emozioak ezagutzeko eta manatzen ikasteko. Ikasketak Bordelen eginda, Baionako Bizia elkartean aritu izan naiz eskola-trebakuntzarako. Iduritu zitzaidan izigarri aitzinatuak zirela adikzioen kudeatzean, eta adikziodunen laguntzeko. Hemen behar nuela lan egin».

Eta erdietsi ere egin du Senperekoak: bi lanpostu ditu, bat Baionako Adikzioen Sailean, eta bertzea Bizian hots. Nabardura tikiak izanagatik ere, helburu bera dute bi erakunde: adikzioa daukatenen laguntzea.

Konfinamenduaren ondorioak ahalik eta hurbilen ikusi ditu: «Lehenik, adikzioa zer den konprenitzea garrantzitsua da: eritasun bat da. Zure buruaren jabetasuna galtzen duzunean zerbaiten kontsumitzerako erraten da adikzio daukazula. Izaten ahal da substantzia bat, legeak onartua edo ez: tabakoa, alkohola, kanabisa, kokaina... edo jorkabide bati lotua: jokoa, sexua errate baterako. Hastapenean, plazer bat sortzen zaizu, baina denbora gan arau, segitzen duzu kontsumitzen, nahiz eta ondorio txarrak eta sufrikarioak atsegina baino handiagoak izan. Herstura edo antsiak zeregin handia du, zenbat eta herstura gehiago, orduan eta kontsumo handiago. Guhemen gara, ez baitezpada kontsumitetik gelditzeko, baizik eta

bakoitzaren beharrei erantzuteko: sufrikario mailari, pertsonaren ahalak eta egoerari egokitzen gatzazkio: helburuak arras bertzelakoak daitezke bi pertsonen artean: kontsumoaren gelditzea izan daiteke, baina ez baitezpada: guttiago kontsumitzea edo guttiagotan izaten ahal da, edo ondorio txarrak arintzea».

Hori gogorat emanik, ageri da bakartze handi horrek jendeen beldurra hazi baitu, kontsumoaren handiarazteaz ohartu da Claire: «Bortz eragin ezkor izan ditu konfinamenduak: Estresa piztu zaio jende ainitzi. Bakoitza ahal duen bezala hersturaren arintzen entseatu da, kontsumoaren handituz batzuetan. Bertzalde, ospitalean zein bizian, entseatzen gara egunen antolatzen eri direnenekin: haatik, etxean egotera behartua izanez geroz, usaiko egiteko frango ezin genuen egin. Erritmo-gabe honengatik ere, arazoa handitu zaio zonbaiti. Jendeen arteko harremanak guttitu dira, eta hori ere izan da adikziodunen gaizkirat. Gainerat, lege-kanpoko substantzia asko atzeman-gaitzak bilakatu eta egon dira luzaz, oinazea bilakatzeraino substantzia horren beharretan zirendako. Azkenik, gan-etorrien egiteak hurbiletik zainduak ziren, eta batzuek ez ziren menturatzen. Baina moldatu gara, telefonoz edo bideo-konsultak antolatuz».



Claire Lakarra.

«ERI ZONBAITEK KONTSUMOA UTZI EDO MURRIZTEA DELIBERATU DUTE»

Baina, alde onak ere ageri dira: «ezagutzen ez genituen batzuk gureganat etortzea erabaki dute, adikzioa zeukata edo ezin zutela kudeatu ohartu direlako. Lotura berriak eraiki ditugu», dio Lakarra. Halaber, aitortu duenez, «asmatzen ez genuen joera batek harritu gaitu: egoera zail hau erronkatzat hartu dute eri zonbaitek: paregabeko parada zelakoan, gelditzeko edo kontsumoaren murrizteko garaia zela deliberatu dute! Konfinamendua ezinbertzekoa baita denendako, ematen du haierri estresaren zama arintzen ari zaiela, eta aitzinerat jotzen dute erreziagi».

Senpere Bai eta Elgarrekin Senpererentzat bat eginik ereiarioaren 28rako

P. BASTRES

Herri hauteskundeak ereiarioaren 28an egingen dituzte. Elgarrekin Senpererentzat eta Senpere Bai zerrendek bat egingen dute bigarren itzulirako. Dominique Idiat eta Jean-François Bederede adostu dira elkar hartzeko eta Pierre-Marie Nousbaum auzapezari nagusitzen

saiaitzeko. Bortz abertzale sartuko dira zerrenda bateratuan.

Lehen itzulian Nousbaumen Agir Pour St Pee (Senpererentzat Ekin) taldeak 1.192 boz lortu zituen, Dominique Idiat -en Elgarrekin Senpererentzat taldeak 1.171 eta Jean-François Bededereren Senpere Bai talde abertzaleak 474 boz.



Ipar Martxako Nafarroako txapelduna da gaur egun Jon Medrano. UTZITAKO ARGAZKIA

«Ipar Martxako lehen maratoia egingen dugu Bidasoko Bide Berdean»

JON MEDRANO TTUKU TTUKU ELKARTEKO KIDEA

Ipar Martxako lehen maratoia egingen dute abuztuaren 16an Bidasoko Bide Berdean. Donezteben hasi eta akituko da eta maratoi erdiko eta 5.000 metroko proba ere izanen ditu

A. AROTZENA DONEZTEBE

Ttuku Ttuku ipar martxa klubak eta Corriendoporel mundu enpresak Ipar Martxako (Nordic Walking) lehen maratoia antolatu dute abuztuaren 16an Bidasoko Bide Berdean. Doneztebetik abiatu eta Sunbillaraino prestatu dute ibilbidea. Maratoiko 42.195 metroak egiten dituztenek lau joan-etorri egin beharko dituzte, maratoi erdia egiten dutenek (21.097 metro) bi joan-etorri eta 5.000 metroko promozio proba ere izanen da. Bakarka nahiz erreleboka egin daitezke ibilbideak. Ttuku Ttuku elkarteak antolatzaileetako bat da Donezteben eta NARBARTEN bizi ondotik, gaur

egun Elizondon bizi den Jon Medrano irundarra. Nafarroako txapelduna ere bera da. Eskubaloi jokalaria eta entrenatzaile ere izan da, baina Ipar Martxan topatu du orain gus-tuko kirola.

Ttuku Ttuku klubak antolatu du abuztuaren 16ko Ipar Martxa Maratoia...

Ttuku Ttuku elkarteak duela denbora gutti sortu dugu Elizondon, hiru pertsonen artean. Ez du urtea oraindik, beraz elkarte gaztea gara. Urte honetan kudeatu nahi genuen bazkidetza, baina Covid-19aren afera honekin ez dugu lanean jarraitu. Dena den, 150 pertsoneri erakutsi diegu Ipar Martxa zer den eta nahiz baz-

kideak ez izan, jendeak erantzun du hala balira bezala. Corriendoporel mundu Ipar Martxa maratoiaren antolatketan lagunduko duen Iruñeko enpresa bat da, 2008an sortua, lasterketak, bidaiak... antolatzen dituena.

Modalitate honetako lehen maratoia izanen da?

Nire ustez bai, ni berriki sartu naiz honetan, orain dela hiru urte, baina denbora gehiago

**«GORPUTZARI
ONURA EKARTZEN
DION KIROL MOTA
DA IPAR MARTXA»**

daramatenek maratoi erdia bai badagoela, baina maratoirik ez, hala erraten dute. Beraz, aitzindariak izanen gara. Ea nola ateratzen den!

Nolako ibilbidea izanen du? Hainbat distantzia ere proposatu dituzue...

Ibilbide polita izanen da, eta zelai-zelaia Bidasoko Bide Berdean barrena, edozeinek egiteko modukoa. Doneztebeko Intzakardi parketik abiatuko da goizean goiz, Sunbilla herria pasatu eta bertze kilometro eskas bat segitzen du Igantzi aldera trenbidetik, 5 kilometro pasatxo joan eta bertze hainbertze buelta, gutxira 2 bueltetan maratoi erdia, eta 4 bueltetan maratoia. 5 kilometroko proba ere bada.

Federatua egon behar da Ipar Martxan lehiatzeko?

Komeni da federatzea, ez bakarrik lasterketendako baizik eta mendi entrenamenduak ere egiteko, Mendi Federazioak hartzen baitu bere gain Ipar Martxa. Gurea bezalako probak egiteko, adibidez, ez da federatua egon behar, probak berak bere aseguruia izanen baitu.

Nola definitu daiteke Ipar Martxa?

Ekintza osasungarria da, ibiltzeko postura mantentzen duena, eta bi makilak edo bastoiak ongi edo moduzehatz batean erabilita gorputzari onura asko ekartzen dizkion kirol bat da. Naturan ibiltzeko bertze modu eder bat.

Noiztik ari zara Ipar Martxan? Nafarroako txapeldun ere bazara modalitate honetan...

Ipar Martxan orain dela lau-pabortz urte hasi nintzen nire emaztearekin, biak gara Ipar Martxako monitore Donostian. Valladoliden atera genuen titulua ENWA eskolarekin. Ni segidan lehiatzen hasi nintzen eta pasa den irailean Azagran Nafarroako txapeldun izan nintzen. Proba hau estatu mailako probetan ere sartua zegoen. Aurten eazergertatzen den Covid-19aren afera honekin, baina printzipioz irailean berri egingen dute txapelketa.



Enpresa berrian hasiko diren hamabi erremontista nafarrak ageri dira bi argazkietan. Eskuinekoan, Saldias, Larretxea eta Eloy doneztebarrak. UTZITAKOAK



16 pilotari izanen ditu erremonte enpresa berriak

Horietatik hamabi nafarrak izanen dira, erdiak Doneztebekoak (Uterga, Ezkurra II.a, Jabalera, Larretxea, Saldias eta Eloy)

TTIPI-TTAPA

Erremonteko enpresa sustaizaille berri bat sortzeko proiektua errealitate bihurtu da dagoeneko. Izan ere, abenturan murgildu diren lau enpre-

saburuek 16 erremontista bildu dituzte, urte honen akabaila arte kontratuak sinatu dituzte eta ekaineko hirugarren astetik aitzinera lehiatzeko prest egoteko entrenatzen hasi

dira. Erremontista horietatik 12 nafarrak dira (Xanti Uterga, Josetxo Ezkurra, Aimar Jabalera, Aimar Saldias, Julen Larretxea eta Eloy Garcia doneztebarrak, Xabier Azpiroz, Aritz Garcés, Mikel Otano, Ibai Barricart, Beñat Rodríguez, Kemen Aldabe,) eta bertze lau gipuzkoarrak (Patxi Zeberio, Ion Etxeberria, Igor Agirrezabala eta Matxin III.a).

Horietatik gehienak, dozena bat, Oriamendi 2010 enpresan ari ziren martxoaren 31 arte. Bertze lauak Doneztebekoak dira, hiru profesional berriak (Jabalera, Saldias eta Larretxea)

eta laugarrena, duela urte pare bat profesional izan zen eta berriz hasiko den Eloy. 16 erremontelariak urte bukaera birtarteko kontratua sinatu dute eta orain arte bakarka entrenatu dute Agoitz, Azpeitia, Doneztebe eta Atarrabiako pilotalekuetan. Orain binaka aritzeko baimena ere badute, beti ere segurtasun neurriak betez.

8-10 jardunaldiko torneo batekin hasteko asmoa dute ekainaren hirugarren asteburitik aitzinera; lehen partidak Agoitzen eta azkenak Labriten jokatuko lirakeke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Igotz Gardek entrenatuko du Baztan FT

Baztan Kirol Elkarteko zuzendaritzak jakinarazi duenez, heldu den denboraldiko hirugarren mailako entrenatzailea Igotz Garde izanen da. Lehen ere talde nagusia zuzendu zuen Gardek, Xabier Maia (bigarren entrenatzailea) eta Mikel Altzuri (prestatzaile fisikoa) izanen ditu ondoan.

Donato Larretxearen marka hobetzen saiatuko da Iker Vicente igandean

TTIPI-TTAPA

Iker Vicente, Nafarroa eta Euskal Herriko aizkolarari txapeldun eta Munduko bigarrena denak, kanaerdiko (54 ontzako) hamalau enbor 27 minutu eta 17 segundo baino guttiagotan moztu nahi ditu. Modu hone-tan, Donato Larretxeak 1995ean Donostian egindako marka hobetu nahi du. Ekainaren 14an, igandean 12:00etan Iruñeko Nafarroa Arena aretoan izanen du hitzordua. Ekintza guztiz soziala izanen da. Saiakera honen helburua, Covid-19aren kontra lan egi-

ten ari den Centro de Investigación Médica Aplicadaren-dako (CIMA) ahalik eta dohaintza gehien lortzea da. Informazio guztia: www.helpify.es.


Erronka gogorra dauka Otsagabiko kirolariak aitzinean, oraingoan beti animatzen eta bultzatzen aritzen den publikorik gabe egin beharko duelako proba. Teknika eta indarra inportanteak dira aizkolarientzako, baina baita zaleen ahotsen beroa ere. Gertakizuna EITBk emitituko du haien lehenengo kanalean, internazionalen eta streaming bidez.

ZERBITZUAK

OROIGARRIA

Beatriz ETXARTE IRAZOKI

Elizondón, apirilaren 11n, 86 urte zituela



Bigarren amari,
ez adiorik,
gero arte baizik.

JUANIKOTENA-HITA FAMILIA

URTEURRENA

Asier JORAJURIA BAZTERRIKA

Donamarian, 2019ko maiatzaren 29an
I. urteurrena



Goxotasuna, maitasuna
Muxu eta besarkada
Gugana hurbildu zuten guzietan
Eskertzeko garaia da
Maiatzako egunsenti hura
Bihurtu zitzaigun gaba
Zeinen azkar ta aldi berin motel
Urte bat pasa da jada

Famili osoa elkarrekin
Zuri gustatu gisara
Zurekin bizitako guztia
Oroitzapenen kutxara
Denak maiz goxo oroitzen ttugu
Malko zein irri algara
Muxu haundi bat zuretzat Asier
Zutaz asko oroitzen gara.

ETXEKOAK

OROIGARRIA

Jabi GOMEZ

1961-2020

Guk segituko diagu ibilbidea.
Hi ere gurekin
etorriko haiz beti.
Besarkada bat.




HIRE LAGUNAK

OROIGARRIA



Txuma Eugui Eugui

Baztandarra txirrindulari taldearen sortzaile,
elkartea bizirik mantentzen jakin duena.
Elkarteko baratztea kimuz beteta utzi duzu.
Aldudeko buelta ematen dugun bakoitzean
ikusiko dugu elkar.



HERIOTZAK

- **Andree Elizalde**, Sarakoa, maiatzaren 6an, 85 urte zituela.
- **Migeltxo Danboriena Iribarren**, Azpilkuetakoa, maiatzaren 20an, 71 urte zituela.
- **Juan Antonio Arburua Tomasena**, Etxalarkoa, maiatzaren 22an, 84 urte zituela.
- **Estanislao Erasun Erasun**, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 23an, 55 urte zituela.
- **Antonio Sarratea Elizainzin**, Zigakoa, maiatzaren 25ean, 84 urte zituela.
- **Alejandro Juanikotena Hita**, Arizkungoa, maiatzaren 25ean, 74 urte zituela.
- **Rafael Barragan Collado**, Elizondokoa, maiatzaren 26an.
- **Miguel Antonio Etxeberria Telletxea**, Ezkurakoa, maiatzaren 27an, 69 urte zituela.
- **Maria Etxenike Petrarena**, Sunbillakoa, ekainaren 1ean, 101 urte zituela.
- **Loli Iparrea Iribar**, Elizondokoa, ekainaren 2an, 76 urte zituela.



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDON Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERA San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñeko ospitaleetatik edozein herritara



948 63 74 04 / 948 19 70 70



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

Zerbitzuak Baztanen, Bortziritan,
Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

IGANTZIKO BENTAK. Irailetik ekainera pisu argitsua errentan emateko, irakasleentzat aproposa. 3 logela, bainugela, sukalde-egongela, 2 terraza, baratzea egiteko lur sailarekin. 450 euro hilean, gastuak barne. ☎617 34 75 28.

BERA. Legia karrikan pisua errentan emateko: 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela eta ganbara. Gasoliozko berokuntza. ☎678 36 33 98 / 678 30 52 50.

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN-BIDASOA edo **Ultzama** aldean pisua edo etxea errentan hartu nahi dute, hilean 600 euro arte ordaintzeko prest. ☎698 51 15 25.

LEITZALDEA. Hiru gaztek Leitzia inguruan baserria errentan hartu nahi dute. ☎630 22 39 49.

DONEZTEBE INGURUAN. Informeak dituen bikoteak pisu bat errentan hartu nahi du. 500 euro arte ordaintzeko prest. ☎657 65 04 43 (Lourdes).

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakumeak opari. Etxe bila gabiltza. Ama ehiztari bikaina dugu, eta gu goxoak eta jostalariak gara oso. Eramanen gaituzu zurekin? ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

SALGAI



Bi hilabete bete dituzten txakur **ku-meak** salgai. 50 eurotan bakoitza. ☎648 87 60 44 / 628 68 28 73.

LANA

ESKARIAK

LEITZA. Esperientziadun emakumea lan bila, haur edo helduak zaintzeko edo garbiketarako. ☎632 56 00 52.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttiipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

Udan **haurrak zaintzeko** lan bila. ☎677 09 95 99.

Adinekoak zaintzen 5 urteko esperientzia duen emakumezkoa lan bila, interna ere prest. ☎643 49 94 03.

Haurrak eta adinekoak zaintzen eta etxeko lanetan esperientziadun neska langilea lan bila. ☎644 68 96 44.

Lesakako neska gazte bat udan **haurrak zaintzeko** prest. Esperientzia duena eta Lehen Hezkuntzako gra-



dua ikasten. Auto propioa. ☎648 65 79 81.

BERA. Pagola harategian harakina behar dute egun osoz aritzeko. ☎948 63 00 54.

ESKAINTZAK

BORTZIRIAK. Aholkularitza bulego batean aritzeko langile bat behar dute. Lan-arloan aditua. Bidali curriculum: laneskeintza31@gmail.com.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,02
- 1.koa 4,90
- 2.koa 3,75

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,13
- 1.koa 3,99
- 2.koa 3,85

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 170,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,85/6,45
- 8-10 kilokoak: 4,60/5,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 68 €


Zerri gizona 1,263 €

Zerramak 0,470€ kg/bizirik


Datu iturria: Nafarroako Gobernua (maiatzaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

DENETARIK

SALEROSKETAK



Ohe artikulatua salgai bere barandekin, eta **gruarekin**. Oso egoera onean. 350 euro. ☎600 02 33 31.



Ohe artikulatua salgai bere barandekin. Aukera paregabea. 200 euro. ☎600 02 33 31.



350 **gaztain pikete** salgai, 1.80 metro luze, bakoitza 2 eurotan. ☎699 02 73 78.

BERAKO UDALA

OIHAN ENKANTEA

BERAko Udalak gutun-azal itxiko prozeduraren bidez enkante publikoan salgai jarriko du 'Arranoko Harria' eta beste paraje batzuetako oihan-aprobetxamendua.

Proposamenak 2020ko ekainaren 22ko 13:30ak arte aurkeztuko dira.

Baldintza pleguak Udal Idazkaritzan, web-orrian (www.bera.eus) eta Nafarroako Kontratazio Atarian ikusgai egongo dira.

Bera, 2020-06-02

ALKATEA,

Aitor Elexpuru Egaña



TTIPI-TTAPAK lan-poltsa osatzeko kazetariak behar ditu

Eskatuko da:

- Kazetaritza, ikus-entzunezkoen komunikazioa edo euskal ikasketak izatea.
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea.

Kontuan harutuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.
- InDesign programa erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Bidali curriculuma info@ttipi.eus helbidera ekainaren 19a baino lehen.

BAZTANGOZA TALERRA

Toyota Land Cruiser
(173 CV) - 2007 urtekoa - 6 abiadurekin

VW Sharan Sport
98.000 km - 7 Plaza - Automatikoa

VW Transporter Multivan
49.000 km - Estra aunitzekin

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
baztangoza@yahoo.es

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT MEGANE IV 1.5 dci 110 CV
13.950 € - 54.300 kilometro

DACIA DUSTER 1.5 dci 110 CV 4x4
11.900 € - 36.800 kilometro

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com



744 484 361



SORTZEAK

- **Maiana Iru**, Sarakoa, martxoaren 22an.
- **Anddur Arregi**, Sarakoa, martxoaren 29an.
- **Izia Gulcker**, Sarakoa, apirilaren 9an.
- **Bittor Ameztai**, Sarakoa, apirilaren 22an.
- **Joy Ugarte**, Sarakoa, maiatzaren 3an.
- **Mikel Errandonea Pestryakova**, Berakoa, maiatzaren 8an.
- **Alexandru Andrei Pop**, Doneztebekoa, maiatzaren 13an.
- **Mikel Telletxea Braz**, Doneztebekoa, maiatzaren 19an.
- **Xuban Makazaga Zabala**, Goizuetako, maiatzaren 27an.
- **Aimar Elizalde Gartzia**, Sunbillakoa, maiatzaren 30ean.

EZKONTZAK

- **Alvaro Matxinbarrena Carasa** eta **Eugenio Lizarraga Errazkin**, Elgorriagakoak, ekainaren 1ean Donezteben.

URTEBETETZEAK



Lea eta **Xabat Beorlegi Vicentek** urtea eta 4 urte beteko dituzte ekainaren 13an eta 21ean. Zorionak gure bi *texoritoei* eta mila muxu pottolo!!!



Oronoz-Mugairiko **Olaia**, **Egoi** eta **Nora Otxandorenak** ekainaren 26an, 19an eta 4an, 11, 8 eta 4 urte beteko dituzte. Muxu erraldoi bat aita eta amaren partetik!!!



Aunitz urtez Urdazubiko **Alicia Olaizolari** ekainaren 2ko partez. Muxu aunitz irazoki Pinaki familiaren partetik.



Leitzako **Lide Urkiola Mariezkurren** 6 urte beteko ditu ekainaren 19an. Zorionak eta goxokizko muxu haundi bat June, Izargi eta Haizederren partetik!



Legasako **Ander Zelaia Eulatek** 10 urte beteko ditu ekainaren 13an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Igantziko familiaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu zure ingurukoak!
Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora edo bidali argazkia eta testua: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

GOITI ETA BEHEITI



Goizuetako erreka bazterrak zaborrez beteta

Goizueta eta Arranbide artean jendeak utzitako zaborra biltzen aritu zen maiatz hondarrean Goizueta-ko Udala. Hala, freskura bila erreka bazterrean joatea ongi dagoen arren, zaborra bertan uztea gaitzetsi du. «Naturaz gozatzeko baina ingurua zaintzeko» deia egin du.





PLAZAN BAZAN



ZORTZIKOA

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira



ENTSALADA BAT, HIZKI-ZOPATAN

Entsalada hau osatzeko
behar izan ditugun gai guztiak
hizki-anabasa horretan daude.
Aurkitu.

A A B A L M A A A A A A A A M B
S S K R E A S T O M A T E A S A A
D D J R T Z D D D G A G I D D I S
F F U A X K O F F F F U F F T U
G G O U A U G L G G G G R G G A R
U U N T V R U U I U E U A U U S D
A A B Z B Y A B A O A A Z A A T A
E E A A M T E U E E A E A E O U I
L L W L A W S K W L L L K L L N N
K A E K R E K Z U O L I B A K I D
N Z I N R O I N Y H N L N I P Z I
J T O A U L M O Z P I N A R I E J
A A N R B J A A S J P O B I H R A
B G I R E U U E N T S A L A D O R



BAI ALAI!

Zer dira aurpegiak ahorik gabe...
Zer pentsatzen ari diren asmatzea zaila da, ezta?
Marraztu iezaiezu zerbait maskaran, alai daudela eman dezan.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

759 aleko
irabazleak ➤



ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE


www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Wow Park

wowpark.fr



2 sarrera

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK

www.mendukilo.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



1. lotea

- Boskotea ohean
- Nolakoak diren aita!
- Lehiaketako munstroik okerre



2. lotea

- Animalia asko, pila, bila
- Danba Danba!
- Animalien ikasturte hasiera

ibaizabal

www.ibaizabal.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.maukamusik.com



www.aquariumss.com